JUAN LUIS ZABALA

Inon izatekotan

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2006 Juan Luis Zabala
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2006ko maiatza
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

1985

1985eko abuztuak 8
GOZOTASUNA

Bilera tirabiratsua izaten ari da, beroa, istilutsua. Arazo gaitz bat konpontzerakoan erabiltzen diren tonuak: oihuak, errietak. Dena baretu denean, solas lasaian lotu gara O. eta biok atariko aulki batean eserita.

– Alde ederreko lasaitasuna diagu hemen orain –komentatu diot O.ri.

– Bai, baina ni txiskeroarekin inurriak erretzen ari nauk.

– Tira –erantzun diot–, hori ere ekintza gozoa duk.

Bare-bare kiskaltzen dira inurriak.

1986

1986ko urriak 30

Bolantedun makina elektroniko batean jolasten ari naiz. Autoak aurrera egin ahala, paisaia berriak ageri dira pantailan. Saiatzen naiz ahalik eta urrunen joaten istripurik gabe, baina ezin dut bazterra edo aurretik datorren autoren bat jotzea saihestu. Makina itzaltzen zait ondorioz. Txanpona sartzen dut berriro. Inondik ahal dela, aurrera segitu nahi dut amaitu arte, paraje guztiak ezagutu arte.

1987

1987ko ekainak 29

Ez dago apaltasunik. Beldurra da.

1987ko abuztuak 31

Marilyn Monroek esana: «Ez zait dirua interesatzen. Liluragarria izan nahi dut, besterik gabe». Niri ere ez. Nik ere bai.

1987ko irailak 15

TRIAL OF EXPLANATION

I hear the radio and I watch TV, I read newspapers, poems, romans, I go to the cinema, I walk in museums... I do all that, I go to sleep, I rest lonely with myself and I feel I am a good guy, a boy who is doing what he must, and it’s beautiful this sensation of happiness. But sometimes I stay with my friends, boys and girls, and I see they don’t care for me. If I were a stupid boy I could understand it. I sometimes feel broken for that. But it’s so easy to understand. They don’t care for me just because I don’t care for them, I really cannot care for them. There’s no communication, there’s no friendship at last. They are, most of them, good boys and girls, and they have done really good things for me when I have needed it, or, simply, when they have got an opportunity. But really most of the time they have not that kind of opportunity, and me too to do the same with them. And our lives they pass

so apart the ones from the others, and it seems they have not any remedy.

When I am lonely –with myself, like I did say before– I think friendship is possible, is normal, is necessary. And this sensation grows when I am with the radio, the TV, the newspapers, a book, a movie... And if I really like the book or the movie, the feeling of joy grows so much that I sometimes get really excited, I think things can get so easy and I feel so near of the revolution of ideas on my mind. And I really have got some ideas that I think they are good ideas. But those ideas never could get any solution to the problem I have mentioned before.

The matter is that I usually get communication with works of artists that I like, easier than with people I talk with, with people of flesh and bones.

I think the problem I have exposed does not belong only to me. I think there are so many people –even between my friends– having the same problem, feeling the same feelings, which are really difficult to understand, and so to explain. I have tried it during the writing of this text.

1987ko azaroak 4

Besterik ez balego ere, beti ditugu bi gauza: ibiltzea eta irakurtzea; amaierarik gabeko bi ekintza.

1987ko azaroak 23

Une batzuetan literatura baino haratagoko zerbait lortu behar dudala iruditzen zait, liluraren liluraz haratago eta haratago, gorago eta gorago, baina inora ere iritsi gabe inoiz. Eta laster literaturara jaisten naiz berriz. Hori da segurtasuna galdu gabe, zorabiorik gabe, zapal dezakedan eremurik garaiena.

1987ko abenduak 3

Ideiak bururatzen zaizkigunean, nondik datozkigu burura? Nondik? Burutik sano ez daudenak, non dabiltza, gertuago ala urrutiago leku ezezagun horretatik? Beste nonbait daudela iruditzen baitzait, ezagutzea mereziko lukeen leku batean; areago, bizi garena edo bizi duguna baino benetakoagoa den leku batean. «Arrazoia» dutela iruditzen zait batzuetan eta gu haien aldean ezer ere ez dakigun kokoloak garela.

1987ko abenduak 6

Atzo goizean behaztopa egin eta hartxintxar artean erori nintzen. Hankan zauri txiki batzuk egin nituen. Ez ninduen inork ikusi. Jaiki eta neure bidea segitu nuen, inguruetara lehenengo eta hanka aldera gero begiratu ondoren. Zauriak handiak ez direnez, ez diot inori ezer kontatu. Hankak galtzapean ditudalarik, ez dit inork ezer galdetuko. Nitaz aparte, beraz, inork ez du inoiz nik atzo izandako istripu txikiaren berri izango. Hortaz, zertarako erori nintzen?

1988

1988ko urtarrilak 2

Argazkian ageri den atetik zehar abiatzeko gogoa. Adibide bat, besterik ez, baina zer da dena ere adibidea baino?

* * *

Enkargu guztiak izaten ditut gogoan eta, bitartean, bizitzea ahazten zait. Egoki Joy eta Tristian Sakon, hiritar arrunta eta poeta tristea enkarguak egiten hirietan.

1988ko urtarrilak 15

Baloi bat etorri zait hanketara eta jolasean hasi naiz baloiarekin umeen aurrean. Alde egin dudanean konturatu naiz ez dudala erreparatu umeen aurpegietan. Umeak izan dira besterik gabe, ume anonimoak baino ez, berezko nortasunik gabeak. Eta hori ez dagoela ondo iruditzen zait orain. Traizioa izan da neure haurtzaroarekiko.

1988ko urtarrilak 20
ETORRI

Nahi dunanean etorri.
Itsasoari begira egongo naun,
begiak ortzaizean galduta,
eta kontatzeko istorio bat
izango dudala agintzen dinat,
tristea seguru askorik.

1988ko urtarrilak 24

Nik sinpatia badut, izan, eta erabili ere egiten dut maiz, baina faltsua iruditzen zait batzuetan, eta lotsagarria beti.

* * *

Beste inork idatziko ez lukeena idazteko gaitasuna dudala uste dut. Eta hala uste izateari utziko banio beste planteamendu bat izango nuke idazterakoan, zeharo utzi agian egingo ez banio ere.

1988ko martxoak 16

Oraintxe da aguretutakoan gustura eta nolakoa datekeen ezin azaldu dugun amildegizko hunkidura zorabiagarri batez irakurri ahal izango ditugunak idazteko garaia. Garenaren muinik muinena utzi gordeta orain, aguretutakoan oroimena ahalik eta zoko-mokorik sakonenetara heltzeko gauza izan dadin. Ari al gara horretan behar bezala?

1988ko apirilak 1

Ez dakit nola iritsi naizen honaino. Oharkabean gauzatuz joan da erabakia. Eta orain honela bizi naiz, paper batzuetan idazten ditudan lerro, paragrafo eta testuei lotuta. Nahiz eta hau ere azken-azkenean imitazio ergel eta umiliagarria izan. Imitazio orok bezala, honek ere bere hitz higatua du: literatura.

1988ko apirilak 15

Iritzi guztiak okerrekoak dira, baina beti izaten dira okerreko iritziak izateko arrazoi zuzenak.

* * *

Gai batzuetan –gehienetan esango nuke, denetan ez izatekotan ere– iritzia inperfekzio seinaletzat jotzen dut. Iritziari pertsonak erakustez gerotan lotsaz erakutsi beharko lukeen akats espirituala deritzot. Iritzia duenak onenak eman ditu, jai du, bereak egin du.

1988ko maiatzak 17

Arazo bati bueltak ematen dizkiot hausnarketan eta ezin inondik inora konpondu. Orduan, arazoa laztandu egiten dut. Konponbide fantasmagorikoak asmatzen ditut, heroikoak ere bai. Ezintasuna sentitzen dut berriz ondoren eta arazoa laztantzen segitzen dut etsipenaren esparru hordigarrian barrena herrestan eramanez. Zoriontsua sentitzen naiz inondik inora, ahalegin guztiak eginagatik ere, ezin konpondu dudan arazoarekin.

1988ko ekainak 13

Auto-stop egiten gizon bibotedun batek ekarri nau etxera. Ustekabeko euriak harrapatu eta bustita nengoen auto-stop egiten, bere auto handi dotorearekin alboan gelditu zaidanean. Gero, bidaiak iraun dituen hogei minutu eskasetan izan dugun solasaldia aski izan du gizon bat dela erakutsi ahal izateko. Auto handi dotorea ez ezik, lan garrantzitsua ere badu, emaztea eta pare bat seme-alaba edo. Apaltasun zintzo batetik irten gabe mintzatu bada ere, bere hitz egokiei benetako gizonaren harrotasuna zeriela iruditu zait. Edota agian neuk, bere ondoan eserita, neure buruari euli bustiaren antza hartzen niolako izan da besterik gabe. Izan ote ninteke ni inoiz hura bezalako benetako gizona hala nahi izanez gero?

1988ko uztailak 4

Aspergarria deritzot hainbat gairi buruz hitz egiteari edo idazteari, astakeria obsesibo bat bene-benetan esan, aldarrikatu, eutsi eta azkenera arte gogor eginez defenditzeko ez bada. Literatur teoriaz esate baterako.

1988ko uztailak 17

Egunak eta egunak etxetik irten gabe igaroz gero, ez naiz dutxatzen, ez naiz garbitzen, ez dut bizarra mozten, edozer moduz jantzita nabil. Hauxe bera nahikoa da adiskideak etsai ere badirela baieztatzeko.

1988ko irailak 11

Errealitatean egia zinez benetakoa da, logikoki. Bai.

* * *

Idazleak bere testuaren zati bat azpimarratzen du, ideiaren zama guztia zati labur horretan bildu nahian. Bere ustetan hortxe dago dena, munduaren, unibertsoaren erabateko laburpena, behin betikoa. Behintzat azpiko marra trazatzen ari den artean, eta are une horren zorabiotik jaitsi artean ere.

1988ko irailak 14

«Mundu oso bat daukat, barruan gordea eta usteltzen ari zaidana. Horregatik naiz idazlea. Neure barruko mundu hori ateratzen dudanean ez da jadanik neurea izango. Beraz, ez iezadazue niri begiratu, ez iezadazue niri errietarik egin».

1989

1989ko urtarrilak 6

Pixa egitera sartuta, armiarma bat ikusi dut komuneko ontziaren ondoko paretan. Komuneko paper puska bat hartu eskuan, babes gisa edo, eskuarekin harrapatu armiarma eta komuneko zuloan behera bota dut. Pixa egin eta bonbari tira egin diot ondoren. Armiarmak sentitzen duena irudikatzen hasi naiz: neuregandik oso gertu, burmuin ñimiño batean, oinaze latz ikaragarria, izaki batek gordintasun osoan beregana-tua, eta neu izan naiz horren eragilea.

1989ko otsailak 26

Nire oinetakoak erridikuluak dira. Nire galtzak erridikuluak dira. Nire alkandora, nire betaurrekoak, nire barruko elastikoa, nire galtzerdiak, nire galtzontziloak... Erridikulu nago. Erridikulua da ni hemen egotea. Kontu erridikuluak baino ez ditzaket esan, erridikulua da nire isiltasuna ere. Erridikuluak dira inoiz esan ditudanak oro, erridikuluak dira halaber nire egun isilak. Erridikulua ohar txiki hau koaderno erridikulu honetan, erridikulua honaino, interes erridikulu batek bultzatua, iritsi den irakurlea ere. Erridikulua da azken esaldi hau ere, guztiz erridikulua.

1989ko martxoak 2

Inguratzen gaituen gizarteak, kulturak, munduak irentsi egiten gaitu, jan, bereganatu. Oso gaztea izan behar da guztiz libre izateko, loturarik batere ez sentitzeko. Ustekabean egiten dira gero loturak, norbera konturatu gabe. Zibilizatu egiten da bat gizartearen ohiturak eta funtzionamendua ikasi ahala, berak nahi ez badu ere. Sustraiak sortzen zaizkio bati, hastapeneko askatasun primitiboa ukatzen dioten erroak egiten ditu. Orduan belaunaldi jakin bateko euskalduna da. Ez zuen uste inoiz halakorik izatera iritsiko zenik, baina orain egina dago, ez du erremediorik. Harrapatua dago definizio zital horretan.

1989ko martxoak 22

Idazlea nekatu egiten da topikoetatik ihesi. Topikoak jazartzaile egoskorrak dira. Ustekabean harrapatuta egin dakieke ihes topikoei, eta gogor jo behar da orduan ahalik eta urrutien iritsi ahal izateko. Laster topikoa konturatu egingo baita eta indar handia eta ahalegin larria beharko ditu orduan idazleak ihesaldiari eusteko. Topikoetatik ihes egiten duen liburuak, jakina, idazlea leher eginda uzten du.

1989ko martxoak 23

Autobidean, pago enbor ederrez zamatutako kamioi atoiduna. Kontrako norabidean, pago enbor ederrez zamatutako beste kamioi atoidun handi bat. Argiekin keinu egin eta beso bana altxatu dute txoferrek elkarri diosala egiteko. Zertan ari gara?

* * *

Autobusa autobideko bidesaria ordaintzeko gelditu da. Kontrako norabidean doazen txoferrek autoa gelditu, ordaindu, papera jaso eta bidean aurrera jotzen dute berriro. Autobusaren leihatilatik ikusten ditut. Oso harro dirudite nik egiten ez dakidan gauza bat ziurtasunez eta trebetasunez egiten.

1989ko uztailak 17

Egunkaria bezalakoa izan nahi nuke. Toki guztietan izan, dena garaiz jaso, testu eta argazki, beti gazte iraun, egunero sasoi onean, ezeri ihes egiten utzi gabe.

1989ko uztailak 26

Helmugara bakarrik eta irabazle iristen den txirrindulariak pedalei eragiteari utzi eta besoak altxatzeko astia izan ohi du, bere garaipena estuasunik gabe ospatzeko aukera. Egin beharreko guztia egina du, garaipena ziurtatua. Inbidiaz begiratzen diet telebistan edota egunkariko argazkietan txirrindulari horiei. Neure bizimoduan horrelako uneak izan nahi nituzke, horrelako uneen bila nabil, baina berez bizitzan ezinezkoa da, ezinezkoa zait helmugara bakarrik eta irabazle iristen diren txirrindulariak imitatzea. Ezinezkoa zait horren era lotsagabean murgiltzea garaipenaren eztitan, ezinezkoa baitzait garaipena garaipen gisa sinetsi eta tratatzea ere.

Txirrindulari batek helmugara bakarrik eta irabazle iritsi, pedalei eragiteari utzi eta besoak altxatzen dituenean, inbidiaz begiratzen diot, helmuga zeharkatu, kazetarien eskuetan erori eta bizikletatik eraisten duten arte. Orduan bereak egin du; amaitu da garaipena, eta hutsaltasunaren tenorea heldu da gogoetaren eskutik.

1989ko abuztuak 11

Batzuetan inbidia izaten diet zoroei. Zoroek ez dute erantzukizunik. Utzita dute erabat beren buruen gobernua, beren norabidearen lema. Bost piper axola zaie dena. Etsita bizi dira, ezeren kezkarik gabe. Tarteka era horretan etsitzeko gogoak izaten ditut.

Agian ez da ezinezkoa bizimodu honi oreka bat aurkitu eta lasai bizitzea, inoiz ere zoroekiko inbidiarik sentitu gabe. Erreka garbi baten iragatearen antzekoa litzateke bizimodu orekatu hori, izadiarekin bat egina eta kultura jakin bateko arauen barruan txertatua, eguneroko bizitze hutsari lotuta besterik gabe, izate hutsari.

Bada oraindik horrela bizi denik ere, baina nik –edo guk– ezinezkoa dut –dugu– horrela bizitzea. Behin era honetako gogoetetaraino iritsi denak ez du atzera egiterik.

1989ko abuztuak 25

Bada benetan jende jator eta argia munduan. Batzuetan, ordea, min egiten dit horrelakoak ezagutzeak eta horrelakoekin tratatzeak. Jende jatorraren ondoan neure egoismo lotsagarria agerian jartzeko beldurrez naiz beti. Jende ziztrin zikoitzez inguratuta lasaiago sentitzen naiz. Honetan ere neurria harrapatzea izango da kontua, jakina.

1989ko irailak 17

«Nire bakardadea kartzela handia da, askatasunez betea».

1989ko irailak 24

Lizardik Donostiatik Bilbora autobidean zehar doan autobusean bidaiatuko balu, leihatila ondoan eserita parajeei begira, esango luke ba hark ere zer edo zer, alajaina!

1989ko urriak 2

Garai batean irakurleak amildegi ertzera bultzatu nahi nituen, bizimodu honen absurduaren mugaraino eraman, era horretan egoeraren absurdu horretaz jabetu eta agian beren jokaera ere alda lezaketelakoan, beren kateak apurtu behingoan. Ez zen hori ere xede nagusia beharbada, baina horretarako itxaropen ezkutu bat gordetzen nuen beti. Orain, ordea, ez dut horrelako itxaropenik eta, areago, okerrago, neuk ere ez diot kasurik egiten neure mezu zahar zintzoei, nahiz eta ukatu ere ez ditudan egiten, nahiz eta oraindik ere batzuetan sinesgarri eta benetako irizten diedan; neuk ere ez dut neure jokaera gero eta integratuagoa eta arruntagoa aldatzen, neuk ere ez ditut neure kate gero eta ugariagoak eta motzagoak apurtzen, nahiz eta oraindik ere batzuetan absurduaren amildegi ertzaren lilura sentitu. Lilura hori ez da beharbada burges txiki baten jolas erosoa besterik, batere arriskurik gabea, noski, eta halaxe aitortzen dut garbigarbi gaur egun.

1989ko urriak 6

Hedabideek gezurra moldatzen dute, egia oinarritzat hartuta. Idazleak, gezurra oinarritzat hartuta, egia bilatzen du.

1989ko urriak 13

Beti tabernazulo berean sartuta dagoenak indartu egiten ditu bere printzipioak eta bere iritziak. Askotariko liburuak irakurri, askotariko filmak ikusi eta batetik bestera dabilena, aitzitik, ezertarako iritzirik gabe gelditzen da azkenerako. Zer ote da hobe? Ez dakit.

1989ko urriak 18

Ez diot beldurrik zahartzen hasteari; zahartu-takoan, gazte izan beharrik ez.

1989ko azaroak 4

Hiri batetik bestera trenean, lanbro mehearen estalpe amultsuan ikusten diren herri txikiei begira, baserri atarietako zokoak, zelai hezeak, bidezidor mehar bihurriak, baso ilunak, sasiarte beltzak kristal lausotuaren bestaldetik... Hiriko geltokira iritsitakoan erloju handi bat dugu zain. Haurtzaroa aspaldi amaitu zen.

1989ko azaroak 7

Ez gara jainkoak. Ezin gara debalde bizi, salerosketa eta truke orori arbuiagarri iritzi arren.

1989ko azaroak 17

Aireportuko itxarongelan biltzen diren exekutibo dotore hauek guztiek gogoan izaten ote dute inoiz nork bere baserrian txikitan edo koxkortu berritan hainbat eta hainbat urtez erabili zuten jertse zahar hura, amonak egina? Eta neuk, zergatik aipatu dut baserria, zergatik jertsea, zergatik amona? Zergatik gaur eta hemen, exekutiboz betetako aireportuko itxarongela honetan?

1989ko azaroak 19

Garaiak eta inguruak moldatzen gaitu neurri handi batean, egia da, ez da dudarik; lehen horrelakorik sinetsi nahi ez izan arren, gaur egun ongi ulertua eta onartua dut hori. Baina hala ere beti geratzen da moldapen horretatik kanpoko geure izaera ezagutzeko gogoa. Ingurutik independentea litzatekeen geure nortasunaren harrotasuna gorde nahia, inoiz edo behin askatasun primitiboa deitu izan dudan hori berreskuratu eta erabiltzeko gogo bortitza.

* * *

Literatur kongresu batean bi egun. Nola azaldu sentitzen dudan lotsa, nola adierazi kontzientzia ez dudala lasai, txoropito tontolapiko baten antza hartzen diodala neure buruari? Zergatik ez da inoiz horrelakorik aipatzen literatur kongresuetan?

1989ko abenduak 1

Agian inoiz ez diot utziko idazteari. Beti geratzen baita sentimendu berezia, ideia berria, norberaren distira ortzaize mugagabearen urruntasunean galdua, beti behar izaten baita leiho bat noiznahi zabaltzeko modukoa, beti baita pozgarria bainuetxeak ere badirela jakitea, elkarte humanitarioak, erlijio abegikorrak, zubipeko aterpeak, goizaldera arte ixten ez diren tabernak, zoroetxeak... Besterik ez balitz ere, literatur kondar zaharrak, urteen joanean ene baitari estu atxiki zaizkionak.

1990

1990eko urtarrilak 12

Literaturaren erlijioari diodan fede xelebre hau galduko banu, libreago izango nintzateke, badakit hori, eta tarteka, batzuetan, askatasun horrekiko lilurak harrapatu ere egiten nau. Baina beldur handia diot hainbesteko askatasunari.

* * *

«Yo voy soñando caminos / de la tarde! / Las colinas / doradas, los verdes pinos, / las polvorientas encinas!... / ¿Adónde el camino irá?» (Antonio Machado). Inoiz amaitzen ez den jakin-min madarikatu hau! Etxean goxo-goxo egon besterik ez eta!

1990eko otsailak 3

Jaioterriko plaza nagusian jaialdia zegoen gaur gauean. Herriko gazte jende berria zebilen parranda eroan, ezezagunak zaizkidan belaunaldi berri freskoak. Neuk ere hamabost, hamasei, hemezortzi edota hogei urte izan nitueneko kontuak etorri zaizkit gogora. Neurri handi batean behintzat, bete egin ditut orduko ametsak. Nire bizitzako filmean neure gustuko eszenak eta irudiak izan dira, ez asko-asko ere baina bai orduko mito zaharren ukiezintasun beldurgarri hura urratzeko lain behinik behin. Ez naiz urrutira iritsi, ez dut inork zeharkatu gabeko muga arriskutsurik hautsi, baina ziur naiz orduan izan nintzen gazte ameslari amarrugabeak miretsi egingo lituzkeela azken urteotan izan naizenaren kontu asko. Hitza hartu dut, hitz egin dut eta azaldu eta azaleratu egin ditut barnean nituen fantasmarik handienak, zikinenak, trabagarrienak, ezerosoenak. Hitzaren bidez, adierazi egin dut barruan nuena, eta oraindik ere horretarako auke-

raren jabe naiz, hain premiazko ez bazait ere beharbada dagoeneko.

1990eko otsailak 5

Ezin da ezer lortu ordainez ezer galdu gabe. Ezin daiteke unibertsitateko ikasketetan aurreratu buruaren berezko zorroztasunaren puska handia galdu gabe. Ezin daiteke aberastu pobrea izateari utzi gabe. Aintzat hartzen al da hori?

1990eko otsailak 8

Ez bide nago maitasunerako egina. Alferrik izan ditut maitasunaren irakasle ezin hobeak neure inguruan, benetan ikasle txarra izaki, itxura denez. Maitasuna, asko jota ere, une jakin batzuetan gainezka egiten duen gehiegizko sentiberatasun merkea izan ohi da niretzat, malko errazeko une goxo baina laburretan besterik bizi ez dudana. Gainerakoan ni neu naiz, mundua ikusten, mundua neure egiten, lekuko soil, hotz beti, bakarrik beti, neu beti, beti neu. Eta, inoiz kontrakorik pentsatuko banu ere, hala dela agirian gera dadin, azpian sinatzen dut oraintxe bertan, Donostian, 1990eko otsailaren 8an, goizeko hamaikak eta zortzi minutuetan.

1990eko otsailak 15

Derrotaren lilura ezagutu duena ezin daiteke garaile zoriontsua izan oroimin zirraragarria sentitu gabe, kantu zahar ilun eta oldarkor haiekiko oroimina, orro mingotsak egiteko askatasun mugagabearen oroimina, inoiz galtzekorik ezer ez eta oihukatzeko dena izanaren oroimina.

1990eko otsailak 19

Hiri handiko ibilbide jendetsu batean zehar nabil, jende askorekin topo eginez, ezezagunak denak, adin ezberdinetakoak, sexu eta itxura ezberdinetakoak, aurpegiera ezberdinetakoak. Nork bere eguneroko pertsonala idazten duela irudikatzen dut, tarteka, ezkutuan, esaldirik ederrenak eta zakarrenak josiz eta askatuz, bere izatearen muinik muinena utziz bertan, munduti k arrasto eder eta propioa, nork bere-berea, utzita joango direlako itxaropenetan. Hiri honetan munduko literaturarik oparo eta onena ari da idazten jendea, jende guztia, eta inor ez da horretaz ohartzen ari, une honetantxe neu izan ezik.

1990eko otsailak 20

Gorbata janztea ez al da klaseak daudela onartzea, egon behar dutela aldarrikatzea? Ez al da kontraesan nabarmenegia hainbeste idazlek gorbata janzteko ohitura izatea? Gorbata jantzita itzultzen al da hiri handian sona eta gorazarrea lortu duen idazle ospetsua bere jaioterri txikiko etxe zahar apalera? Ez al du gorbatak itotzen orduan ere? Ez al du sentitzen idazle gorbatadunak gorbatak errealitatetik urrundu egiten duela, barregarri bihurtzen, erridikulu, hala bera nola bere lana? Ala galdera hauek al dira erridikuluak? Benetan?

1990eko martxoak 1

Iluntzean jendea trenean, autobusean, autoan, oinez, etxera erretiratzen da, eguna hiltzeko lana bete ondoren. Nor bere etxera doa, nor bere lekura, nork bere lekua baitu, bere-berea, leku bat munduan.

1990eko martxoak 23
OLATUAK ETA GU

Itsasertzera joan ginen. Olatuen zarata entzun genuen iritsi bezain laster. Eta olatuen zarata entzun genuen musu luze eta gozoan bat egitean ere, olatuen zarata pixkana-pixkanaka elkarri arropak eranztean, elkar besarkatu eta astiro laztantzean, olatuen zarata etengabea larrua jotzen ari ginen bitartean, aurrera eta atzera, alde batera eta bestera. Olatuen zarata pausatua entzunez hartu gintuen larrualdi nekagarriaren ondoko lo lasaiak. Eta alde egin genuenean ere hantxe geratu zen olatuen zarata pausatu etengabea, aldagaitz, berdina beti, gureak ez zuela harritu esanez bezala, ez zuela axolarik, ez zela ezer ere.

1990eko martxoak 30

Ume bat, edo gaztetxo bat, nagusi arteko solasaldian, txiki-txiki, apal, lotsati, herabe. Asko-asko pentsatu eta hausnartu ondoren, lotsa gainditzeko ahalegin handia egin eta kontu txiki bat esatera ausartzen da, hitz egitera behintzat azkenik. Nagusiek, ordea, kasurik ere ez; ume kontu hutsaltzat hartu dute hark hainbeste kostata esana. Orduan umea, edo gaztetxoa, lotsatua oraindik ere haserre baino gehiago, nagusien lagunartea utzita, atzeko gelara doa, bakarrik egotera, bakardadera, eta han bere pentsamenduak eta gogoetak, sentimenduak eta grinak idazten hasten da, bakarrik, bere kasa, idazten, idazten eta idazten... Neu ere horrelaxe sentitzen naiz. Koaderno honetakoak ere atzeko gelako bakardadean idatzi ohi ditut, bakarrik, neure artean, aurreko egongela zabalean nagusiak etengabeko solasaldi jariakor eta interesgarrietan ari diren bitartean. Hormetatik zehar hitz solteak iristen zaizkit, entzun eta ulertzeko mo-

duan, baina gero eta urrunago sentitzen ditut, gero eta kasu gutxiago egiten diet.

1990eko apirilak 2

«Bururatzen zaidanaz besterik ez dakit nik pentsatzen. Emadazue gai bat eta tontoa naiz».

1990eko apirilak 15

Pentsamendu berria sortu orduko hitzak bidaltzen dizkiot ehizatu eta hiltzera. Ezin bizi naiz, ezin onik aurkitu, neure buruan idatzi gabeko ideia edo pentsamendu librerik dagoela sumatzen dudan bitartean.

1990eko apirilak 17

Bidaiariek ez dute azkeneko trena hartu nahi izaten. Heriotza gogorarazten die.

1990eko apirilak 23

Beste planeta batetik etorritako kazetariaren antza hartzen diot batzuetan neure buruari. Oso ondo ere ulertzen ez dudan mundu honetan nekez esan dezaket ezertaz ondo ala gaizki iruditzen zaidan. Jakin-minez begiratu dena, hori bai. Baina iritzirik eman? Ezta pentsatu ere!

1990eko abuztuak 22

Pentsatzeko prest nago oraindik ere agian, edozer pentsatzeko prest. Baina ez edozer egiteko libre jadanik. Hogeita zazpi urte, bizitzaren zama handia da jada. Gizakiak bere atzetik etengabe daraman hari ikusezinak ezin askatuzko korapilo nahasi asko egiten du hainbeste denboran. Zoroak bakarrik daude zeharo libre, noizbait gogor tira egin eta haria eten zutenak. Bejondeiela!

1990eko irailak 1
EZTA NAHITA ERE

1. Nolatan ez hau lotsak jan, Martin?
(Martin Zabalari gutun irekia bere azken liburua dela eta)

Nolatan ez hau lotsak jan, Martin? Nolatan ez haiz konturatu erridikulua egiten ari haizela? Hire azken eleberriak ez duela argitaratzerik merezi, ezta inori irakurtzeko ematerik ere? Sutara bota eta amesgaizto baten moduan ahazten saiatzea, horixe zuan hik eleberri zakar, trakets eta zipotz hori idatzi ondoan egin beharreko lehenengo gauza; eta azkena ere, bakarra, alegia. Ez al hintzen konturatu horretaz? Ezta nahita ere ez likek inork idatziko hain eleberri txarrik. Bazirudik aldez aurretik ezer pentsatu gabe, bi ideia ziztrin ere lotzeko lanik hartu gabe, hitzaren atzetik hitza idazten hasi haizela eta halaxe segi ere harik eta ehungarren orrialdean nahikoa iritzi dioan arte. Bejondeiala, txo! Hara, edozeinek konta lezakek hirea baino istorio ederragorik, bi-

ziagorik, adierazkorragorik; idazten hastea asko likek edonork, ondo esan diat, edonork, analfabetoa ez den edonork behintzat. Adarra jo nahi al izan diguk? Ergelak ote gara ba? Zer uste duk hik: sinetsi egingo dugula bi urteko lan neketsuaren ondorena dela hire kaka mokordo kirasdun hau? Baita zera ere! Ederki jaioak gintuzkek, alajaina! Oraindik horrelakorik! Baina, baina, baina... nola daiteke, ordea, nola? Tira, tira, Martin, ez gaituk hi bezain lerdoak, eta hik baino askoz gehiago zakiagu literaturaz, motel, ez duk batere zaila eta. Benetan, neure onetik aterata naukak hire eleberri delako horrekin eta prentsako adierazpen harroputz lotsagabe horiekin. Zein arraio uste duk haizela ba? Eta zer tonto klase uste duk garela gu?

Hara, eleberri gisa aurkeztu (eta argitaratu, alajaina!) duan testu puska ustel horrek ez dik ez hanka ez buru ez bihotz ez ezer. Kaka zahar hutsa! Kontatzen dituan istorioak sekulako tentelkeria, txaldankeria eta lerdokeria sinestezinak dituk, eta istorio ziztrin horiek «biltzen» dituen «eleberria» azkenean loturarik batere gabeko gertaera txepel zenbaiten pilaketa axolagabea

besterik ez duk. Ez dik ezer iradokitzen, ez dik erreferentzia metaliterariorik batere, ez dik inolako teknika literario berezirik, ez dik gure inguruko errealitatea islatzen, eta gure ingurukoa ez denik ere ez, ez dik batasunik ere, ez dik ezer... Tira, ezer izatekotan ere, ondoriozko ikasbide merkea dik, guztiz erreakzionarioa gainera bera, atzeratua, atzerakoia, lerdoa eta ustela hori ere: pertsona normal eta esanekoak behar dugula izan, gure gaurko gizarte nahasi honi mesede egiteko prest ahal dugun neurrian. Horixe duk behintzat irakurleari hain aspergarri, gogaikarri eta gorrotagarri egiten zaion hire kontalari zozo horrek tarteka, bere burua hala pertsonaien nola irakurlearen gainetik jarrita, adierazten duena. Zintzoak izan eskubide guztiak zapaltzen dizkigun Estatu hurrupatzaile baten aurrean? Zintzoak izan gutxi batzuk aberats eta ondo bizitzeko muntatutako sistema oligarkiko tirano honen aurrean? Zintzoak izan eta kanpoko herri txiroen goseak eta bertako langile zapalduen lanak elikatutako sistema «demokratiko» itxurako honi gure onespena eskaini? Zintzoak izan, beraz, eta gizarteak markatutako bideak segi gainerakoak

galarazita daudela onartuz? Zintzoak izan, alegia, eta gogoz kontra egin lana, gogoz kontra errespetatu handi-mandiak eta haien gehiegikeriak, gogoz kontra ezkondu, gogoz kontra ekarri haurrak mundura? Non uste duk bizi garela, Martin? Konturatzen al haiz nola funtzionatzen duen mundu honek? Ez. Ez haiz konturatzen, ezta hurrik eman ere. Eta ezta konturatu nahi ere, noski, horixe duk okerrena.

Hizkeraren aldetik ere, guztiz pobrea duk hire «eleberri» delako hau, gramatika eta ortografiazko akats ugari izateaz aparte. Modu berean –gaizki alegia, bata bezain gaizki besteak– mintzo dituk pertsonaia guztiak eta kontalaria bera, eta edozein egoeratan gainera. Ulertu ere nekez ulertzen duk askotan adierazi nahi dena, edota ezta nekez ere: ezin inondik inora ulertu. Batzuetan kontu sinpleak adierazteko bortxaren bortxaz luzatutako esaldi amaiezinak ageri dituk, irakurleari haria galtzen laguntzeko primerakoak. Beste batzuetan, berriz, kontalaria motz geratzen dela zirudik, adierazi behar duena adierazteko ezgauza sentituz antzeko beste zerbait adieraztearekin etsitzera behartua bezala. Edo

irakurlearekiko kidetasun erridikulu baten bila saio ergelak egiten hasten duk... Penagarria benetan!

Esan bezala, ez hanka ez buru ez bihotz ez ezer. Ez eleberri ez ezer. Baliorik batere gabeko testu puska luzea, ezin hutsalagoa. Alferrikako lana duk hire eleberri delako hau irakurtzea. Neuk irakurri egin diat (oso-osorik, Martin, ez diat meritu makala horratik!) eta irakurketa amaitu bezain laster sentitu diat artikulu-gutun hau idazteko gogoa, edo premia, eleberri irakurleen onbeharrez, gaztigua izan dezaten, hire adierazpen hantusteek eta hire lagunek idatzitako aldeko kritika salduek atzipetuta horrelako liburu hutsal eta lerdoa erosten dirua eta irakurtzen denbora galdu baino lehen. Eta heuri ere, Martin, emango nikek pozik aholku bat, kasurik egingo ote duaneko itxaropenik batere banu: utzi ezak literatura, ez dakik eta hitz horrek zer esan nahi duen ere, utzi itzak behingoz idazteko kontu hauek, eta joan hadi Benidorm aldera eguzki pixka bat –edo puska bat– hartzera, bazaudek eta ondo antolatutako bidaia merkeak, hiretzako ezin aproposagoak.

Jon Koldo Lizarralde

2. Jon Koldo Lizarralderi erantzunez

Nire ustez zuk artikulu-gutun deitzen duzun nire –eta nire eleberriaren– aurkako testuak ez du erantzun luzerik merezi; berez laburrik ere ez, baina isilik gelditu ezinak erantzutera behartu nau. Zeuk bertan idatzitako hitz gutxi batzuk go-gorarazi besterik ez dizut egingo, apur batean gogoeta egin dezazun, horretarako gauza baldin bazara: «Ezta nahita ere ez likek inork idatziko hain eleberri txarrik». «Baliorik batere gabeko testu puska luzea, ezin hutsalagoa». Aztarna bat emango dizut zure gogoeta bideratzeko: neu ere horretan nago.

Martin Zabala

1990eko irailak 8

Non dago benetan bizitza? Nondik joaten zaigu? Nondik egiten digu alde? Alderdi batetik eusten hasi orduko beste batetik ihesi sentitzen dugu.

1990eko urriak 11

Txikia sentitu nintzen halako batean, txikia sentitu nuen neure burua handitasuna eskatzen zuen gizartean. Eta trena hartu eta ihes egin nuen handik, ihes egin nuen mundura horretaraxe etorri izan banintz bezala, ihes egitera hain zuzen ere, trena hartzera. Urrutira eramango ninduen trena hartu nuen, txikia sentitu nintzelako mundu handi honetan. Baina inoiz ezin izan nintzen behar bezain urrutira iritsi. Eta trenak maitatzen ikasi nuen etsi-etsian, gozo-gozo.

1990eko urriak 27

Trena huts egin, bizitza atzeman.

1990eko urriak 30

Herri zapaldua, erakunde armatuak, independentzia eta klase-borroka, sozialismoa eta antikapitalismoa, atentatuak, tiroketak, bahiketak, kartzela zigorrak, zerga iraultzaileak, tortura, errefuxiatuak eta estradizioak, deportatuak... Harritu egiten nau hori guztia, orain artean behintzat, zein urrundik bizi izan dudan pentsatzeak. Ez beste askok baino urrunagotik, baina oso urrundik hala ere, dena beti hain gertu izan dudala eta hain ikaragarria dela kontuan hartzen bada.

1990eko azaroak 2
IZATEKO ERA

Arazo bat dut besteekin, hurkoarekin. Beti izan dut arazo hori. Beti izan da arazo hori neure izaeraren parte bat. (Neu izan bainaiz beti arazo hori).

Oso arazo arrunta da, ez dut neuk bakarrik arazo hori, jende askok nozitzen du neuk hurkoarekiko bizi dudan arazoa, ezinegona eta gatazka.

Nik ez dut normalean nahi izaten dena nahi izaten, nik ez dut nahi ohi dena nahi izaten, nik ez dut nahi behar dena nahi izaten. Nire barne gogoek ez dute logikarik, sistemarik. Ume batenak baitira nire barne gogoak, nortasun zein izaera jakinik gabeko ume irrazional batenak.

Alabaina, nire barne gogoak ume batenak badira ere, nire adimena, nire mintzamena, nire oroimena, eta baita, jakina, nire gorputza ere, heldutasuna deitzen denera iristear den mutil gazte edo gizon batenak dira, gutxi gorabehera behintzat.

(Nolanahi ere, ez iezadazue galdetu zer esan nahi dudan barne gogoak esaterakoan, edota adimena, mintzamena, oroimena, eta ezta, jakina, gorputza ere, neuk ere oso ondo ez baitakit).

Eta kontua da ume batenak diren barne gogo libre, asistematiko eta kaotiko horiek, mutil gazte edo gizon baten adimen, mintzamen, oroimen eta gorputzak mugaturik daudela, harrapatuak eta zapalduak, adimen, mintzamen, oroimen eta gorputz horiek besteren (besteen, hurkoaren) iritziari begira bizi direlako, eta besteren iritzi horrek barne gogoei oso zorrotz erreparatu ohi dielako; eta logika bat, sistema bat eskatzen.

Barne gogo libre, asistematiko eta kaotikoak eromena deitu eta eritasuntzat jotzen den fenomenoa sorrarazten du hura menperatu, kontrolatu eta zapalduko duen adimen, mintzamen, oroimen edota gorputz errepresiborik ez denean. Baina bestela, menperatu, kontrolatu eta zapaldu egiten badira, nik maiz antzean besteekiko, hurkoarekiko arazotzat jotzen dudan fenomeno hori da barne gogo libre, asistematiko eta kaotikoek pertsonarengan sorrarazten dutena; izen

jakinik ez duen eta eritasuntzat jotzen ez den arazoa da; baina arazoa da, nire ustez.

Arazo horri, hots, barne gogo libre, asistematiko eta kaotiko menperatu, kontrolatu eta zapalduek sortzen duten fenomenoari, nortasun falta deitu ohi zaio batzuetan, gutxi gorabehera behintzat, eta beharbada ez dago gaizki pentsatua ere hori, nortasuna barne gogoen logika edo sistematzat jotzea ez baita ergelkeria zentzugabea.

Ez dugu lotsatu behar, ordea, nortasun eskasekoak izateagatik. Erakutsi egin behar dugu, nortasun falta izan arren, badakigula zer den gertatzen zaiguna, ezagutzen eta aitortzen dugula besteekiko, hurkoarekiko, dugun arazoa, ezinegona eta gatazka. Erakutsi egin behar dugu nortasun falta nortasun berezi baten ezaugarri besterik ez dela; izaera tinko baten falta, gisa berean, izateko era baten ezaugarri besterik ez den bezalaxe, azken batean.

1990eko azaroak 9

Kazetariak egia itxuragabetu eta suntsitu egiten du. Idazleak gezurra zintzo eraiki.

1990eko azaroak 11

Beti dugu gertu trenen bat, edo autobusa, dena galdu eta ezer ez izateko aukera ematen diguna. Noiznahi hartzeko moduan.

1990eko azaroak 13

Te amo desde el
siglo XIII.
¿Recuerdas la última
noche?
Es fácil, como dar
un paseo,
como cantar una
canción de par
en par,
como leer un periódico
de derechas.
El mundo está hecho
de siglos
que pasan como

1990eko azaroak 14

Beste soinu bat dute abizenek kanposantuan, diferentea oso, ilun eta tristeagoa, gaixo eta ahulagoa, xahutu eta umeldua. Harrokeriaren arrastoak oro galduta, eskuragarriago sentitzen ditut abizenak kanposantuan.

1990eko azaroak 23

Zoriona kontu txikietan dago, baina bizitzako kontu txikiek kontu handien babesa behar dute tamalez. Zoriona balio ez duten gauzetan dago, baina balio ez duten gauzek gauza baliagarrien babesa behar dute.

1991

1991ko urtarrilak 12

Ostiral eta larunbat gauetan, festa egunetan, kalera irten eta kalean parranda egitea sekulako borroka da. Arauak ezagutzea komeni da, egoerari dagokion jokaera egokiena asmatu eta horrela «ondo pasatzeko», horixe baita joko honetako irabazleen saririk preziatuena. Ni neu oso jokalari txarra izan naiz beti –joko honetarako bezala beste askotarako ere–, baina oso ikuskari eder eta interesgarria iruditu izan zait beti, bestalde. Jokoz kanpo gelditu eta jokalarien trikimailuak begiratzea gustatzen zait, nola eskatzen dituzten edariak, nola pizten dituzten zigarroak, nola begiratzen dioten elkarri berriketan ari diren bitartean, nola ateratzen duten dirua sakelatik tabernako zerbitzariari ordaintzerakoan...

Oso ederra da jokalaririk onenei erreparatzea, beren teknika fina eta beren lasaitasuna eta tenplea mirestea, egoera zailei aurre egiteko duten trebetasun sinesgaitza. Neure antzeko jokalaririk apal eta kaxkarrenei errukizko begiradak eskaintzen dizkiet, eta elkartasuna adieraz-

teko gogoak sentitzen ditut, saiatzen segi dezaten adore emateko gogoa, edo aholku zintzoa ematekoa bestela: joko hau utzi eta bizitzak eskaintzen dituen beste joko ugarietako bateren batean bila dezatela honetan ezin aurkitu dutena.

Ni neu etsita nago. Nahiz eta askotan gelditu jokoz kanpo, inguruko jokalarien mugimenduei begira, ez dut ikasten, ez dut inondik ere ondo jokatzen asmatzen.

1991ko martxoak 9

Adiskide bati entzuna: «Ez dut komunista izan nahi. Eta ezta antikomunista ere. Horretarako azalpenak eman behar dira. Pobrea naiz, besterik gabe».

1991ko maiatzak 1

Kanturik maiteena ahaztutako huraxe izaten da beti, inork ere gogoratzen ez zuen kantu txiki eta apal hura, ezerezaren doinutik irten gabe aritzen zena, ezerezaren hutsean luzeen sufrituta-koa.

* * *

Esadazue non, noiz eta nola, eta hantxe izan-go nauzue. Esadazue zer jantzi eta zer eraman, eta zer egin bertara heldutakoan. Esadazue eta obedituko dut. Mutil zintzoa naiz, barrutik baka-rrik naiz herrena, bihurria, iluna, gaiztoa.

1991ko maiatzak 6

Ez naiz beti kale erdian erortzen ari, baina kale erdian erortzen ari den gizon bat naiz beti.

1991ko maiatzak 16

AMODIOZKO GOGOETA

Kamioi txiki horrek daramatzan butano bonbonetako baten barruko gasak berotuko du zure dutxako ura.

1991ko azaroak 17

IZUAREN GAILURRIK SAKONENEAN

Fabrika zahar abandonatu bateko hoditeriaren azpian, giltza herdoildu bat dago, inork bira emango balio mundua geldiarazi egingo lukeena. Fabrika horren bila nabil eguneroko ibilera noragalduetan, bilaketa hori dut zeregin, ogibide eta miseria, amets eta amesgaizto, babes eta mehatxu, bilaketa hori da nire bizitza. Bakardadearen morturik hustasunez beteenean ezkutaturik izan behar du fabrika horrek, ahanzturaren amildegirik zorrotzenean, izuaren gailurrik sakonenean. Eta bakardadean, ahanzturan eta izuan barrena egiten dut aurrera egunez egun. Giltza ezkututik gero eta gertuago sentitzen naiz. Egun batean jakingo duzue nire berri.

1992

1992ko otsailak 16

Bizitzak eramaten gaitu toki batzuetara. Beste batzuetara geu goaz, geure kabuz. Baina hilerri eta etxe-hondakinetara, zabortegi eta orube mortuetara jotzen dudanean, norena da bultzatzen nauen eskua?

1992ko abuztuak 23

Uda beroak izerdiarazi eta itotzen gaituenean ere, barru-barruan guk udazkena. Alferrik nahi izango du uda harroak –publizitate kanpaina erraldoi– udazkena gure barne epeletatik erauzi.

1992ko irailak 5

Zahartu, zikindu, herdoildu, gastatu, puskatu, hautsi, galdu, bertan behera utzi edota ahaztu dena baino ez zaigu geratzen. Horrixe eutsi behar diogu, goi mailako garai distiratsuotan. Txikiak izan, txikia maite. Nekea dugu atsedenerako aukera bakar, mina gozamenerakoa, dardara lasaitasunerakoa; galtzea da gure irabazpide bakarra. Sakoneraino jo dezagun, ordea, egoskor, zahartu, zikindu, herdoildu, puskatu, hautsi edo galtzeko beldurrik gabe. Hor gaude gu eta horixe da garrantzitsuena, horixe da dena.

1993

1993ko ekainak 1

Trintitirinti.

1993ko ekainak 25

Asperduraren eta arrunkeriaren fantasma zuria dut atzetik, bizitza hogeita hamarrari dagokion bihurgunea pasatzen ari den honetan. Jada ez dago salbatuko nauen libururik edo kantarik, ez dago jada ezagutza miragarri baten esperantza liluragarririk. Handik eta hemendik hartutako puskak, bizitzari egunez egun jarraitzeko ahaleginak, alferrikakoak dira erabat. Miguel Indurainek hartu die aurrea produktu kultural guztiei. Erabat suntsituta utzi du Banesto taldeko nafar txirrindulari harrigarriak eguneroko sentimenduen adierazpen artistikoen tropel ugari multikolorea. Nahiago dut haren Tourreko abenturei begiratu, egilea ezagun, lagun, gogaide eta are adiskide ere dudan kanta entzun edo poema irakurri baino. Eta Indurainen ondoren ere, nahiago titi handiak agerian dituen neska tuntun itxurakoa hiesari edo Jugoslavia ohiaren egoerari buruzko debatea baino.

Tunel batean sartu nahi dut, barau lasaia egin, ahanzturaren artxipelagoan uhartetxo bat

neureganatu, inoren begiradapetik libre. Desintoxikazioa, azken urteotan lar berritu, lizundu eta pozoitu diren barne infernuetarainoko jaitsiera etsi eta ausarta, beldurrik gabea, berriro, aspaldiko partez. Nardatu edo mindu barik, hausturaren lilura hordia sentitzera iritsi, barneko hodi ilun lohiei ahalkerik eta beldurrik gabe begira, dardararik gabe, ezaxolaren lilura bere baitan bildurik duen begirada hotz zientifikoz. Argazkiak egin barne muinei, atseden hartu eta korrokadaka eta puzkerka ari diren artean, perspektiba, angelu eta argiztapen modu berriekin aproba eginez.

Ahanztura eta bakardadea elkarrekin loturiko bi zulo beltz handi dira, bata bestearekin nahastuak zulo bakarrean. Zulo horretan sartzen denak itsuan egiten du bidaia, noiz eta non jalgiko den jakin gabe, baina bizitzaren barne muinen usain sarkorra sentituz, urrun, urrun, oso urrun, egunkari, irrati eta telebistak inoiz ezin iritsi ahal izango diren eremu ilun, hotz baina hala ere beti etxeko eta abegikorretan.

1993ko azaroak 6

Igandea da. Ohiko zama astunetik libre dabiltza atoidun kamioiak, atoirik gabe, arin, dotore, pinpirin. Atseden sentimendu atsegingarria transmititzen dute.

1993ko abenduak 12
HAURRA ITSASORANTZ

Wim Wendersen Alice in den Städten *filma gogoan*

Ama etxe atarian dago, aulkitxo batean eserita, jertsea josten hari lodiz. Haurra jolasean dabil batetik bestera. Kolore askotako baloi bati ostikoa jo eta haren atzetik abiatzen da behin eta berriz. Behelaino mehe batek inguratzen du etxe ataria, eta inguru osoa amets giroan lausotzen.

Ostiko handiegia jo dio haurrak kolore askotako baloiari, eta baloiak aurreko pendizean behera amildu eta haurraren bistatik alde egin du. Haurrak amari begiratu dio lehenbizi. Amak jertse lodia josten segitzen du, ezertaz ohartu gabe. Haurra pendizean behera abiatu da baloiaren bila.

Behean lats meharra ikusi du. Baloiaren arrastorik ez ordea. Egarri da. Ura edan du. Inguruetara begiratu eta baloia ikusi du, pixka bat aurrerago, makal baten ondoan.

Baloiaren bila abiatu eta txori herrena ikusi du makalaren inguruan. Txoriaren atzetik abiatu eta harrapatzen saiatu da. Jauzi handia egin du makalaren atzean, baina txoriak, haurrak uste baino bizkorragoa izaki, ihes egin dio. Haurra lurrean erorita geratu da jauziaren ondoren.

Lurrean dagoela, forma irregularreko harri zahar beltzez egindako zubi txikia ikusi du errekaren beheko aldean, begi bakarreko zubi zaharkitu eta iluna, atxikitako goroldioz eta sasi hezez josia. Zubirantz egin du. Zubi gainetik errekako urari begira geratu da une batez.

Errekan behera etxola txikia ikusten da, harriz eta zurez egina. Etxolaren ondoan burdinazko gurpil herdoildua dago, errekak bere aurrean egiten duen ur-jauzi txikiak mugitzen duena. Hura gertutik ikusi nahirik, bertara jo du haurrak.

Etxolaren atzealdean ere begiratu du, eta hondeamakina ikusi du lanean, mendiko bideak zabaltzeko lurra kentzen. Hondeamakina horiak kentzen duen lurra laranja koloreko kamioi handi batek jasotzen du atzean horretarako duen gurdi zabalean. Lurrezko mendi bide zabala ikusten da, hondeamakina eta kamioia lanean ari diren

tokitik behera. Kamioiaren gurpilen arrastoak aise igartzen dira mendi bideko lokatzetan marraztuak.

Hondeamakinaren eta kamioiaren inguruan buelta eman eta mendi bideari begira geratu da. Bihurguneak ikusten dira behealdean, eta, izei arteko lasterbidea hartuta, harantz abiatu da.

Lehen goian zegoen laranja koloreko kamioia jaisten ikusi du, hondeamakina horiak harrotutako lurra jasotzeko gurdia hutsik dakarren laranja koloreko beste kamioi batekin gurutzatzen. Bata goitik behera, behetik gora bestea. Haurrak beherantz segitu du ibiltari.

Ibili eta ibili, erreka zabal batek aldenik alde zeharkatzen duen auzo txiki batera iritsi da. Eliza da auzoko etxerik handiena. Arratsaldeko seiak markatzen dituen erloju handia ageri da elizako ezkildorrean. Herri txikian ez da inor ikusten. Eliza aurrean iturritxoa dago. Haurra egarri da. Ura edan du.

Kresal usaina heldu zaio nonbaitetik. Herri txikiko bazterrak miatzen hasi da, urrin hori nondik datorren jakin nahian. Herritik irten eta bidexka bat hartu du. Lasterka hasi da, itsasoa

ikusteko presa balu bezala. Galduta dago ordea; batera eta bestera jotzen du bide egokia ezin aurkituta. Azkenean, ia-ia oharkabean, hondartza txiki bat aurkitu du, itsasoak leundutako harkaitz biribilez apaindua. Euria hasi du, lanbro xehe-xehea.

Itsasoari begira geratu da haurra, lanbrotan bildua. Urrunean kokatu du begirada, itsasoak ortziarekin topo egiten dueneko marran. Iluntzen hasi da.

Amaz oroitu da.

1994

1994ko urtarrilak 6

Tristea da bere erredakziotik irten gabe nazioarteko berrien sailean lan egiten duen kazetariaren patua: beti omenka aritu beharra du, ahalik eta disimulurik handienean. Baina ez al dute gainerako sailetako kazetariek ere gauza bera egiten? Eta gure eguneroko bizitzan ere, ustez egiarik geureenak esaten ari garenean, ez al gara sakonean, neurri handi batean bederen, omenka ari?

1994ko otsailak 20

Gogoan dut txikitan, bizitzari aurre egitea hain zaila iruditzen zitzaidanean, munduari eta bere osagai guztiei nien beldur neurrigabe hura guztiz sendaezintzat nuenean, inoiz besteak bezalakoa izan eta gutxiago ez sentitzera iritsi ahal izango nintzenik sinestea guztiz ezinezkoa zitzaidanean, inoiz niregandik espero zenaren laurdenik emateko gauza ere ez nintzela izango pentsatzen nuenean, gogoan dut orduan, txikitan, harritu egiten ninduela nire ahalke abisal, patologiko eta gogo-elbarritzaile hari buruzko erreferentziarik batere ez aurkitzea inon, ez telebistan, ez egunkarietan, ez irratian, ez liburuetan, ezta alboko inoren jardunean ere. Horretaz mintzatuko zen zerbait edo norbaiten premia nuen baina ezin antzekorik inon sumatu.

Gaur egun, berriz, horretarako aukera eskuan izan arren, ez dut gaitz hartaz jarduteko asmorik edo gogorik, eta jokabide hori oso bidezkoa ez dela pentsatzen dut batzuetan: egia da, bai, apurka-apurka, urteetan, gainditzen ari nai-

zela gaitza, erabat sendatu ez banaiz ere onera egin dudala, askoz ere itxura hobea erakuts dezakedala edonoren aurrean. Baina ez ote nieke nire elkartasuna agertu behar nik pairatu nuena pairatzen ari diren neska eta mutil koxkorrei, edota urteetan aurrera egin arren gaitzari gain hartzerik izan ez duten herabe erremediorik gabekoei?

1994ko otsailak 23

«Ez zait gustatzen oinetako atzazalak dutxatu ondoren moztea. Askoz ere bigun eta malguago egoten dira izerditan daudenean. Eskuetako atzazalekin ekiten diet orduan, eta ez didate batere arazorik sortzen nahi dudan neurrian moztеko, gozo-gozo, eskuaren gehiegikeria trakets baten ondorioz oinetako atzazala urratu eta behatza mintzeko beldurrik sentitu gabe». Zer egiten duzu, irakurle, lerdokeria hauek irakurtzen? Ez al duzu hau baino testu interesgarriagorik ezagutzen? Ala zuk ere eskuetako atzazalez mozten dituzu oinetako atzazalak, izerditan bigun-bigun daudenean? Eta zuri ere zerbait iradokitzen dizu oinetako atzazalen mozketari buruzko aipamen itxuraz ezin arrunt eta prosaikoago horrek: barru-barruko sentimendu ezkutu aitorrezina, giza jokabidearen metafora zuzen eta, haatik, ezin disimulatu, sotil eta iradokitzaileagoa ere badena? Hala bada, barkaidazu esatea baina burutik seko jota zaude.

1994ko martxoak 22

IPARRORRATZA

Tarteka-marteka mendian ibiltzeko ohitura dudanez, iparrorratza edukitzeko apeta nuen aspaldidanik, eta orain hurrengoan erosi egin nuen bat, txikia eta sinplea, polita. Erosi nuenez geroztik mendira joaterik izan ez dudan arren, aldean daramat beti iparrorratza, eta, bururatzen zaidanean, begiratutxo bat ematen diot, iparra non dagoen adieraz diezadan.

Ibiltariak mapak bezala, pentsalariak liburuak ditu bide erakusle. Baina pentsalariari iparra non dagoen esango dion trasterik ez da oraindik asmatu.

1994ko martxoak 29

Harritu egiten nau egoera politikoa barru-barruan eta bizi-bizi sentitzeko batzuek duten gaitasunak; harritu egiten nau zein poz intimo eta zinezkoz hartzen dituzten beren betiko ideiek eguneroko borroka politikoaren zelai beti nahasian izaten dituzten garaipenik txikerrenak ere, eta zein amorru erraietakoz astintzen duten egunkaria ideia horiei egindako eraso demagogiko batekin topo egiten dutenean. Indar hori nondik ote datorkien ezin asmatuta geratzen naiz, zur eta lur, horrelakoen aurrean, atxikimendu hain zintzo eta estu horren erroak non izan daitezkeen antzemateko ezgauza.

Niri, aldiz, ez zaizkit ideologiaren arropak soinean itsasten mundura irten eta haren espaloi zabaletik nabilenean. Erabat biluzik sentitzera ere aise hel naiteke bakarrik banaiz; bakarrik ez naizenean, berriz, neure-neurerik ezean, inguruan ditudan lagunen arropak izan ohi dira sarri benetan janzten nautenak.

Leunegia ote da nire larrua, bizitzaren atzapar zorrotzek gutxiegi urratua, gutxiegi zaildua, ideologia nire soinean itsatsita geratu ahal izateko? Litekeena da arrazoi prosaiko horrek ere zerikusirik izatea, baina bada –badela uste dut, badela sinetsi nahi dut, badela pentsatzeak liluratzen nau– hori baino sakonagoa den beste zerbait ere nire biluztasun batzuetan fresko besteetan hotz horren arazoaren inguruan: mundua oso urrun dagoela erakusten didan barne-begirada ilun eta abisala, hitz gutxitan eta gaizki –hobeto ezin– esateko.

1994ko maiatzak 7

Berdin dio
zure begien koloreak.
Berdin dio.
Berdin dio
zure galtzak duen zimurrak.
Berdin dio,
berdin dio.
Berdin dio
ekarriko zaituen autobusaren matrikulak.
Berdin dio zure irribarreak.

Baina berdin dio orobat
zu nor zaren ere,
berdin dio, berdin-berdin dio,
eta horixe da min ematen duena,
min berdin ez diona,
min guztiona dena,
min mina, min lehenetan lehena,
min mina, min azkenetan azkena,
min dena gure egiazko barrena,
min zer garen benetan dioena,

minaren min, minik minena
muinaren muin, muinik muinena,
errai bizi, gu zin-zinez garena.

1994ko uztailak 1

Ez naiz umea. Baina autoarroztasuneraino harritzen nau nagusia naizela pentsatzeak.

* * *

Hogeita hamar urtetik gora gabiltza eta hasi gara gu ere gure artean kortesiazko zurikerietan. Beti gure gurasoen munduaren gaitzik tamalgarriena iruditu izan zaiguna ari da gutaz ere jabetzen. Horrek beldurra eta ezinegona sentiarazten dit.

1994ko abuztuak 3

Miope fisikoa naiz, betaurrekoduna. Baina badut beste era bateko miopia bat ere, begiekin edo begi bistarekin zerikusi zuzenik ez duena, betaurrekoekin konpontzen ez dena: begiz ez ezik buruz ere miopea naiz. Begien aurrean eta eskura dudanari ondo antzematen diot, hainbestean moldatzen naiz aurrez aurre jartzen zaizkidan arazoak, konpontzeko ez bada ere, bai gutxienez nolakoak diren antzemateko. Baina galdu egiten naiz handiaren handiz urrunetik baino ezin begira daitezkeen kontuetan; lausotu egiten zait gogoaren ikusmena politika, gizarte, ekonomia eta mundu zabaleko gaien eta gatazken inguruan pentsatzen hasten naizenean.

1994ko azaroak 30
BONBA ETA KIRIKO

Donostiarako autobusa abiatu berri zela, artean Azkoitiko kaleetatik irten gabe, Bonba eta Kiriko ikusi nituen leihatilatik zehar orain dela gutxi, ez dira bi hilabete ere izango. Beti bezala, makal-makal zebiltzan, presarik gabe. Beti bezala, Bonbak zeraman txatarra zaharrez zamatutako gurdia eskuekin helduta, irribarre zabala ezpainetan. Beti bezala, Kiriko Bonbaren aldamenean zihoan, kuzkurtuta, zigarroa eskuan.

Azkoitiarrontzat beti hain arrunt eta ohikoa izan den irudi hari sentimendu berezi batez erreparatu nion orduan, oroiminez, Azkoititik kanpora bizi naizenetik gutxitan egin baitut topo Bonba eta Kirikorekin. Orain ez dut berriz bikote horrekin topo egiterik izango, ezta berriro Azkoitian bizitzen jartzen banaiz ere, Kiriko hil egin baita. Kirikoren heriotzaren berri eman zidan adiskideak esan zidanez, lur jota omen dago Bonba, urte askoan beti aldamenean izan duen laguna galdu duelako.

Saminez jaso nuen Kirikoren heriotzaren berria. Galtzailea zenez –huraxe ba galtzailea, inon galtzailerik izatekotan!–, isilik joan da, hedabideetan oihartzunik izan gabe, baina zerbait hautsi zaigu bihotzean, kra!, azkoitiar guztioi Kiriko hil dela jakitearekin batera. Bonba eta Kirikoren irudia gure barruan baitago Azkoitiko edozein pertsonaia ilustre goraipaturena baino errotuago, hedabideak sekula iritsiko ez diren bazter gordean.

1995

1995eko otsailak 1

Urteetan aurrera egin ahala gero eta hobeto dakigu gustatzen zaiguna zergatik gustatzen zaigun, eta tristea izaten da hori. Desilusio zama handia lotzen zaio jakinduria horri.

1995eko apirilak 28
NORA OTE DOA?

Apiril amaierako arratsalde lasaia da. Nor bere lanean murgilduta ikus ditzaket lankideak nire eserlekutik. Pantaila aurrean lanean batzuk, eserlekutik altxata besteak, komunera edo kafearen makinara joaten, liburukoteak edo egunkari eta aldizkariak kontsultatzen, zuzentzaileengana inguratu eta haiei galderak egiten... Telefonoaren txirrina entzuten da tarteka. Eguneroko-tasunaren magal abegikorra. Ez du inork gehiegizko larritasun edo estuasunik erakusten. Nekea bai, ageri da zenbait aurpegitan, eta egin beharrekoak lehenbailehen amaitu eta hemendik etxera ospa egiteko gogoa. Baina hori ez da ezer. Dena ondo dabil. Pieza bakoitza bere lanean ari da, eta makina erraldoia martxan da. Gezurra badirudi ere, mundu osoko berriak jasotzen, aukeratzen, ordenatzen, laburtzen, euskaratzen, zuzentzen, txukuntzen eta irakurleari zerbitzatzeko prestatzen ari da erredakzioa,

bihar, publizitate eta guzti, dena behar bezala egon dadin kioskoan.

Lehen orrialdea, Iritzia, Politika, Gizartea, Ekonomia, Estatuak, Nazioartea, Kirola, Kultura, Agenda, Azkena. Gauza bakoitza bere lekuan, txukun-txukun, dena argitasunez eta zehaztasunez azaldu eta interpretatua, ezeri ihes egiteko aukerarik eman gabe.

Erredakzio barrura begiratzeari utzita, hosto ugari eta ederreko gaztainondo oparoa dakusat alboko leihotik zehar. Haren atzetik mendi bidexka itzaltsu eta ezkutua abiatzen da... Nora ote doa?

1995eko irailak 23

Pentsamoldea ez ezik sentimendua ere aldakorra dut. Jaka ez ezik azala ere aise dut aldatzen, une batetik bestera eta oharkabean. Elkarren aurkakoak diren gogoeta artikuluak ez ezik elkarren aurkakoak diren poema zinez sentituak ere idatz ditzaket.

1995eko abenduak 25

Askotan pentsatu izan dut istripu hilgarria dudala zain bidearen hurrengo bihurgunean. Askotan bururatu izan zait horixe izango litzatekeela logikoena nire bizitzaren gidoian. Albisteak nire ingurukoengan izango lukeen oihartzuna ere irudikatzen dut horrelakoetan. Ez luke ezer arrarorik horrelako heriotza batek, xume eta arrunta litzateke, eguneroko kontua, ohikoa. Neuri horrelakoetan iruditzen zaidan bezalaxe, nire bizitzaren gidoian horixe zela logikoena irudituko litzaieke denei nire bat-bateko eta ezusteko heriotza ergelaren berri jakitean.

1996

1996ko urtarrilak 12

Inon gustura ez gaudelako maite dugu bidea. Beti behar ez den tokian gaudela iruditzen zaigu baina dabilenari barkagarri zaio behar ez den tokian egotea, dabilenari iritsi arteko tartea geratzen zaio esperantza.

1996ko otsailak 22

Beharbada egun batean barruan ditudan ezinegon, desosegu, gorroto eta txikizio grina guztiak hotzean eta zehatz aztertu, azaldu eta zuritzeko gauza izango naiz. Arimarik gabeko traidore nazkagarria izango naiz orduan.

1997

1997ko otsailak 11

Ez dago eleberri eder batek ezin argi lezakeen misteriorik, ezin zuri lezakeen jokabide ulergaitzik, ezin arrazoi lezakeen gertaera absurdurik.

1997ko otsailak 14

Gauaren meategiari mineral eder puskak kentzen saiatzea da parranda egitea, noiz burni noiz zilar, alferrik gehienetan. Errepara iezaiezu meatzari abaildu horien bisaia beltzei goiz txintaren tenorean.

1997ko otsailak 15

Maite ditut itsu eta herren izateko gogoa izaten dudan une horiek, neure burua zaborrontzi handi batean murgiltzen filma nazaten nahi izaten dudan une horiek, urdailean tiroa noiz emango didaten irrikan izaten naizen une horiek, makurtu, besoak sabel aurrean tolestu eta lurrera atseden eta atsegin mugagabez erortzeko, amaren sabel barruko izakiaren epeltasun amniotiko apalaren bila. Bete-beteko uneak, gizateria osoari eta unibertsoari mugarik eta urrikirik gabe emanak barnebiltze intimoan. Otoitz egitea erabateko suntsitze eta ezerezte kosmikoa da, eta nork bere ikuspegi estetiko eta plastiko berezia ematen dio.

1997ko otsailak 28

Gero eta gutxiago sinesten dut ezer. Gogoetaren ibilbide malkartsuan gora egiten saiatu arren, gero eta urrunago sentitzen naiz iritziaren gailurretik.

1997ko uztailak 12

EZBEHARREAN ZORION

Ezerk ezin ditu egunak hautsi eta desitxuratu nahigabeak bezala. Horixe diogu maite nahigabeari. Harekin heldu ohi da guregana negarrik mingotsenetan ustekabean harrapatzen gaituen poz ilun eta narea.

1997ko abuztuak 31
BERTSO DEGENERATION

Neil Young izan zen bertsotan hasten lehena, purua piztearekin bat. Ez da oso bertsolari iaioa Neil, baina oso gustukoa du altxatu eta eskuak patrikan dituela kantuan aritzea, jator plantak eginez, tripa pixka bat ere atera zaio-eta. Lou Reedek erantzun zion, txukun, serio. Baina, hori bai, ezin behiala bizitzaren alderdi basatian barrena egindako harako bidaia hura aipatu gabe etsi. Egin bazuen egin zuen, bueltaxka ditxosozkoa, arraioa! Janis Joplinek ederki asmatu zuen bertso giroa Louk utzitako putzu ilunetik ateratzen. Huts egitean egindako irribarreak izan ziren haren ekarririk estimagarriena, teknika aldetik Lourengandik oso urrun baitago neskatoa. Leonard Cohenek bertso bakarra kantatu zuen gero, Janisi maitasunez eskainia, *Bertso of a ladies' man*.

Jim Morrison, Pete Townshend, Howard Devoto, Patti Smith, Ray Davies eta beste askoren ondoren –Bob Dylan falta zen, Aita Santuaren au-

rreko emanaldia prestatzen ari–, Jimi Hendrix, Nick Cave eta Tom Waitsek itxi zuten saioa, ofiziotan, goizaldeko ordu txikietan. Ez zen nolanahiko hirukotea, baina nik Hendrixekin flipatu nuen gehienbat. Non arraio ikasi ote du ijito horrek bertsotan? Aurretik sortua ez balitz, Hendrixek asmatuko zukeen bertsolaritza, baina beste era bateko bertsolaritza, zoroagoa, kaotikoagoa, basagoa...

Malenkonia pittin bat sentitu nuen lagunek alde egin eta harrikoa egiten hasi nintzenean. Anariren diskoa jarri nuen eta rockero zahar haiek guztiek erabilitako plater eta mahai tresnak garbitzea ariketa lasaigarri bihurtu zitzaidan. Oherakoan pentsatu nuen ez nukeela Anari bertsotan entzun nahi.

1998

1998ko maiatzak 16

Badira bihotza esku artera aterata mintzatzen diren pertsonak, eskuak guregana luzatu eta bihotza gure begien aurre-aurrean jartzen digutenak, sentimenduen bilgune likatsu eta labain horretako ñabardurarik ñimiñoenetan ere zehaztasun osoz erreparatzeko aukera izan dezagun. «Ez, ez, bihotza ez atera», esaten diegu, aztoratuta, larrituta, inguruetara begira, inork ikusiko ote gaituen lotsaz, «bihotzaren lekua hor barruan dago, barruan dago seguru, kanpoa arriskutsua da bihotzarentzat. Sar ezazu bihotza barruan agudo, mesedez!». Berezko joera dute, ordea, eta ez dute kasurik egiten. Ez dira asko. Maitagarriegiak dira.

1998ko irailak 21
EGOSKORRA ZEN

Egoskorra zen. Ez zuen hasitakoa amaitu arteko onik izaten. Bolada luzea zeraman etxetik irten gabe, han bizilagun zituen intsektuen bizitzaren xehetasunen ikerketa sakonean buru-belarri murgildua. Telefonoz deitu eta gehiago irten behar zuela esaten zioten behin eta berriz hirian zituen ahaide eta adiskide apurrek, «kalean ibili», «paseatu», «egurastu»... Amorrarazi egin zuten azkenerako. Goiz batez, gosaldu ere egin gabe, dotore jantzi, etxetik irten eta kalez kale ibiltzeari ekin zion, norabide jakinik gabe, serio eta kopetilun. Amorruaren amorruz, egoskor, ez zuen gelditu nahi izan, eta hirian zehar bueltaka jarraitzen du oraindik ere etengabe. Egurasten.

1998ko abenduak 16

Logikaren, gizabidearen, jendetasun heziaren eta zintzotasun zibilizatuaren gailur izaten dira gure arteko bilkura batzuk: omenaldiak, bataioak, ezteiak, auzokideen bilerak... Horrelakoen ondoren sentitzen dut beste inoiz baino larriago –narrats eta zabar lotsagabea izateko gogoarekin batera–, poesiarik hautsi eta desitxuratuenaren premia.

1999

1999ko urtarrilak 14

Ez dakit musean, txar amorratua naiz karta jokoan oro har, eta xakean ere baldarretan baldar. Kartarik eta fitxarik gabe ere, mahaitik eta taulatik at, bizitzaren karta eta xake jokoetan txarrenaren pareko nauzue: amodio lehietan, politika eztabaidetan, prestigio eta pribilegio ehizan... Ez dut balio A gezur, gezur ttiki edo egia nire (edo gure) beharretara egoki moldatua esanez B egia niretzat (edo guretzat) petral-gaizto kaltegarria modu sinesgarrian ezkutatu, ahantzarazi, saihestu edo gezur itxuraz mozorrotzeko, C helburu nire (edo gure) ustez justiziazkoaren bidea zabaltzea xede, D garaipen niretzat (edo guretzat) handiari begira betiere. Aurrez aurreko topaketa zintzorakoa da nire joera, eta aurrez aurreko topaketa zintzoan kausitzen ditut adiskiderik minenak eta garaipenik ederrenak.

1999ko otsailak 15

Hurkoak espero duena baino urrats bat aurrerago egon behar dugu beti. Badaezpada ere. Eta badaezpadarik gabe ere bai.

Hurkoak uste duena baino maila bat beherago gaudela uste behar dugu beti. Badaezpada ere. Eta badaezpadarik gabe ere bai.

1999ko otsailak 27

ZALANTZA

Zalantza bat dut, ea argitzen didazun:
zergatik zaude nigandik hain gertu?

Zalantza bat dut, ea argitzen didazun:
zergatik zaude nigandik hain urrun?

Zalantza bat dut, ea argitzen didazun:
non nago ni benetan?

Zalantza asko ditut,
ezin izango dizkit inork argitu.

1999ko martxoak 1
ERAKUSLEIHOEN INDARRA

Etengabeko ekinzalea zen, neurriz kanpokoa, geldiezina, batetik bestera etengabe, saltsa guztietan leporaino sartuta, beti beste guztiei ere ekimen guztietan parte hartzeko adore ematen... Harik eta egun batean, ez dakit zehatz-mehatz zenbat urte zituela, manifestazio batean parte hartu ondoren beste mobida bateko bilerarako bidean, denda bateko erakusleihoan besaulki bati begira geratu zen arte. «Hau niretzako egina dago», esan zuen bere artean, konturatu ere egin gabe, ez zekien zergatik. Egun hartaz geroztik, hantxe eserita ematen du eguna, irakurtzen, telebistari begira eta erdi lotan.

1999ko martxoak 22

Hiregan apurka-apurka gozotasunez hiltzen hasteko nahi hinduket, nahi izatekotan, inoiz izango haudan ez dakidan alaba edo semea.

1999ko martxoak 26

Bizi: ibili eta ezin aurreratu, begiratu eta ezin ikusi, ikertu eta ezin ikasi, esan eta ezin adierazi, ezin inoiz, gogotik ahaleginduagatik ere, ezertan asmatu. Eta gero sekula deus aurreratu, ikusi, ikasi eta adierazi gabe hil, ibiltzeko, begiratzeko, ikertzeko eta esateko irrika higatuari eta aurreratzeko, ikusteko, ikasteko eta adierazteko ilusio hutsalari azkeneko unera arte estu helduta.

1999ko apirilak 19

Bob Dylan baino gazteagoa naiz, Lou Reed, Neil Young, Patti Smith, Mick Jagger eta David Bowie baino gazteagoa; ni baino zaharragoak ziren Jim Morrison, Janis Joplin eta Jimi Hendrix zenduak ere, Johnny Rotten eta Sid Vicious... Nahita ere, ez daukat, beraz, zahar izaterik.

1999ko apirilak 29

Goiz batean, amets nahasi baten ondotik itzartzean, bat-batean, tunel batetik irtetean bezala, argi-argi, bizitza. Neurea. Aurreratua, jokatua eta erabakia neurri handi batean, egina, higatua, atzera-bueltarik gabe alferrik galdua, nola eta zergatik jakin gabe, inkontzienteki, arduragabeki. Zordun sentitzen naiz, neure bizitza neurekin zerikusirik ez izatera eraman izanaren errudun. Gregor Samsa daukat gogoan, haren larrimina. Zenbaki batzuk datoz gero gogora, jaio nintzen urtea eta gaurko data; toki izenak, etxe atari batzuk, muinoak eta hodeiak ortzaizean; lehengo nahiz oraingo gertuko jendearen aurpegiak, irri samur batzuk... Ez dut askorik behar izan neure burua errugabetzeko. Argi dago, bai, nekez asma nezakeen bizi izan naizen baino hobeto bizitzen... Neure barruko ilunpeetan gorde da berriro ni benetan naizen labezomorroa.

1999ko maiatzak 3
NIRE KOLDARKERIA

Kezkatua nauka, oso, gerrak. NATO Serbia gainera bonbak jaurtitzen hasi zenetik, lehen baino askoz ere estuago eta desosegu handiagoz lotu natzaie irratietako orduroko albistegiei, Kosovo eta Serbiako berrien aiduruago Lizarra-Garazikoen baino.

Hildakoen kopuruari eta larritasun fisikoari dagokionean, egun Balkanetan bizitzen ari den gatazka ez da azken urteetako odoltsuena, eta beharbada ezta gaur egun munduan pizturik eta sutan dagoen gerrarik gogorrena ere. Ez da, beraz, hildakoek, zaurituek eta iheslariek sentiarazitako errukia benetan desosegatzen nauena. Kasu honetan, nire kezka pertsonalagoa da, egoistagoa, eta horrexegatik da, ez beste ezergatik, larriagoa.

Gerra honetan, neuk nahi gabe bada ere (baina baita neuk horren kontrako ezer askorik egin gabe ere, egia esan), sartuta nago, eta neuregandik gertu ditut, etxe ondoan, krimen larrien

konplize aski zuzenak, orain artean beti «datorren tokitik datorrela» indarkeria gaitzetsi izan duten horiexek berak (NATO hiltzaile; PP, PSE-PSOE, EAJ, RPR, PSF... laguntzaile!).

Ez da hori ere, dena den, nire desoseguaren jatorri nagusia. Ez beti hain modu zuzen, argi eta gordinean, baina antzeko kontuak ikusi dira beste gerra batzuetan ere. Lehen isilpekoa izaten zen osaba Sami emandako sostengua: errietarik egin gabe nahi zuena egiten uzten zitzaion eta kito. Orain agerikoa da sostengua, horixe da alde bakarra.

Ni benetan kezkatzen eta desosegatzen nauena Kosovoko gerra zabaldu eta hirugarren mundu-gerra pizteko arriskua da. Ohitua nago injustiziaren eta krimenaren bidez gidatutako mundu anker eta odoltsu bateko kide pribilegiatua izaten, hiltzailez eta konplizez inguratuta bizitzen. Ohitua nago odolez zipriztindutako albistegi lazgarrienen amaieran kirol berriak entzuten, alegia deus ez. Baina neure izate apal eta xume hau arriskuan ikustea besterik da, oraingoz arrisku hori, itxura batean behintzat, aski urruna izanagatik ere.

Ez da oso jasoa eta esperantzagarria nire ikuspegia, eta inozoa ere irudituko zaio bati baino gehiagori, baina, nire aldetik, hipokrisia zatekeen gai honi beste mutur batetik heltzea.

1999ko maiatzak 6

Zure iritzia jendaurrean agertu ondoren, gerta liteke berri txar izugarri bat –bakarra, ehunka edo milaka izan daitezke hildakoak, berdin dio– pozgarri izatea zuretzat, zuk jendaurrean emandako iritziaren indargarri den ber.

1999ko maiatzak 20
ELKARTASUNA S.A.

«No one would remember the Good Samaritan if he'd only had good intentions. He had money too».
(«Ez zen inor samariar onaz oroituko asmo onak baino izan ez balitu. Dirua ere bazeukan»).
Margaret Thatcher

Kale ertzean eskean ari zen mozkor itxurako agure herren bati dirua emateko gelditu nintzenean izandako burutazioekin hasi zen dena. Nik emango nizkion txanpon ziztrinekin errukarri hark deus gutxi aurreratuko zuela pentsatzeak tristatu egin ninduen. Orduan, eskaleari dirua eman barik, diru hura loterian jokatzea otu zitzaidan, saririk jasotzekotan irabazitako dirua behartsuen artean banatzeko gero. Horrek behintzat norbaiti benetako laguntza emango ziola pentsatu nuen, nik emandako txanponek eskale hari eman ziezaioketena ez bezalako laguntza, alegia. Ez zitzaidan saririk egokitu orduko hartan, baina handik aurrera egun hartako burubideari lotu nintzaion: eskaleei eman barik,

loterian jokatu dirua, irabazirik izanez gero irabaziak behartsuen artean banatzeko. Argi zegoen txirotasunaren arazoari konponbidea bilatzeko ahaleginean askoz ere jokabide burutsuagoa zela hura, kalean aurkitutako eskaleei berehala edozein huskeriatan –ardotan kasurik gehienetan– xahutuko zuten diru pixar bat ematen jarraitzea baino.

Halako batean, azkenik, sari handi bat egokitu zitzaidan eskaleentzat jokatu ohi nuen loterian, hamar familia behartsuren bizimodua zuzen-zuzenean eta behin betiko konpontzeko bestekoa bai gutxienez. Gaiari buruz sakon hausnartu ondoren, ordea, tristatu egin ninduen nire karitateak, azken batean, deus gutxi konpon zezakeela jabetzeak. Zer da, bada, hamar familiaren diru arazoen konponbidea txirotasunaren arazo latzaren aurrean? Adabaki ezin kaskarragoa baino ez, jakina.

Horregatik, dirutza harekin enpresa batzuk sortzea erabaki nuen, diruari ahalik eta etekinik handiena atera nahirik, ez nire mesedetan, jakina, txirotasunaren arazoa konponbideratzen ahalegintzeko asmoan urrats handiagoak eman

ahal izateko baizik. Diruak diruari dei egiten dio egungo gure gizarte honetan, eta behin diru kopuru jakin batzuetara helduz gero, zuhur eta trebe jokatzen jakinda, diruaren hazkundea handia eta azkarra izan daiteke, hazkunde esponentziala bilatzen saia daiteke, hazkunde zinez harrigarria. Dudarik gabe, horixe zen egin nezakeen onena, horixe zen behartsuentzat eskuratutako diruari eman niezaiokeen erabilerarik zintzo eta solidarioena.

Negozio kontuetan aski iaioa naizenez, eta aholkulari onak ere bilatu ditudanez, hazkunde zinez handia izan du harrezkero nik behartsuentzat pilatutako kapitalak. Bitxia da, paradoxikoa: talde ezkertiar, ekologista eta antikapitalistak nire enpresen aurka agertu dira –isuri ustez toxikoak salatuz, soldata igoerak eskatuz eta gisa horretako beste kontu batzuei helduz–, kokurrentziaren legeari itzuri egiterik ez dagoela ohartu gabe eta –hori da mingarriena– nire benetako eta sakoneko motibazioa giza elkartasuna dela ahaztuta, nahita ahaztuta, jakina, ez oharkabean, talde horien etika aski badaezpadakoa izan ohi da-eta. Amets egitea ondo dago, oso po-

lita da. Norberarentzat hain polita den hori, alabaina, besterentzat kaltegarri izan daiteke batzuetan. Bai kasu hauetan behintzat. Munduko txirotasunaren aurka eta justiziaren alde borrokatzeko, jokabide benetan praktiko eta eraginkorrak behar dira, ez norberaren burua ederresteko baino balio ez duten ameskeria antzuak. Ezkertiar, ekologista eta antikapitalista batzuek inozotasunez jokatzen dute horrela, baina haien buru egiten dutenek maltzurkeria doilorrez. Arriskutsuak dira oso.

Batzuetan pentsatu izan dut heldua bide dela nik sortu eta kudeatutako enpresen irabaziak zuzen-zuzenean txirotasunaren konponbiderako erabiltzen hasteko tenorea. Baina ez litzateke, nire aldetik, jokabide zuzena izango nire gogoari men egitea beste kontu garrantzitsu batzuk aintzat hartu gabe. Ez zaio honelako kontuetan bihotza buruari gailendu behar. Eutsi egin behar zaie norberaren apetak gidatzen dituen tentazioei. Diru asko dirudi eskuetan dudanak; eta asko da, izan ere. Baina deus gutxi konponduko nuke oraindik ere nire kapital osoa behartsuen artean banatuz gero. Ez al litzateke negargarria egun

handi batean txirotasunaren aurka erabili ahal izango den dirua etengabeko hazkunde esponentzial ikaragarrian biderkatzen ari diren enpresa batzuen emanari mugak jartzea? Ez negargarria bakarrik: krimen barkaezina! Itxitako enpresa horien lekua beste enpresa batzuek hartuko lukete orduan, eta enpresa horien jabeek eta kudeatzaileek berentzat hartuko lituzkete irabaziak, ez behartsuen arazoen konponbiderako. Kontzientziak ez lidake inola ere horrelakorik egiten utziko.

Txirotasuna oso gaitz larria da, oso hedatua mundu osoan, eta gaitz horren agerpen guztien aurrean deus gutxi da oraindik ere nik kudeatutako enpresa guztietakoak batuz osatutako kapitala. Kapital hori hazten ahalegintzen jarraitu beharra dago, egunen batean dena erro-errotik konpondu ahal izango delako itxaropena gidari hartuta. Egia esan, etsia nago nik ezin izango dudala, tamalez, ezta ehun urte bizi izanda ere, kapital hori behartsuen artean banatzea zentzuzko eta zilegi izango den eguna ikusiko. Horregatik, enpresen kudeaketa nire oinordekoen eskuetan uzteko asmoa dut, haiek ere, nik bezala, mundu-

ko txirotasunaren aurka egin dezaketen guztia egin dezaten.

Tristatu egiten nau munduko txirotasunaren arazoa erabat eta behin betiko gaindituko deneko eguna ezin izango dudala ezagutu eta ospatu pentsatzeak, baina ziur naiz helburu solidario horren alde egin dezakedan guztia egiten ari naizela, eta, niretzat, horrek ematen duen barne bakeak, sinets iezadazue, benetan diotsuet, mundu osoko aberastasun guztiak baino balio handiagoa du.

1999ko maiatzak 22

HIRE BILA NABILEN

Hire bila nabilen
desio ezin aseen zuloan.
Hire bila nabilen
gau eriaren lantxurdan.
Hire bila nabilen
amore emateko amorratzen.
Hire bila nabilen
neure burua galduta.
Hire bila nabilen
hi aurkitzeko beldurrez.

Nahiago niken, bai,
hi inoiz ez ezagutu izana.
Hire bila nabilen
hi aurkitzeko beldurrez.

1999ko ekainak 25

BUSTITA

Euria ari du kalean.
Denontzat da euria,
milioika tanta erortzen nonahi.
Baina tanta bakar batzuk dira,
ez asko, ehunka batzuk akaso,
ileak, muturra eta eskuak
bustitzen ari zaizkidanak.
Zer pentsatuko ote dute
ustekabean nireganatutako tanta horiek?
Harritu egingo bide dira
ni bezalako animalia harrigarri baten larruan,
patuaren burubidea ezin ulerturik
eta madarikatzen seguru askorik,
zerbait hobearen esperoan direnez eroriak.
Berdin dio.
Busti egiten naute,
nahi ez badute ere
ni aintzat hartu beharra dute,
nire larru sinesgaitz hau bustitzea egokitu zaie.
Ez dakit zer, baina banaiz.

1999ko ekainak 30

BILANAK

Azken funtsean
bilan guztiak negatiboak dira,
derrigorrez, ezinbestean,
baita ekimenik egoki,
arrakastatsu eta ederrenenak ere,
dena amaitu egiten baita,
xahutu, ahitu, akitu, hil.
Horregatik, bizirik jarraituko badugu,
martingala beharrezkoa dugu,
inondik ahal dela,
inoiz ere ez heltzea
ezeren azken funtsera.

1999ko uztailak 19
INON IZATEKOTAN

Inon izatekotan hemen naiz,
hitz aldrebes-nahi hauetan,
bizia iraintzeko saio hauetan,
poesian.
Gainerakoan ez naiz
izan beharrekoa baino,
ezinbeste huts.

Hau ere, alabaina,
itsuskeria munstrokara hau,
matxinada lirdingatsu hau,
poesia,
lehen uste ez nuen arren,
neuk hala nahi ez izan arren,
bizia da.

Zakar, aldrebes eta gaiztoena ere,
inon denik poesiarik pozoitsuena,
odol garbi barneratzen du
biziak bere zainetan.

Izatekotan heriotza dateke
biziaren aurkako borrokan
poesiaz haratagoko arma bakarra.
Baina hori ere hain du berea biziak!

* * *

Poesia nia da; nia oihuka, orroka, oldarrean; nia biluzik, izan beharraren, ezinbestearen, historiaren, herriaren, familiaren, adiskideen, inguruaren arropak urratu eta erauzita; nia, poeta, gizakiarengandik aske.

1999ko urriak 12

Zorroztasun zehatzenez zuzen-zuzen gauzaturiko topikoekin egiten dugu topo batzuetan, harrituta.

1999ko urriak 27
EZ ZARETE

Nik aspaldi susmatu bezala,
egia zen, beraz, ez zaretela.
Edo bai, izan bai, zer edo zer edo,
baina deus gutxi orotara,
hutsaren hurrengo huts.

Neureak nau hala ere arduratzen
zuenak baino gehiago.
Neu ere ez naiz,
garrasi hauei lotuta
gaua erdi-erditik urratu nahi antzuan
batzuetan zer edo zer naizela uste arren.

Ez baita deus
garrasi hau gauaren erdian.
Ehiztari txar baten tiro galdua.
Kantu bat mila bihotzaren urragarri.
Lurrikara bat eta milioika hildako.
Inork ikusi edo sentitu gabeko istripua.

Gerra oso bat, luzea eta zabala.
Ahuntzaren gauerdiko eztula.

Amaitu da,
edo amaituko,
ezer izan gabe,
inoiz izan gabe.

1999ko azaroak 6

NI GEHIAGO NAIZ

Ni gehiago naiz.
Begiratzen diozuen lekutik begiratuta,
ni gehiago naiz.
Nire tua urrunago heltzen da,
nire puzkerrak ozenagoak dira.

Ni gehiago naiz.
Ez da erraza nire mailara iristea.
Putzuak zapaltzean zipriztina indarrez
eta ezin zakarrago zabaltzen du nire autoak,
sistema anker asmatu berri baten bidez.

Ni gehiago naiz.
Ez duzue inoiz nire parera heltzerik izango.
Ezin dotoreago lurperatuak ditut hilak,
teleaparailu bana dute nire seme-alabek,
ikaragarri handiak dira nire prostituten titiak.

Ni gehiago naiz.
Eta, begiratzen diozuen lekutik begiratuta,

beti izango naiz gehiago.
Ozenagoak dira nire korrokadak,
urrunago heltzen da nire erraien kiratsa.

2000

2000ko urtarrilak 25

POLTSA BEROA

Bero hauxe naun,
sei bat litro odol
hire ohea epeltzeko
ez beste ezertarako.

2000ko urtarrilak 26

Mutur bateko eta besteko iritziak entzun ondoren, egia erdian dagoela pentsatzeko tentaldia izaten dugu. Egiarik ez izateak sortutako irudikeria baino ez da, ordea, hori.

2000ko urtarrilak 31

Itundu eta izutu egiten naute argazki zaharrek. Egia da, bai, zientifikoki frogatua dago, ez gaituztela argazkiek hiltzen, baina gure hilkortasunaren lepotik burla egiten digutela ezin izango dit behintzat inork ukatu.

2000ko otsailak 3

Asko maite duenak ezer ez du maite, zer maite duen ez badaki; eta asko dakienak ezertxo ez daki, dakiena maite ez badu. JosAnton Artzek esan eta gaurko egunkarietan jasotako hitzak dira. Horra hor, poeta baten ahoan, nire ezjakintasunaren eta bakardadearen erretratu ezin zehatzagoa. Horri esaten zaio bete-betean jotzea.

2000ko otsailak 15

Heriotza da gaitzik garbi eta osasungarriena.

2000ko otsailak 24

«Hi haut etxe mundu gero eta neguagoan».

* * *

Bere sentikortasunik ezaren kausaz lotsaraino larriturik, ezer sentitu orduko –harrituta, miretsita, sinetsi ezinda–, berehala sentimendu horren idatzizko lekukotasuna ematera jotzen duen pertsona bihozgabea da, onenean ere, poeta.

2000ko martxoak 2

Ez da beti gozoa norberaren burua hedabideetan ikustea, ezta laudatua delarik ere. Batez ere, norberak bere buruaren estimua oso altua ez duenean. Min egiten du batzuetan.

2000ko apirilak 8

Zergatik ez ditu idazleak bere liburuak berrirakurtzen? Azaletik baino ez duelako maite idatzi duena. Idatzitakoak barruan utzi dion hutsartea da idazleak benetan maite duena.

2000ko maiatzak 8
POESIARI BURUZKO IPUINA

Arte garaikide edo modernoko hainbat margolan, eskultura eta bestelako artelanen aurrean, maiz izaten dugu gisa horretako lanak, erakusten zaizkigunak bezain on eta ikusgarriak gutxienez, guk geuk ere aise egin genitzakeelako irudipena; edo ume batek, zoro batek, edonork. Orobat gertatzen da poesiarekin, poesia garaikide edo modernoarekin behintzat, poesia abangoardista hermetikoarekin.

Ideia horrek sustatuta, pintura eta eskultura arloetan inoiz egin izan dut esperimenturik, eta, tira, ez dira zeharo gaizki atera horietako batzuk, baina teknika aldetik oso baldarra naiz, eta hori, bitxia badirudi ere, muga handia izan da niretzat. Horrelako esperimentuetan nekez geratzen baita bat lehen emaitzarekin guztiz konforme. Eta lehen emaitza horri aldaketak egiten hasteko garaian datoz komeriak.

Idazte lanetan, aldiz, teknika aldetik ez dut gisa horretako mugarik sentitzen. Horregatik,

arte plastikoen arloan izandako zailtasunekin etsi samartuta, burura aurrenik etorritako hitzak aliritzira konbinatu eta, neke handirik gabe, poema liburua osatzea otu zitzaidan behin, hots, poemario aizuna, poema aizun garaikide abangoardista moderno hermetikoz osatua, noski, aizuntasun hori igartzerik izan ez zedin. Liburu hura lehiaketa batera aurkeztu eta irabazle izatea litekeena zela ere pentsatu nuen, eta gero argitara eman eta poesiazaleen txalo eta gorazarreak jasotzerik ere izango nuela agian. Pinturan edo eskulturan baino aukera handiagoak nituen behintzat.

Baina burura aurrenik etorritako hitzak aliritzira konbinatzen hasita, konbinazio haiekin ez nintzen konforme gelditzen. Teknika aldetik horretarako mugarik ez nuenez, hitzak beste era batera ordenatzen nituen behin eta berriz, lerro osoak kendu, hitzak erantsi, lekuz aldatu, beste tonu batekin aproba egin... Harik eta hasieran aliritzira sortu eta azarearen esku utzitako poema aizuna, azkenean, neure gustura gelditzen zen arte. Orain poema aizun horiek diren bezala baino ezin ditut onartu: hitz bakoitza da-

gokion tokian dago; ez dago hitz bat ere soberan eta ez da inon ezein hitzik ments. Eta liburuak behar dituen poemak ditu, ez gehiago eta ez gutxiago. Zail izango nuke hitz, lerro, ahapaldi eta poema bakoitzaren zergatikoa eta esanahia zehatz-mehatz azaldu edo arrazoitzea, baina halaxe behar dute eta kito.

Lehiaketa aski garrantzitsua irabazi dut nire poema liburuarekin, eta argitaratu dudanean harrera ona izan du poesiazaleen artean.

Orain, jakina, haiekin horrenbeste lan eta ardura hartu ostean, ez ditut nire liburukoak poema aizuntzat jotzen, zinezko poematzat baizik.

2000ko ekainak 29

ADISKIDETASUNA

Bakarrik nagoenean
zuekin egon nahi dut.
Zuekin nagoenean
bakarrik egon nahi dut.

Zuen beharra dudala
nik aitortzen dut.
Gorrotatzen zaituztedala
ezin ukatu dut.

Zuekin nagoenean
bakarrik egon nahi dut.
Bakarrik nagoenean
zuekin egon nahi dut.

Gorrotatzen zaituztedala
nik aitortzen dut.
Zuen beharra dudala
ezin ukatu dut.

2001

2001eko otsailak 11

1963an jaioa naiz, baina nire oroitzapenik ederrenak 40ko eta 50eko hamarkadetakoak dira.

2001 otsailak 24

Egunero egiten dut, lanera joateko, Urnietatik Andoainako tartea errepidetik. Duela hamabost bat urteko oroitzapena datorkit burura batzuetan, errepide horrexetatik iragatean, autobusaren leihatilatik inguruko mendi ezezagunetara begira –etxetik urrun orduan, orain ez bezala, Azkoitian bizi bainintzen–, bidaiatzen ari nintzela iruditu zitzaidanekoa. Eta une hura oroituri bidaiari sentitzen naiz berriro –lanera joate ezin arrunt eta egunerokoagoan–, orduko bidaia berean jarraitzen dudalako kontzientzia osoz.

2001 martxoak 16

Zirrara eragiten du auto-hilerri batean, ezustean, ibiltzen zen garaian ezagututako auto batekin topo egiteak.

2001eko maiatzak 15
PORNOA

Eragotz iezadazu,
lipar batez,
beti jakin izan dudana
zainetan sentitzea,
egiarik gordinenari
neure barrunbeetan aterpe ematea.
Nous sommes de la merde,
itsusia naiz,
ahul eta endekagarria,
hiltzeko jaioa,
neke-penetan esperantzazurtz bizi ondoren.
Eragotz iezadazu,
lipar batez,
galtzailetza unibertsalaz
gogoeta goibeletan gainbeheratzea.
Erakuts iezazkidazu.

2001eko ekainak 16

POEMA HERMETIKOA

Ez duzu ba pentsatuko
nire poema bat ulertzeko
gauza izango zarenik?
Alajaina!

Zer uste duzu zuk ordea?
Zer uste duzu naizela?
Zer uste duzu zarela?
Zer uste duzu dela poesia?

Neure buruari barkatzen ez diodana,
nori eta zuri barkatu?
Non eta poesian?
Ederki eman ere!

Zergatik eta nire poesia
ulertzen ez duzulako?
Zer gara ba?
Baina, baina... pentsatzea ere!

Zer da ba poesia,
horrela hankapera dezagun?
Edo da edo ez da,
baina erdi-biderik ez du.

Inork ez du inoiz
zuk ulertzeko moduko poemarik idatziko.
Ezinezkoa litzateke,
inon direnak eginik gogotik ahaleginduagatik ere.

2001eko ekainak 18

«Ez zaitez hain jatorra izan, hain bihotz oneko eta eskuzabala. Itotzen nauzu. Ez da batere erosoa adiskide jatorregiak izatea».

2001eko uztailak 4

«Hoy no puedo hablarte en euskara», esan zidan. «Tengo una prisa horrible».

2001eko uztailak 28

GORROTATZEN ZAITUZTET ORAINDIK

Zahartzen ari eta, bihotza bareago izango zuelakoan, idazle zakarrari, hil baino lehen, maila handiko saria ematen ausartu ziren.

Txaloz hartu zuten ekitaldi ofizialean, hizketan hasi aitzin. Ahots dardartiz mintzatu zen:

– Txaloak jo dizkidazue baina gorrotatzen zaituztet oraindik.

2001eko abuztuak 5

Existentzialismoa. Bizar-xaflek zauritutako begien negarra.

2001eko abuztuak 9
PNEUMATIKO HAURRIDEA

Autobusean noa Gipuzkoako herri txiki batera. Elkarrekin solasean ari dira ondoko aulkietan, gaztelaniaz, bi lagun, eta haien solasa heltzen zait belarrietara. Kanpoko ahaide batzuekin Hondarribian izan omen zen atzo haietako bat; ahaideak, Hondarribia aurretik ezagutzen ez eta, guztiz liluratuta geratu omen ziren: harresiak, kale zaharrak, gaueko argiztapena, hondartza, kaia... Pneumatiko lohitu bat dago leihatilatik hasten ikusten dudan mendi bide lehor pinuz inguratu eta sasi-oteek milikatutako batean. Neu ere harritu nauen haurridetasun hunkitu batez begiratu diot pneumatikoari. Malkoak sentitu ditut begietan kilika hura bistatik galtzean. Eta amorrua, amorru debekatu hori.

2001eko irailak 7

Infinituak dira norberaren etxetik bertatik abiatzen diren bideak, infinituak norberaren etxe inguruan ikus eta ezagut daitezkeen lekuak. Eta ezagututako lekua ere ez da inoiz berbera izaten; lekua aldatu ez bada ere, norberaren begiak bai. Ez da inoiz, horrenbestez, inguruaren ezagutza amaitzen. Bizitza osoa da ingurua ezagutu eta baitaratzeko asmo zoro bat, irrika inozo bat, bukatu gabea ezinbestean.

2001eko irailak 23

I CAN’T GIVE YOU WHAT YOU WANT

I can’t give you what you want.
I can’t give you what you need.
I’m a lonely heart and I walk
in an endless lonely street.

I can’t give you passion world.
I can’t give you heart and soul.
My aim is true but you know
Sorrow hurts me, I’m not so strong.

2001eko urriak 6

Idaztea, aukera hori beti. Guztiz librea, hitzen unibertsoaren muga geure eskuz aise eta gozo mugitzeko modukoen barruetan; hiztegi, arau eta aztura orotatik haratago, iturriko uraren gisako gramatika berritu gabe ere beti berrietan; ardura, buruhauste, koherentzia eta erantzukizun guztietatik haratago; sinpatia, adiskidetasun, zor eta traizio-beldur orotatik haratago; osteko irakurketa orotatik haratago. Idaztea, hodei hori, euri hori, elur eta lurmentze, lurrun eta izotz, inon denik atzemanezintasun eskurakoiena. Matematikarik itxuragabeena, lausotasun bete-betean zehatza. Idaztea, aukera hori beti.

2001eko urriak 18

Erlijio bakarra dut, edo ideologia, berdin dio: hurbiltasuna. Baina, hala ere, a zer beldurra larregizko hurbiltasunari! A zer distantzia premia maitasunaren mehatxuaren aurrean! A zer babesa, a zer erosotasuna, a zer konforta... urruntasuna!

2001eko azaroak 22

Ikara apur batez esnatu naiz amets ilun batetik. Lasterketa bat ikusi dut, Donostiako Bulebarrean akaso, ez dakit seguru. Zorua bustita zegoen. Bi eratako lasterkariak ziren lehian: batetik, gorputzik gabeko gizakiak, burua baino ez zirenak; bestetik, oilasko-gorputz txikiko gizakiak. Batzuek zein besteek gorputz oso eta normaleko pertsonak zituzten laguntzaile eta bultzatzaile. Gupidagarriak ziren benetan; oilasko-gorputza zutenak batez ere. Zoruaren bustitasunetik babesteko plastikozko zira bana jantzita, orro lazgarriak egiten zituzten.

2001eko azaroak 30

«Gizona gizon denez gero, zer den galdezka ari da», idatzi zuen Koldo Mitxelenak, *Euskal literaturaren etorkizuna* artikuluan. «Etengabeko galdegite hau ez da oraindik bukatu, ezta bukatuko ere gizona gizon deino. Erantzunak asko dira; gogo-betekorik, ordea, ez».

Beti pentsatu izan dut sakonean honako esaldi hau zeukala buruan, berak ere ez jakin arren: «Gizona gizon denez gero, norekin jo galdezka ari da. Etengabeko galdegite hau ez da oraindik bukatu, ezta bukatuko ere gizona gizon deino. Erantzunak asko dira; gogo-betekorik, ordea, ez».

2001eko abenduak 1
EURIA ARI DU

Ni ere euri banintz
joan nindaike berehala
zure teila hegira
kantuz agurtzera.
Henriette Aire

1. Rainy Manchester

Buelta batera eta buelta bestera, izerdi patsetan, maindireak ere mela-mela eginda, ez nuen bakerik aurkitzen ohean. Ezin nuen Elena nire pentsamenduetatik kendu. Markelekin ibiltzen hasia omen zen. Zergatik ordea? Zer zuen bada Markelek Elena bereganatzeko? Izatekotan ere, diru gehiago, hori bai, baina besterik ez. Ezer ere ez. Baina noren buruan sar zitekeen Elena bezalako neska sentikor eta maitagarri batek hain motibo zekenak izatea ohaidea hautatzerakoan? Ezin nuen horrelako ideia zororik ametitu.

Ohetik jaiki eta telebistari begira egon nintzen apur batean. Han agertzen ziren neskek Elena zekarkidaten gogora eta horrek nire ezinegona larritu egiten zuen. Beheko tabernara jaitsi eta garagardo bat edatea zen, dudarik gabe, egin nezakeen gauzarik zentzuzkoena.

Zerbitzariari garagardoa eskatu bezain laster, hogeita hamabost urte inguruko gizonkote bizardun bat inguratu zitzaidan, garagardo pitxerra eskuan hartuta.

– Excuse me. Do you speak english?

– Yes, a little.

– Are you from here? Saint Sebastian?

– Yes, I am.

Zorionak eman zizkidan, hain hiri politean bizi nintzelako. Bera ingelesa zela esan zidan, from the rainy Manchester hain zuzen ere. Baina, kamioilaria zenez, hara eta hona ibili beharra zuela beti. Barkatzeko molestatzen baninduen, baina norbaitekin hitz egin beharra zuela, bere ama hil zela esana baitzioten telefonoz orduantxe puntuan. Ez zuela kamioiko kabinara joan eta negarrez hasterik nahi, nahiago zuela garagardo batzuk edan eta norbaitekin hitz egin,

ea egingo nion mesede berarekin berriketan geratzeko pixka batean, berak ordainduko zituela eta garagardoak.

Baietz esan nion, ez nuela eragozpenik. Loak ezin hartuta jaitsia nintzela tabernara, bero itsaskor haren azpian ez nintzela ezer egiteko gauza eta presarik batere ez nuela. Gainera, nire ingelesa pixka bat hobetzeko aukera ona izango zela berarekin hitz egitea. Dena dela, tamalez, neure gogoaren kontra, garagardoak berak ordaintzeko eskaintza onartu beharrean nengoela, langabezian nengoelako eta sosik batere gabe nenbilelako bolada hartan.

Elkarri geure penen berri emanez ibili ginen Alde Zaharreko tabernetan. Kontsolatu egin nindu en Elenarengatik sufritzen ari nintzena kontatu nionean: ezagutzen ez zuen arren, ziur zegoela benetan zentzuzko neska bazen Markel utzi eta niregana itzuliko zela, eta bestela kasurik ez egiteko, ez zuela mereziko eta. Ondo pentsatuta, ezin zidan besterik esan, baina esan ziezadakeen hori esan egin zidan behintzat, eta eskertzekoa izan zen.

Goizeko laurak edo bostak aldera, Alde Zaharreko tabernak itxi zituztenean, erdialdeko dantzaleku ilun batean sartu ginen. Gu baino jende gazteagoa, musika gogorra bolumen altuan eta hitz egiteko aukera gutxi. Pixka batean hantxe egon ginen hala ere, gure penen kontaketa saminean atseden txiki bat hartuz, gazte jende hark nola edaten eta nola dantzatzen zuen begira. Abailduta geunden, lur jota biok.

Goiza urratzear zegoen zulo beltz hartatik irten ginenean. Kafetegi batean gosaldu ondoren, ez nuen duda handirik izan, Pasealeku Berrira eraman nuen Manchesterko kamioilari tristea. Eguna argitzen ikustearekin batera, kamioilariaren gogoa ere argitu egin zen lipar batez.

– Wonderful! –esan zuen itsasoari begira.

Itsaso itxuraz amaigabe haren bestaldean bere amaren gorpua egongo zela esan zuen, seme-alabek zaindua, seme-alaba guztiak gorpuaren inguruan bera izan ezik. Nahiz eta Donostian zerua urdin gardenez argitu, euriak eta lainoak inguratua irudikatzen zuen amaren farm zaharra. Oso gutxitan izana omen zen amaren etxean azken urteetan, eta beti euri eta lainoz

inguratua agertzen omen zitzaion etxe haren irudia buruan.

– When I was a child... –esanez ekin zion, malkoei duintasun ziur batez eutsiz, txikitako oroitzapenen kontaketari.

Ohartu orduko Zurriolara iritsiak ginen. Trafikoa ugaltzen eta bizkortzen hasia zegoen. Ez zegoen dudarik, elkarri agur esateko ordua zen. Amara aldera jo zuen nire adiskide ingelesak, han inguruan baitzuen aparkatua kamioia; nik, berriz, etxera. Ez nion helbiderik eskatu eta ezta berak niri ere. Izena ere ez nion galdetu nahi izan Manchesterko kamioilari abailduari.

Bulebarretik etxera nindoala, Elena eta Markelekin egin nuen topo. Gerritik helduta zetozen, Markelek kontu txikiak xuxurlatzen zizkion –ez dut zer lerdokeria izango ziren pentsatzerik ere nahi– Elenari belarri ondora, eta honek irri egiten zuen, irri eta irri zoroki... harik eta ni ikusi ninduten arte. Une latza izan zen hirurontzat, gogorra, zakarra, baina oso indartsu sentitu nintzen gero, etxerako bidean, aspaldian sentitu gabea nintzen poz eta lasaitasun eder baten jabe. Etxera

iritsitakoan leihoko saretak ondo itxi eta bakebakean egin nuen lo.

2. A morna Lisboa dos teus braços

Egia esanda, ez zitzaidanan gustatu portugesa hintzela jakitea. Oso lilura eskasekoa zunan hori guretzat garai hartan. Cenicerokoa izatea bezain lilura eskasekoa kasik. Egia osoa esanda, ez hindudan oso gustukoa izan hasieran. Beste zerbaiten bila geratu nindunan ni han gure soinu tresneria jaso eta gero. Kontzertu hura ez zunan nolanahikoa, ez ditun ugariak izaten horrelakoak inguru hauetan, hain internazional eta jendetsuak, eta nik beste zerbaiten esperantza izan ninan eszenategi gainean kantuan ari nintzela jende hura guztia dantzan erotu beharrean ikusten nuen bitartean. Zerbait ikusgarriagoa merezi nuelakoan nengonan, eta gau hartan bazegonan aukera, jatorri eta itxura askotako neskak zeudenan-eta, martxarako gogoz gainera. Formalegia zunan hire ile motz gaztain kolorea, girotik kanpokoak hire janzkera apala eta hire be-

larritako biribil ñimiñoak. Zaila zunan hirekin egonda lagunek mirespenez begiratuko nindutela irudikatzea. Baina nekatuta nengonan eta beranduegi zunan beste neska baten bila hasteko. Horrexegatik baino ez nindunan hirekin geratu gau hartan.

Ez ditinat ahaztu, ordea, pentsioko gelako argi-itzaletan besoen eta eskuen mugimenduekin egin hizkidan jokoak. Ondo gogoan ditinat denbora geldiarazteko ahalmen liluragarria zuten mugimendu leun eta sentikor haiek.

– Nâo pensade. Simplesmente escutade como soa a chuva caíndo sobre o telhado e seguide o movemento da minha mâo na penumbra. Como si fosse o início d’um longo viagem.

Mundu ezezagun batera egindako bidaia. Hire mundura, herorrek gidatua. Ez dinat ahaztuko biluzteko modu jolasti eta samur hura, hire laztanek sentiarazten zidaten babesa, ziurtasuna. Hire besoetan abandonatu nitinan hala gorputza nola gogoa. Ni ez nengonan horrelakoetara ohituta, eta ez dinat harrezkero horrelakoetara ohitzeko aukera handirik izan. Oso bestelakoak izan ditun nire ohaide eta ohe-istorio guztiak,

zuzenagoak, azkarragoak, zakarragoak. Beste inork ez nain eraman hirekin ezagutu nuen lurralde abegikorrera, hire beso arteko Lisboa epelera.

Hasieran deseroso sentiarazi nindunan, egia esan. Irrigarri, erridikulu. Lagunak irudikatzen nitinan hormako zulotik begira eta nitaz gupida gabe trufa egiten. Baina ahaztu egin nitinan ahalkeak, ezari-ezarian, hik neure baitatik erauzi eta heureganatu ahala. Teilatua kolpekatzen zuen euriarekin bat egingo zuen negar emea eskatu zidatenan orduan begiek barrutik. Gozo egin nionan men haien nahiari eta aspaldidaniko antsia zaharra asetzen duenaren atsedena neureganatu ninan.

– Gosto moito de vós os heavys. Tedes toda a ternura do mundo à flor de pele.

Portugalen heavy gutxi ezagutuko huela komentatu ninan nik orduan.

– Mas sâo os milhores. Os heavys do Tejo. Os mais tristes do mundo. Muito mais tristes que qualquer fadista.

«Luisa Agostinho, o fado do siglo XXI». Alajaina! Ez hidan esan kantatzen huenik ere. Ezer iza-

tekotan mimoa hintzela pentsatuko ninan, edo dantzaria bestela, hire beso-eskuen mugimendu leun haiek eta hire gerri liraina gogoan. Lur jota utzi nain telebistan hire bideo-klipa ikusteak. Hire ondoan egoteko gogo ikaragarriak eraso nain bat-batean. Dudan guztia emango niken berriro ere hire beso eta eskuak pentsio merke bateko gelako argi-itzaletan jolasean ikustearen truke. Negar egin nahiko niken hire bular txikien kontra, teilatu gaineko euriarekin bat eginik. Oroitzen al haiz nitaz, Luisa? Oroitzen? Euskal Herria (hau ez da Espainia). La Puebla de Labarka. Gorka, ETAri buruz hitz egin zinan tximaluze egoskor hura, zenbakiak munduko hizkuntzarik zaharrenean esaten irakatsi zinana, bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi... Oroitzen? Ala zeharo ahaztu naun, aspaldian entzun gabeko fado zahar bat bezala?

Arrazoia huen, Luisa. Tristeak gaitun heavyok. Oso tristeak. Ni ikustea besterik ez zagon. Telebistari begira gaupasa eginda, garagardo lata eskuan, igande goizalba madarikatuak dakarren argiaren beldur. Arrazoia huen, Luisa. Ez Portugalen adina beharbada baina hemen ere

oso tristea dun heavya izatea. Os heavys do Ebro. Elkarrekin egon ginen gau hartan sekulako txotxolokeriak esan nitinan. Jimmy Page baino ospetsuago izatera iritsiko nintzela sinetsita nengonan garai hartan. A zer lotsa orduan esandakoak gogoratzea! Orain bazakinat hik ez naunala sekula telebistari begira oharkabean hagoela bideo-klip batean ikusiko, nik oraintxe puntuan hi ikusi haudan bezala. Ni ez naun sekula XXI. mendeko heavya izango. Gu heavyak gaitun, Luisa, besterik gabe, mundu osoan beste milaka eta milaka bezala. Ez zakinagu besterik izaten. Gure zirkuitua estu-estua dun eta ondo itxia zagon. Baina hala ere ezin zionagu zirkuitu horretan bueltak eta bueltak emateari utzi. Ez zakinagu besterik egiten eta ez dinagu besterik egin nahi, ez dinagu sekula besterik egingo. Horrelaxe jarraituko dinagu bazter guztiak nazkatu arte, edo errepide bazterra jo eta bertan geratu arte bestela.

Hi ere gelditu gabe ibiliko haiz, noski, batera eta bestera, disko berria promozionatzen. Baina gure bideak ez ditun sekula berriro gurutzatuko. Ziur nagon. Hik ez dun sekula niretzat fadorik

sortuko. Ez dun sekula nik hiretzat sortu nuen balada entzungo, *Luisaren mundua*. Ez dun sekula jakingo esnatu eta hi nire ondoan ez hengoela ohartu bezain laster herioan jo nuela pentsiotik geltokirantz. Muinetaraino nuela mindua barrua lasterka egiten nuen bitartean, larriturik, neure onetik irtenda. Auto batek harrapatu eta hankaz gora bota ninduela geltoki aurreko zubian. Ez dun sekula jakingo ezkerreko zangoa moztu behar izan zidatela eta zurezko ortopedikoarekin herrenka igotzen naizela harrezkero oholtza gainera, Ian Dury bezain trakets ia-ia.

Ez dun sekula jakingo euria egiten duen bakoitzean pentsioko gure gelako teilatuaz oroitzen naizela, eta geltoki jendetsuaren erdian ama galdu duen umea bezain babesgabe sentitzen. Euriarekin batera negar egin ezinik hala ere.

3. Il pleut septembre sur Paris

Lan asko dut atzeratuta eta berandura arte geratu beharko dut gaur bulegoan. Zain daukat

Euskal Herria, edo Euskal Autonomi Erkidegoko euskaldungoa behintzat, eta ezin diot hutsik egin. Behar baititu nik mahai gainean pilaturik ditudan testu garrantzitsu hauen itzulpenak, Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Jaun Txit Agurgarriak sinatuak horietako batzuk, astea amaitu baino lehen behar ere, ezeren okerrik ez dela.

Baina itxoin egin beharko du hala ere lanak. Ezin dut aurrera egin. Duela sei urte Parisen pasatu nituen egunak datozkit gogora zerua hain gris jartzen denean, dena lanbro mehe eta goibel honek estaltzen duenean. Txapitulako leiho estutik euriari so geundela Michelleri «Il pleut septembre sur Paris» esan nionekoa batez ere. «C'est jolie ça», esan zuen harriturik, eta nik hasi baino egin ez nuenari jarraipena eman zion. «Il pleut septembre sur Paris», xuxurlatu zuen. «Tout le septembre du monde, doucement eternel, ici, devant nos regards tendrement ennuyés. Merci, Paris, nous n'oublirons jamais cet humide et intime cadeaux».

Harritu egiten naiz lankideei begira. Lan eta lan etengabe. Nik ezin dut. Beharbada lana

amaitu ondoren etxean norbait zain dutelako lotzen zaizkio hain estu lanari. Beharbada nik ere lanean jarraitu ahal izango nuke gero norbait zain izango banu. Ez dakit. Orain behintzat ezinezkoa zait. Hala ere, lan egiteko planta egiten ari naiz. Eskuak teklatu gainetik banandu eta leihotik begira hasten naizenean, gaztelaniazko egitura sintaktiko jakin bat euskaratzeko modu jatorraren bila ari naizela usteko dute lankideek, niri burua Haussman bulebarreko txapitula zaharrera joan zaidala susmatu gabe. Hauek ez dakite ezer Parisko nire egun haietaz, ez dute sekula Michelleren berririk izan. Ez dakite ezer nitaz. Eta ez nuke nahi jakiterik ere.

Ez diet sekula Michelleri buruz hitz egingo. Ez lukete barrerik egingo, badakit. Eta ez lidakete gupidaz begiratuko. Errespetu osoz entzungo lukete nire amodio istorioa, modu politikoki zuzenean. Baina nabarmenegi sentituko nuke horretarako egin beharko luketen ahalegina. Eta bestela ere, dena naturaltasun osoz eta horrelako beldurrik gabe kontatzerik balego ere, ezin izango nieke ondo azaldu zer sentitzen nuen nire txapitulako leihotik zehar Michelle bere etxean

sartzen ikusten nuenean, etxaldeko patioa gurutzatuz, beti bakarrik. Ikusiak nituen lehen ere neska gazte herrenak, baina sekula ere ez nirearen hain antzeko herrenik egiten zuenik. Isilik egiten nuen negar neskatxa isil hari begira. Gozoa zen neure buruari ukatzen nion gupida hain neska eder batengatik sentitu ahal izatea. Horrela maitemindu nintzen Michellez, bere izena jakin gabe, bere ahotsa entzun baino lehen.

Laburra izan zen Parisko nire egonaldia, eta denbora gehiegi behar izan nuen kemena bildu, Michelleren aurrean agertu eta harekin hizketan hasteko. Nire txapitula ezagutu zuenerako gertu nuen Gasteiza itzultzeko eguna. Zazpi egun izan ziren, besterik ez, aterrunerik gabeko zazpi egun euritsu. Ordu eta erdinako zazpi bisita klandestino, aita-amen gordean. Txapitulako leiho estutik euriari so ematen genuen denborarik gehientsuena, izara eta burusi artean gorderik gure gorputz biluziak. Ez zen denbora asko izan. Nahikoa hala ere munduko irail osoa Paris gainean euri gisa gozo abailtzen ikusteko, dena ondo

daukanak eta dena ondo egiten duenak sekula ezin ikusiko duen eran.

4. Llueve desde Carabanchel

Badator berriro ere euria gure bizitzetara. Sekula baino ederragoa iruditzen zait, hain aspaldidanik genuen ikusi eta sentitu gabea. Adiskide baten negarra da euria, gure penen kontsolabide leiala, eta askoz ere bakarrago sentitzen gara falta zaigunean, askoz ere arrotzago munduan.

Carabancheldik heldu da zaparrada hau, igortzailearen mezu batekin: «Hola, Xabier. Soy Arcadio. ¿Creías que me habías olvidado? Pues no. Nunca dejaré que me olvides».

Probatu ez duenak ez daki zein errukarria den hizlaria hitzaldia eman behar duen lekura heltzen den unean. Batez ere inor ezagutzen ez duen leku batera bakar-bakarrik joaten denean, han zer aurkituko duen arrastorik gabe. Halaxe heldu nintzen ni, arratsarekin batera, Guadalajarara, autobusean. Zaharra zen oso autobusa, niri gustatzen zaizkidan horietakoa. Geltokian zego-

en Arcadio, nire zain. Ez genuen antolatzaileak eta hizlariak elkar ezagutzeko eragozpen handirik izan, hain zen jende gutxi inguru hartan. Autobide berriaren aurkako pegatina zuen, gainera, Arcadiok paparrean.

Gertutasunez tratatu ninduen hasieratik, urrutitik heldutako hizlaria izan barik aspaldiko lagun bat banintz bezala. Hitzaldi antolatzaileen ohiko zurikeriaren arrastorik txikiena ere ez nuen sumatu Arcadioren portaeran. Horrek asko leundu zuen hitzaldiaren atarian izan ohi dudan babesgabetasun eta desosegu sentimendua.

Ez nuen entzule asko izan baina gustura eman nuen hitzaldia, konfiantza giroan. Hitzaldiaren ondoren, zerbait jan eta luze gabe oheratzea da nire ohitura. Ez naiz sekula parrandazale handia izan, eta nahiago izaten dut hitzaldiak direla-eta bisitatzen ditudan herri eta hirietako bazter eta parajeak egunez bisitatu indarrak eta sosak tabernazuloetan gastatzea baino. Baina gau hartan guztiz ezinezkoa izan zitzaidan lotara garaiz erretiratzea.

Arcadiorekin eta bere lau lagunekin batera elkartu nintzen hitzaldiaren ostean. Zerbait jate-

ra joan ginen taberna batera, eta jan ere jan genuen, bai, baina baita garagardoa edan eta haxixa erre ere, alajaina! Tabernako zerbitzaria adiskidea zuten eta taberna itxi eta gero ere hantxe geratu ginen berriketan, eztabaidan, hitz eta pitz, nik hitzaldian esandakoak abiapuntu eta oinarri.

Arcadio eta bere lagunak ados ziren oro har nire ikuspuntuarekin. Premia artifizialak sortu, bultzatu eta ahoko zuloraino sartzen dizkigu kapitalismoak, izadia bere menean ezarriz eta gero eta neurri arriskutsuagoetara bortxatuz, eta gu kontsumista itsu, lerdo eta insolidario bihurtuz. Baina ez zuten uste kapitalismoari aurre egiteko modurik onena nik hitzaldian aldarrikatutako «anticonsumismo sufrido y casi místico» hura zenik. Arcadiok esan zituen hitz nire ustez gehiegizko horiek horrela.

Ni ez naiz hitzaldietan aldarrikatzen dituenak erabateko ziurtasunez sinesten dituen hizlari mota horretakoa. Hizlariarengandik urrun sentitzen naiz ni askotan, inkoherente. Gau hartan, hizlariarengandik urrunduta, hizlariak hain zorrotz zaindu behar bide duen zorioneko koheren-

tzia urratuz, Arcadio eta bere lagunen munduan sartu nintzen, eta, alkohola eta haxixa lagun, arrazoia eman nien kontu askoren inguruan. Arrazoia zuten, zer arraio! Ez zegoen derrigor monje tibetar bihurtu beharrik kapitalismoari aurre egiteko. Kutsatu egin zitzaidan azkenerako gazte haien suhartasuna.

Goizaldeko bostak ez ziren urruti tabernatik irten ginenean. Euria ari zuen, zaparrada latza, eta Arcadiok pentsiora autoan eramango ninduela esan zidan. Baina pentsiora bidean ginela autoan buelta bat egitera gonbidatu ninduen. Sorgindurik nindukan Arcadiok, eta ez nuen pentsiora joan nahi, oso pena handia sentiarazten zidan mutil gazte bizkor eta bizitasunez bete hura sekula gehiago ikusterik ez nuela izango pentsatzeak. Ezin izan nion, horrenbestez, gasolina-erretze apetatsu eta alferrikako hari uko egin.

– Me gusta mucho conducir de noche, bajo la lluvia –esan zuen Arcadiok azeleragailua gero eta gehiago zanpatuz–. Y compartir esta sensación con un buen amigo. –Samurtasunez begiratu eta, bolantetik askatuta, nire ezkerreko izte-

rrean pausatu zuen lipar batez eskuineko eskua–. Como tú.

Arcadioren esku nengoen, erabateko abandonuan. Bahiturik zidan borondatea. Elkarri hitzik esan gabe, gero eta azkarrago gindoazen, gero eta biziago zulatzen zuen gure autoak gauaren gortina bustia. Oso ondo sentitu nintzen, lilura betean. Halaxe jarraitu nahi nuen, etenik gabe, aterrunerik gabe, gizaldi eta gizaldi guztietan, munduaren, denboraren eta bizitzaren amaiera ilunaren sakonean galdu arte.

Nondik barrena genbiltzan ohartzen ez nintzenez, ezustean harrapatu ninduen bidaiaren amaierak. Pentsioko atarian geunden. Ez zegoen beste erremediorik. Arcadiori adio esan eta autotik irtetea zegokidan.

– ¿Sabes, Xabier? –esan zidan orduan–. El capitalismo ya no tiene miedo de ninguna conferencia. El capitalismo no teme a la palabra. Sólo le duele cuando le golpean e hieren de veras, directamente, físicamente.

Carabanchelen dute preso gaur egun Arcadio, bost urteko zigorra betetzen hondeamakina batzuei egindako erasoa dela-eta. Handixe igorri

dit lehorte luzearen ostean hain premiazkoa nuen zaparrada bizigarri hau.

5. O paraugas de Pontevedra

Pena eman zidan Clara etxe hartan uzteak. Bebarruan zigarro bat piztu eta euriari begira geratu nintzen minutu batzuetan. Han zegoen berriro ere, han nuen, barruak hozkatzen, erruduntasun sentimendua, gaiztoa izateko beldurra, infernua merezi izateko izua. Han zegoen berriro ere tren huts eginen nostalgia zaharra. Jakinekoa da, ez dira gizon bera izaten putetxe batean sartzen dena eta putetxe horretatik irteten dena; tira, neu behintzat ez naiz gizon bera izaten. Baina Clararekin oheratu ondoren ohi baino askoz handiagoa izan zen nire aldaketa, eta askoz iraunkorragoa batez ere.

Bai, Clararekin oheratu osteko aldaketa horrek iraun egin zuen, eta iraun egiten du orain-dik. Ez neska eder liluragarri horietakoa zelako, neurri perfektuetakoa, ezta ohean sekula irudikatu gabeko plazeretara lerratu ninduelako ere.

Errukia ere ez zen izan; seguru askorik izan izango zuen horrelakorik, baina ez zidan mespretxuz, kolpez eta bakardadez betetako istorio negargarri horietako bat kontatu. Beste zerbaitek egin zuen berezia, apartekoa Clararekin pasatako ordu erdi eskasa. Betidanikoa balitz bezala hartzen zuen nire besoen babesa. Elkarren sekretu guztien berri genuela iruditu zitzaidan. Gure besarkadek nor bere amildegian behera abailtzetik libratzen gintuztela sentitu nuen. Clara nire emaztea zela.

– Chove moito –esan zidan arropak jantzi eta gelatik irtetekotan nintzela–. ¿Tes paraugas?

– Non. Tanto ten, xa me arranxarei. Eu non...

– Acouga, home... Agora che traio un.

Alferrik izan zen ezezkoan tematzea.

– Xa mo daras de volta outro dia –esan zidan, gozotasunez, gelako armairutik ateratako aterki beltz handia nire eskuan jartzearekin bat. Esaldi hori ez zen, ordea, bere besoetara itzultzeko gonbit sasi-disimulatua. Esana nion urrutikoa nintzela eta nekez itzuliko nintzela sekula Pontevedrara. Berak ere ez zekien zenbat iraungo

zuen han. Musu txiki bat eman zidan gero, agur moduan, masailean.

Aterkiei gorroto nien. Txiki-txikitandik zuen nire erraietan habia egina herra hark. Ezin izaten nintzen kalean aterki batekin ibili. Alferrik ariko zen sekulako zaparrada goian-behean. Ez nintzen gauza. Horregatik, Clarak emandako aterkia bebarruan utzi eta euriari aurre egiteko asmoa nuen. Aurretik, hala ere, zigarro bat piztu eta euriari begira geratu nintzen minutu batzuetan, hantxe, bebarruan. Ezinegona, desosegua, tren huts eginen nostalgia zaharra. Bakardadea.

Mugarria izan zen tarte labur hura nire bizitzan. Halakotzat dut nik behintzat oroimenean. Aterkia zabaldu eta haren babesean irten nintzen Clararen etxeko bebarrutik. Atzera begiratu nuen. Han geratu zen Clara, han geratu zen nire emaztea. Tristea iruditu zitzaidan, euri artean lauso, Pontevedrako putetxe zahar hura.

Ez dut bizimodua askorik aldatu. Baina neu bai, aldatua nago harrezkero. Zaharragoa naiz orain, eta gozoagoa. Etxean daukat oraindik, ondo gordea, Clarak Pontevedran eman zidan aterkia. Ez daukat saltzeko, ez horixe! Oso gus-

tukoa dut euria ari duenean haren babesean paseatzera irtetea.

6. La nostra pluja de Perpinyà

Euriaren zarata dinat gogoan, euriaren zirrizarra bizia mundua guregandik urruntzen, euriaren zirri-zarra kutuna gu mundutik bakartzen eta gu elkarrengana batzen, etxola ttiki plastikoz, latorriz, lastoz eta egur puskaz eginaren babes prekario baina ezin samurragoan.

Perpinyàtik oso urrun bizi naun orain, oso bestelako hirian, Miarritzen, baina Perpinyàko gure euri eme haren jario sarkorra dinat beti gogoan, baita gaurkoa bezalako egunetan ere, uda mineko egun eguzkitsu zapaltzaileenetan. Hondartzara doazen neskato lirain arin jantzitakoak ikusten ditun, saldoka, etxeko leihotik. Hi ez hintzen horiek bezalakoa. Euriarena zunan hire edertasuna, ez eguzkiarena.

– ¿Sóc guapa?

– La noia més guapa del món.

Gupidak sortutako gezurra? Hi limurtzeko martingala? Ez. Inondik ere ez. Egia hutsa zunan, egia argi eta biluzia, egia garbi eta handia. Hiretzat bezalaxe, egiazkoa zunan niretzat hire edertasun eurizko hura, gezurretako apaindura eta distirarik gabea. Beste ezein emakumerengan egundo sumatu ere egin gabeko edertasunak ikusi, sentitu eta biziarazi zizkidanan hire adiskidetasunak. Hunkitu egiten naun hirearen antzeko irri bat ikusten dudan aldi bakanetan. Beti hunkituko naun.

Inoiz ez dun izan berriro igandea hi nire ondoan hindudanean izan zena. Inoiz ez dun izan berriro nire bizitza igande haiekin izan zena. Jendearen zoriontasun ofizialaren irri zurizko eraso zakarretatik defenditzeko, herriko zein mendialdeko zokondo bakartienetan bilatzen geninan babesa, industrialde ahantzietako kale mortuetan, hiriko aldiri galduetan, mendi bide zahar sasiak jandakoetan, altxor txikien bila begiak adi beti: txapak, puxtarriak, txanpon batzuk, kromo zaharrak, norbaitek malkoz bustita utzitako gutun hautsia... Igandearen eta bizitza ofizialaren ifrentzuaren bila aritzen gintunan gure paseo

ordurik gabekoetan, eta inoiz ere ez gintunan esku hutsik itzultzen. Horixe zunan guretzat gordetako zorion hondarra. Ez geninan besterik behar.

Legez kanpoko laztanetara lerratu nindunan, ordea, pentsatu ere egin gabe, oharkabean, ezinbestean, inola ere gelditu ezinean, ezustean euria hasi eta mendi bidexka baten ertzean aurkitu genuen etxola ttiki hartan aterpetu ginenean, eta hik denak onartu hizkidan, irri urduriz hasieran, irrika bizi eta oldarkorrez gero. Hainbat poetaren poesia bezala, naturaz gaindiko agindu bat izan zunan, gozo eta samur, poetikotasun osoz, onartu eta gauzatua, nahi izanda ere itzuriezina guztiz. Legez kanpokoa haatik, ez omen haiz-eta heure buruaren, heure gogoaren eta heure irritsen jabe.

Legearen marra ulergaitz eta atzemanezina gainditurik, igandeetan Down sindromea zuen neskato gajo hura paseatzera ateratzen zuen agure jatorra piztia zikin, higuingarri eta beldurgarria bihurtu zunan, hi bezalako izaki babesgabeko batengandik derrigor eta berehala urrundu beharrekoa. Elkarren babesik gabe utzi gintuzte-

nan. Inork ez zinan zalantzarik txikiena ere izan. Denak ados zeudenan. Dena oso argi zegonan. Ezin zunan paradisurik izan guretzat, Adam eta Evarentzat izan ez zen bezala. Gupidarik gabe egotzi gintuztenan, elkarrengandik banandu betiko.

Ezin izango diten hala ere Perpinyàko gure euriaren zirri-zarra samurra gure barruetatik erauzi. Horrek batuko gaitin beti. Bazakinat ez dugula sekula elkar ahaztuko. Ez zaigula sekula barruko mina sendatuko. Elkarrengandik urrun izanagatik ere, euripean amodio zinezkoa aterpetzen duten etxola ttikiak ditun gure gorputzak, gure gorputz ahantzi eta baztertuak, gutxietsi eta umiliatuak, amodiorako ukatuak, ezerezera kondenatuak.

7. Lekuak eta elurra

Noiznahi datozkit gogora lekuak, inguruko mendietan egindako ibilaldi ugarietan ezagututako era guztietako parajeak eta txokoak: bide zati zabal zein estuak, zuzen nahiz bihurriak;

borda-baserrietako atariak eta baseliza txiki ezkutuak; pinudiak, sastrakak eta txarak; sagastiak, hariztiak eta pagadiak; belaze zabalak eta errekazuloak; putzuak, iturriak eta mendi-negarrak; baita tontorrak ere, jakina, beren gurutze eta txartel-kutxa kasurik gehienetan aski apalekin...

Leku batzuk haietan maiz izanak egiten dizkit bereziki kutun; gutxiagotan izan naizen lekuek, berriz, misterioaren erakarmena dute. Noiz bata noiz bestea, noiznahi eta gehienetan motibo jakinik gabe gogoratzen ditudan adiskide zaharrak dira denak. Bisitatzen nauten adiskide bakarrak.

Elurretan izango dira orain leku horiek guztiak, leihotik ikusten dudana bezala –zaharretxeko lorategia ere leku bat da, azken batean–, izara zuri isil horrek estaliak, lotan bezala. Neu ere halaxe izango naiz laster –lo isilean elur–, nigan barrena ibilian hasia den gaitzak gailurra harrapatzen duenean.

Ilobak mendira eraman nahi nau bere autoan, nire lekuetara. 4x4 auto noranahikoa du, indartsua eta biderik basati, zakar eta lohitsuenetan aurrera egiteko ezin aproposagoa. Esan dit

neuk aukeratzeko zein lekutara joan nahi dudan. Pentsatuko dudala erantzun diot, akaso elurra urtutakoan joango garela norabait. Baina ez gara joango.

Ez litzateke itxurazkoa izango autoan eta zutik egoteko gauza ez naizela agertzea leku horietan, nire lekuetan, eri, elbarri, errukarri, negargarri. Oinez eta bakarrik maite izan ditut nik nire lekuak, bizi eta bizitzari emana, haiekin bat egina, eta uste dut halaxe maite izan nautela haiek ere ni. Joatera etsita ere, ez nuke jakingo zein leku aukeratu, baten aldeko hautua eginik gainerakoak gutxietsi eta traizionatu izana leporatuko bainioke neure buruari.

Ez dut azken orduko solemnitate arranditsurik nahi. Ezer ez diren lekuak maite izan ditut beste ezeren gainetik, eta ez dut ezer ez dena ezer bihurtuko lukeen ezer egin nahi.

Poztu eta kontsolatu nau hala ere ilobaren eskaintzak. Iloba da mundu honetan nire lekuei buruz mintzatzen naizenean jaramon egiten didan bakarra. Oso bestelakoa da haren jarrera. Neskalagunekin joan ohi da nik aipatu eta deskribatzen dizkiodan lekuetara, nik adierazitako

bideei jarraiki. Ahal den lekuraino behintzat autoan joaten dira, eta iluntzearekin batera amodio jolasetan hasten. Arrakasta handia du neskekin. Hala dio behintzat, eta nik sinesten diot. Oso jator eta xarmangarria da.

Ni, aldiz, bakarrik izaten nintzen nire lekuetan; emakumerik ez alboan, bai haatik gogoan, beti bat eta bera: nire ilobaren ama.

Oso bestelakoa da ilobaren jarrera, esan dut lehen ere. Egia da hori. Baina uste dut hark ere nirearen antzeko atxikimendua eta maitasuna diela nire lekuei. Bereak ere badirela nire lekuak. Ez diot horretaz inoiz ezer esan, baina ni ere behin, behin baino ez, emakume batekin izan nintzen nire lekuetako batean. Ilobaren amarekin. Iloba jaio baino bederatzi hilabete lehenago. Inguru guztia azpian hartu eta guztiz zuriturik zuen elurretik babestu gintuen etxolatxo xahar batean.

Bera ohartu ere egin gabe, barruko indar misteriotsu batek bultzatua, leku horren bila dabil akaso nire iloba, nire semea. Oraindik ez da han izan.

2002

2002ko urtarrilak 11

Beste norbaiten akats edo hutsegite larri batek asaldatzen eta haserretzen gaituenean, ez da txarra, ezer esan edo egin aurretik, geuk, beste arlo batean bada ere, asaldatu berri gaituenaren neurriko zer akats dugun edo zer hutsegite egin ohi ditugun kontuak ateratzea.

2002ko urtarrilak 27

BELDURTIA ZEN

Beldurtia zen. Irratia isiltzen zen bakoitzean, munduaren amaiera hasia zela bururatzen zitzaion.

2002ko urtarrilak 31

Hitz egitea zerbait dakigula uste izateko modu bat da maiz askotan. *Cogito ergo sum* esan zuena ere horretan ari zen, azken batean, hizketan, bere buruari zerbait behintzat bazekiela erakusten. Baina harrigarria da zein gutxi dakigun batzuetan seriotasun eta ziurtasun osoz esaten dugunaz. Norbait hil dela esaten dugunean, esaterako; aztarrenik ere ez dugu zer esaten ari garen.

2002ko otsailak 2

Oso egokia da kazetari batek egindako elkarrizketan, umore punttu batekin betiere, idaztea derrigorrezkoa duzula adieraztea, azken batean beste ezer ez dakizulako ganoraz egiten. Baina eguneroko bizitzan hori itxuragabekeria izugarria da, eta oso egoera latza.

2002ko otsailak 10
SEXUA

Komuneko zulotik behera doan sexua,
gotor, gordin, zakar,
edo izaren leuntasunean babestua,
goxo, leun, itxaropen.

Ezin kabitua, ezin lasaitua,
ezin asea, ezina beti.

Lur-mamiaren deia, eguzkiarena, ilargiarena,
gailur gorena.
Kondoi erabiliak katuen atzaparrek zabaldutako
zabor poltsa muturretan ageri.

Egia eta gezurra, neurri gehiegizkoetan.

2002ko martxoak 8

HEMEN EGON DA LARRIA

Hemen egon da larria.
Beste askotan bezala,
egonaldi labur eta arina egin du,
ezer larririk esan gabe.

Hemen egon da larria.
Ahitzear den idazteko gogo koxkor hauxe
besterik utzi gabe alde egin du.

2002ko martxoak 15

Jende asko bildu den tokian edo zerbait garrantzitsua gertatu den tokian, denak joan eta gero egotea gustatzen zait. Horrelakoetan, lekuak, artean ere harritu eta durduzatuta, bere onera itzuli gabea, eskertu egiten du bisitaldi xumea.

2002ko martxoak 16

Muebles El Paraíso izeneko altzari denda baten iragarkia entzun dut irratian. Horixe bera da barren zerua irudikatzean sekula ere ikusi ez dudana: altzariak!

2002ko martxoak 30

Jendeari begira eman dut tarte bat, hiriko aulki batean eserita. Zer urrun denak! Ikuste hutsetik sentitzen ditut arrotz, horretan gogotik saiatuagatik ere inoiz gertuko ezin bihurtuko nituzkeenak. Iruditzen zait inor ez dagoela ni nagoen tokian, inork ez diola munduari nireen antzeko begiez begiratzen. Iruditzen zait ezinezkoa zaidala zinezko haurridetasun berririk sentitzea. Eta posible balitz, beldurgarria litzatekeela.

2002ko martxoak 31

GIZA TXULETA GORDINAK

Liburu bakarra utzi zuen idatzia, aitorpen pertsonalen bilduma izugarrikeriaraino egiatia. *Giza txuleta gordinak* jarri zion izenburua.

2002ko maiatzak 1

Egin, egin eta egin, zenbat gauza egin ditudan! Egin beharrak, egin nahiak, nahitaezkoak eta nahieztakoak asko, istripuzkoak, oharkabekoak, ez dakizkidanak ere izango ditut eginak... Egin, egin eta egin. Hala ere negar da, egiten dudanean, ondoen egiten dudana, indar mistiko handienez, munduarekiko batasun zintzoenez, beste ezer egitean baino barrukoagoa den indarrez. Neuk eta edonork, lehen, orain, gero, beti eta noiznahi egindakoak oro, gupidaren inongo aztarrenik gabe, kolpe bakar eta saihestezin, eztabaidaezin, erantzunezin batez ukatzen, suntsitzen eta deusezten dituen negarra.

2002ko maiatzak 18

Itzaltzen ari dira inguruko argi guztiak. Gaueroko loaldi artegan murgiltzen hasia da etxe ondoko basoa. Geuri ere, munduari eragite neketsua alde batera utzita, erretiratu eta geure baitara biltzea dagokigu; bakean eta neutralizatuta utzi bagenu bezala, ordu batzuetarako mundua ahazteari lotzen gatzaizkio, gauean. Babesa bilatzen dugu, munduan nekatutako beste sabel zafratu batean ahal bada, geure neke propioaren madarikazio ilunean bestela. Babes horixe dugu aberastasunik behinena, eta izutu egiten du munduak eragiten digun –eta eragiten ez badigu etsi-etsian geuk bilatzen diogun– neke hori gabe zer ginatekeen pentsatzeak.

2002ko ekainak 9

AZKEN ESPALOIEN MUTURRETAN

Euri xehea eta lohia
azken espaloien muturretan,
kaleek izenak galtzen dituzteneko
muga zehaztu gabekoetan.
Hiri zati basak,
mendi puska narratsak,
elkarketa puntu antzua.
Bakardadea, tristura. Mundua
hiriaren eldarnio zorotik
zein izadiaren edertasun aratzetik
salbu, gordean.
Babesean.

2002ko uztailak 10

Maitearen gezurra, zintzurrean hezurra.

2002ko abuztuak 4

Benetan harrigarria da eguraldia. Eguna joan eta eguna etorri, kaltegarrien eta gogaikarrien denean ere, beti eusten dio bizirik jarraitzeko aukera ematen digun tarte zinez estu horretan. Eta zenbat arrangura eta purrustada hala ere!

2002ko abuztuak 5

Zutik abailtzeko joera daukat.

2002ko abuztuak 11

Nire gorputzaren hiru laurden, diotenez, ur da. Nire espirituaren hiru laurden, diot nik, beldur.

2002ko irailak 21

ULERTZEN EZ DUDANA

Deus gutxi da ulertzen ez dudana,
gero eta kontu gutxiagok egiten dit ihes,
aski argi baitago dena azaldua egunkarietan.

Deus gutxi da ulertzen ez dudana.
Baina gero eta gutxiagorako balio dit ulertzeak.
Ez dakit ulertzen den.

2002ko irailak 21

Egiaztatu beharreko intuizio bat: zenbat eta jende gehiagorekin izan axaleko harremanak –hedabideetan agertzen diren eta gu ezagutzen ez gaituzten pertsona ospetsuekin ditugunak barne–, orduan eta azkarrago iruditzen zaigu pasatzen direla urteak, pasatzen dela denbora, pasatzen dela bizitza.

2002ko irailak 24

Idazle txiki baten ohar txiki bat, koaderno txiki batean, hizkuntza txiki batean. Txiki-txiki-txiki, ezerezaren amildegi ertzean, askatasun betezko mundu oso bat. Nahikoa!

2002ko urriak 6

Egun batez, aspaldi, aurrerantzean ez nuela sekula denbora gehiagorik alferrik galduko erabaki nuen, horrela zerbait handia egitera edo, areago, zerbait handia izatera helduko nintzela sinetsita.

Geroago, denborarekin haserre bizitzeak eragiten dituen kalte latzez ohartuta, ustez baliogabetu egin nuen neure buruari behiala emaniko agindu hura. Baina bizirik dirau auto-aginduak, suntsiezin, neure barrunberik sakonenetan, hasierako une hartatik beretik geroko damu ororen aurka blindatu banu bezala.

Eta ez naiz denborarekin adiskidetu.

2002ko urriak 30

GIZON BAT LOTAN

Gizon bat lotan
izango naiz aurki.
Horrela definitzeko moduko
materia multzo epela, geldoa.
Itsu, mutu, gor, ergel,
ahanzturari emana akordua.

Joana, zuengandik banandua, errugabe,
ez zaizkit, ezereztuak, axola izango nik
zuetaz gaizki esanak,
zuen aurka gaizki eginak,
zuei ezer eman gabe neuk,
zuraren bihotza zulatzen duen iltzearen zitalke-
riaz,
jan, edan, laztandu, xurgatu, gozatuak oro,
zuekin banatu gabeko patata tortilla guztiak.

Eguneroko errugabetasun aro premiazkoan,
materia multzo epela, geldoa,

ez dagoenaren pare, ez denaren antzeko,
aurki izango naiz
gizon bat lotan.

2002ko azaroak 15

ABESTIAK ABAILTZEN

Ilunabar batez abesti guztiak erori zitzaizkion kantariari kalearen erdian. Musika tresnaren maletatik behera isuri zitzaizkion, banan-banan, mantso, leun, intimitate biluziz, kalean zebilen jende guztiaren aurrean. Abestirik tristeenetako malenkonia berberaz geratu zen kantaria, isilik, geldirik, kemengabeturik, hutsik, erortzen ari ziren abestiei begira. Kantu berrian barrutik.

2002ko abenduak 2

Orixek Orexari «munduaren ipurdia» deitu zion. Harritu egin ninduen hori irakurtzeak. Batetik, aipamen zabar eta prosaikoegia iruditu zitzaidan Orixerentzat, areago pertsonaia nagusi nor eta Lizardi duen poema batean; bestetik, pentsatu nuen leku asko direla Orexa baino «munduaren ipurdiago». Aizpurutxo etorri zitzaidan lehenik burura, baina hori ere aise gainditzeko moduko adibidea dela jabetu nintzen berehala. Errepiderik gabeko haran basa, malkartsu eta itxienetako errekazulorik ospelenetako zokondoetan nola hiri handienetako gunerik kosmopolitenetan, leku orotan duela, ongi miatu eta usainduz gero, ipurdia munduak, ia-ia ipurdi huts dela, azken batean, mundua osorik.

2002ko abenduak 9

Euskal kulturaren alde lan militantea egiten dugulako harro ageri gara maiz euskal kulturaren munduko profesionalok. Eutsiko al genioke, ordea, militantzia horri euskal kulturaren aldeko gure lana komunak garbitzea balitz?

2002ko abenduak 19

ZERO PUNTUA

Egin nezakeen eta egin ez dudan guztia daukat,
errieta beltza adierazten duen betoskoz, begira.
Eta ni, begi poetikoak ortzaizerantz,
bildots errugabearen itxura neureganatuta,
jatorrizko zintzotasun garbi baten jabe banintz bezala,
dena hutsetik hasteko puntuan ari naiz jartzen.

2003

2003ko urtarrilak 30

Errealitate fisikoaz gain, oso zama sinboliko handia du zilbor hestearen mozteak. Baina uste dut etenduraren une horretatik aurrera beste hari sinboliko bat izaten dugula, inolako errealitate fisikorik gabekoa, gogo-gorputzei lotua, inondik inora ere, inola ere, ezin eten dena. Nahastu egiten da hari hori gure ibilien ondorioz, eta ez zaizkigu oharkabekoak gertatzen korapilatzeak eragindako teinkadura inoiz samur eta gozoak, inoiz bortitz eta lazgarriak. Bi indarren arteko lehia da, funtsean, gure gogoa: hariaren behin betiko etendura bilatzen duen kanporanzko indar zentrifugoa da bata; barne-biltze goxo batez hariaren jatorrizko muturrera bihurtu nahi gaituen barruranzko indar zentripetoa bestea. Indar horiek, haria bezala, geure izatearen parte ezin erauziak ditugu. Eta hariak bere korapiloak bezala, nahi ezta ere, maite eta gorrotatu egiten ditugu bi indarrok.

2003ko apirilak 11

Afektibitateaz mintzatu zait Ramon Saizarbitoria *Kandinskyren tradizioaz* egin diodan elkarrizketan. Grabagailuaren aurrean adierazi didana transkribatzen ari nintzela, izenburuari dagokion hutsunea bete dut, atzamarren mugimendu azkarrez, idazkera automatikoz: «Inork ez nau maite, neuk ere inor maite ez dudalako». Ez dira Saizarbitoriak esandako hitzak, ezta neuk berari egotzitako sentimendu baten adierazpena ere, neuri barrutik, inkontzientearen eremu ilunetatik, irtendakoak baizik.

Ez nago onenean.

2003ko apirilak 17

ETXE HORIEK GUZTIAK

Etxe horiek guztiak
xume-xume
behetik gorantza
leiho txiki fluoreszentez
bata bestearen ondoan
ia zulo ilunik utzi gabe josiak.
Ama bat, aita bat, umeak...
poz, arazo, min, nahigabe
andana metro karratuko.
Maitasun ttiki hori guztia,
estu pilatua, miresten dut
ataritik gora begira,
urruneko tribuen
ohitura zaharrak,
ilbeterik biribilena
edo zerurik izartsuena
baino askoz gehiago.

2003ko apirilak 19

Ez zait erraza justiziazale izatea. Izan al daiteke justua nire zoriontasuna? Izan al daiteke justua nire pozik txikiena ere?

2003ko maiatzak 10

Maiteen ditugun abestien edertasuna amaitu egin dela sentitzen dugu batzuetan. Abestirik urtsuenek ere, zokondorik gordeenak ere idorturik, galdu egiten dute, batzuetan, arte-ur miragarri guztia, baita ezkutuaren ezkutuz –sortzailearentzat guztiz ezezagun maiz– geuretzat ez besterentzat eta geuretzat betiko egina zirudien xurrut kutun hura ere. Etsipengarria da, bihotz-urragarria, unibertsoaz gaindiko zirrara bizi-pilpiraz betea eragin ziguna agorreraino ximeldurik ikustea, mugagabe uste genuenaren muga biluziekin ezustean aurrez aurre topo egitea. Une hori kantu bihurtzea beste biderik ez da izaten orduan. Barruan kantuaren indarra den artean.

2003ko maiatzak 17

Zubi gainetik autobideari begira nago. Neu ere horietako bat naiz orain. Txofer bat. Ez nintzena bihurtu naiz. Orain badakit nola sartzen duten enbragea, nola betetzen duten gasolina andela, nola bideratzen duten autoa pausoz pauso nahi duten lekura. Lehen autoei bide ertzetik harriduraz begira sentitzen nuen arroztasun xalo hura galdu dut, askatasun eremu bat galtzen den bezala. Gure gizartean, ezerk ere ez du ematen ezer ez izateak ematen duenaren adinako askatasunik. Eta auto baten jabe ez izatea eta autorik ez gidatzea laguntza funtsezkoa da ezer ez izateko bidean.

* * *

Leku natural eta eder bat etsai bihurtzen zaizu, neurri batean behintzat, hura aldez edo moldez zeure egiten duzunean; edo beste inork bere, noski.

Pertsonekin ere gertatzen da, natural eta eder iruditzen zaizkigunekin behintzat.

Itxuragabekeria iruditzen zait «jardin eder bat edukitzea». Leku natural eta ederrak edonorentzat eta noiznahi hortxe natural eta eder daudelako dira natural eta eder. Niri, bestela, ezin zait leku bat natural eta eder iruditu; oroitzapen onen gordeleku edo tomate eta piper goxoen sorleku izan daiteke, asko jota, onenean ere.

Pertsonei dagokienez, akaso baldintzatuagoa nauka kulturak, baina funtsean, berdin beharko lukeela uste dut.

* * *

Idazle gisa, oso erakargarria zait ezer ez izateak ematen duen askatasuna. Ezer ez izate hori sublimatu eta literatura bihurtzeko, jakina; hots, ezer ez izatea zerbait bihurtzeko. Kontraesana? Traizioa? Akaso. Krimen bat ez behintzat. Gainera, uste dut zarata handiegirik gabe egiten saiatzen naizela.

2003ko maiatzak 31

Euskal literatura, euskal kultura, mundutxo erdi-ezkutu hau... Aberri txiki bat da niretzat; bildu eta babesteko, sentitzeko eta sentiarazteko, bizitzeko leku bat... Ez da, ordea, mendiko txoko batean ahaztutako etxola nolanahikoa. Ez gaude jadanik horrela ohituak. Literaturaren ulerberatasun unibertsalak babesa eskainiko dion etxe sendo samarra behar du, garatuko bada. Eta dirua egoten da etxe horretan, indarra egoten da, boterea egoten da. Politika egoten da. Oinarrietan, hormetan, teilatuan, zoruan, paretetan, altzarietan, komuneko zuloan... Nahiz eta idaztea gehienetan, berez, hortik askoz haratagoko –edo, hobeto esanda, honatagoko– kontua izan, nahita ere erabat ezin da ahaztu literaturaren eta politikaren arteko harreman zehatza, zuzena, fisikoa.

Nik, ordea, ezin diot harreman horri literaturaren ulerberatasun unibertsaletik baino begiratu, zalantzaren begi akaso zabalegiekin.

Euskal literatura, euskal kultura, mundutxo erdi-ezkutu hau... Aberri txiki bat da niretzat; bildu eta babesteko, sentitzeko eta sentiarazteko, bizitzeko leku bat... Horixe baino ez dakit, ezer jakitekotan, ziurtasun pixka batez.

2003ko uztailak 11

Goizaldeko bostak pasata. Mozkortu samartuta. Bizitza aldamenean, bere aukera guztiekin, ikasi diodan guztia eta ikasi gabekoa ere bai, zabalik eta itxita, hortxe, temati, beti bizitza, beste era batera baina beti bezala, bizitza beti.

Eta bion artean, bizitzaren eta neure artean, pareta hau, inola deitzekotan, une honetan behintzat, kontzientzia deituko nukeena.

2003ko uztailak 16

Ezerk ez du jardin bat edertzen abandonuak adina.

2003ko uztailak 28

Etorkizuna, erorkizuna.

2003ko abuztuak 1

Zero maitematiketan.

2003ko abuztuak 3

Arrazionaltasunez aztertuz gero, ez du balio handirik gure bizitzak. Ezer gutxi gara, eta garentxo hori ere oso tarte laburrean gara, oinaze ez nolanahikoak iraganda gainera. Baina arrazionaltasunetik kanpoko bizi-indar natural batekin jaio ohi gara. Etsipenetik babesten gaituen longaina mirakulutsu baten modukoa da bizi-indar hori. Arazoa da nork bere longaina baino ezin duela jantzi babes gisa, jaiotzetik duena, eta urteekin, pixkanaka-pixkanaka, oharkabean hasieran baina gero eta nabarmenago ondoren, higatu eta maiztu egiten zaigula.

2003ko abuztuak 8

Negar egitekotan, negar egingo nuke gustura, sinetsiko banu negarrerako dudan motiboa inork inon inoiz pairatu duen injustiziarik handiena eta mingarriena dela. Baina ez da hala izaten, ezta hurrik eman ere. Nahiko eskasak, batzuetan are miserableak ere, izan ohi dira penarako nire motiboak, inguru hurbilari nahiz munduaren martxari begiratu eta konparazioak egiten hasiz gero behintzat. Merezi baino hobeto tratatu nau bizitzak, merezi baino hobeto tratatu nau jendeak. Negarrerako gogoa gailentzen hasten zaidanean, tristuraren azpitik, negarrerako ezindu eta amorrua sentiarazten dit horretaz ohartzeak.

2003ko abuztuak 30

Nire maitasuna tristea da, geldoa, indar eskasekoa, txinpartarik gabekoa, aspaldi zabaldu eta harrezkero tapoirik gabe utzitako botilako gaseosa bezain malenkoniatsua.

Askotan uste izan dut, edo uste nahi izan gutxienez, izan daitezkeen maitasun modu ugarien arteko beste bat baino ez dela nirea, txinparta biziagoko maitasun moduak bezain emankorra, azken batean, maite ditudanentzat; besteak baino pobreagoa adierazkortasunik gabeko bere hoztasun grisagatik, baina besteak baino aberatsagoa afektaziorik gabeko bere biluztasun zintzoagatik.

Neure maitasuna bera bezain txepela izan da beti, ordea, uste horri diodan fedea.

2003ko irailak 2

Aukera dezagun leku bat mapan. Inguruko lekuetatik bereizten duen distantzia da, izenaz landa, leku hori mapan definitzen duen datu bakarra. Aukeratu dugun lekuak ez du, mapan, beste euskarririk, beste izaerarik, beste esentziarik, beste nortasunik. Distantzia baino ez da.

Geu ere distantziak definitzen gaitu. Geu ere distantzia baino ez gara.

2003ko irailak 27
BIZIKLETA ANDREGAI

Ez zen Eddy Merckxenaren modukoa. Ez zen *karrerakoa*, ez zuen aldagailurik, eta koadroa ere ez zuen triangelu formakoa, *u* baten tankerakoa baizik. Baina bizikleta harekin Urrategiraino gelditu gabe igotzea lortu nuen, arnasestuka azken maldetan baina ondo, oso gustura, Eddy Merckx Mont Ventouxko etapa gogoangarrian bezala.

Gure etxepeko bosgarren solairukoen etxean haien lehengusina bat zegoen egun haietan, udako oporrak pasatzen. Aintzane zuen izena, Elgoibarren ikasten zuen eta bederatzi urte zituen, nik baino bi gutxiago. Ile luzea zuen, gorputz argala, eta irri egiteko modu berezi bat, bihurria baina samurra. Nik ezin nuen Aintzane burutik kendu, baina ez nintzen berarekin hitz egiten ausartzen.

Behin ni, beti bezala, bizikletarekin etxe atarian gora eta behera nenbilela, aurrean jarri eta «Ezetz harrapatu» esan zidan Aintzanek, bere

irri paregabe hura erakutsiz. Nik harrapatzeko keinua egin eta gero aldamenera jo nuen, ez harrapatzeko. Zirrara handia eragin zidan Aintzaneren ateraldi hark, baina gero ez nekien zer gehiago egin harengana hurbiltzeko. Lotsatuta, urduri, beheko auzora joan nintzen bizikletan ibiltzen jarraitzera. Nik uste dut berak ere nahi zuela nire adiskide egin, baina nik izua nion haren aurrean zer esan eta zer egin jakin gabe gelditzeari.

Nire esna-ametsetan Aintzanerekin Urrategiko igoeraz hizketan irudikatzen nuen neure burua. Nire kirol balentria guztiak eskaini nahi nizkion, baina ez nekien nola.

Urrategiko aldapak nire jaiotetxe atarian du hasiera, baina Azkoitian badira Urrategiren gisako beste hainbat mendi-auzo, errepide aldapatsu baten amaieran kokatuak. Urrategi bezala igo nituen haiek ere, oinak pedal gainetatik kendu gabe: Kukuerri eta Xuxula Urrategi baino errazagoak dira; Madariagak, Elosuak eta Martittek, aldiz, aldapa gogorragoak dituzte. Baina

haietan ere nire borondatearen setakeria nagusitu zen.

Bizikletari lotutako amets eta ekintzetan aurrera egin banuen ere, Aintzaneren adiskide izateko bidean ez nuen gisakorik lortu. Gainera, aldameneko auzoko mutil koadrila bat hasi zen gure atari aldera etortzen, ohol-gazteluetan jolasteko aitzakian baina, benetan, Aintzanek erakarrita nire ustez.

Mutil haiek ni baino trebeagoak ziren neskekin harremanetan. Aintzaneri eta Arantxari –gure etxepeko bosgarren solairuko neska, Aintzaneren lehengusina– adarra jotzeko trikimailu guztiak erabiltzen zituzten: ohol-gazteluetara harriak igo eta handik harrika hasten zitzaizkien batzuetan, txokoren batean ezkutuan gorde eta bat-batean oihuka eta espantuka agerturik sekulako sustoak ematen beste batzuetan... Ez dakit orain nolakoak diren, baina garai hartan horrelakoxeak izaten ziren neska-mutilen arteko gorabeherak.

Nik, besterik ezin eta, bizikletaren eskulekuari heldu nion tinko, Aintzanerengana iristeko

ahaleginik eraginkorrena bizikleta gainean aldapa gogorrei aurre egitea balitz bezala. Banekien ez zela hori biderik zuzenena, baina modu lauso eta inozo batez pedalkadaz pedalkada Aintzanerengana hurbiltzen ari nintzela sinesten nuen, edo sinetsi nahi behintzat, eta borondate tinkoz jarraitu nuen nire bizikleta ibilaldietan mugak urratzen.

Bizikletarekin Aintzaneren herriraino joatea pentsatu nuen. Azkarateko gaina pasa eta handik behera jaitsita dago Elgoibar. Azkoitiko auzo guztiak behin baino gehiagotan igota nituen, eta pentsatu nuen jauzia egiteko unea zela. Beldurra ematen zidan, ordea, bizikletan Elgoibarraino joateak. Haraino iristea ez zen zaila, Azkarateko igoera menderatua bainuen, baina Azkaratetik Elgoibarraino jaitsiz gero, handik berriro Azkarateraino igotzeko gauza izango al nintzen? Ez al zen gehiegi izango?

Bazkalondo eguzkitsu batean ekin egin nion bideari. Zirrara handia sentitu nuen Azkarate gainetik pasa ondoren Elgoibar aldera jaisterakoan. Elgoibar, garai hartan, oso herri urruna iruditzen zitzaidan. Azpeitira, Zestoara, Zumaiara,

Urretxura eta Zumarragara iritsia nintzen nire ibilaldietan, baina Elgoibar, herri horiek ez bezala, Azkoitia inguratzen duten mendien bestaldean dago, lur bat haratago. Elgoibar beste mundu bat zen. Eta Aintzaneren herria!

Gogorra da Elgoibartik Azkarateko gainerainoko aldapa, eta oso larri ibili nintzen azkeneko kilometroetan, baina, egoskor, lortu nuen hura ere hanka lurrean jarri gabe igotzea. Neure kabuz Elgoibarraino iritsi izanaren poz beteak hartua jaitsi nintzen Azkaratetik Azkoitira.

Biharamunean, nire balentriak adoretuta eta, besteetan ez bezala, Aintzaneri zer esana banuela iritzita, bizikleta Aintzaneren aurrean gelditu eta hitz egitera ausartu nintzen.

– Ba al dakizu noraino iritsi nintzen atzo bizikletan?

– Bizikletan? Noraino?

– Zure herriraino, Elgoibarraino.

– Nork esan dizu hori? –erantzun zidan, bere betiko irri ederra agerian–. Ni Markinakoa naiz, eta Elgoibar, gainera, ez zait batere gustatzen. Elgoibarra eskolara baino ez naiz joaten.

Ez nekien zer esan, baina ez nuen beste ezer esan beharrik izan, aldameneko auzoko mutilek eten baitzuten solasaldia.

– Begira, begira, Aintzanek nobioa zaukak –esan zuen irriz mutiletako batek.

– Nobio karrerista! –gehitu zuen beste batek.

Aztoratuta alde egin nuen handik. Atzera begiratu nuenean, aldameneko auzoko mutilak Aintzane eta Arantxarekin hizketan ikusi nituen. Harrien eta sustoen bitartez, adiskidetasun patxadatsuago batera helduak ziren, itxuraz.

Elgoibarren egona nintzen inoiz, gurasoekin, baina Markina ez nekien ezta non zegoen ere. Mapa bat erosi nuen. Elgoibartik Markinara joateko beste mendate bat pasatu behar dela irakatsi zidan mapak: San Migel; eta, guztira, Azkoititik Markinarainoko joan-etorriak 48 kilometro inguru dituela, Azkoititik Elgoibarrainoko joan-etorriak halako bi.

Beldurrez ekin nion San Migelgo igoerari, baina, zorionez, uste baino samurragoak ziren maldak. Mendatearen gainetik aurreraxeago, Bizkaian sartzen ari nintzela erakutsi zidan kar-

tel berde handi batek. Zerua gero eta ilunagoa ikusteak zalantzak piztu bazizkidan ere, Aintzaneren herritik hain gertu ezin nuela amore eman pentsatu eta aurrera egin nuen. Kezka handiz baina zirrara sarkor batez jaitsi nintzen handik Markinara. Dena zen berria, dena zen misterioa, ez nekien zerekin egingo nuen topo hurrengo bihurgunearen ondoren. Markinara iritsitakoan, etxetik 24 kilometrora nengoen, aski nekatua ordurako, hodeien mehatxu gero eta nabarmenagoak estutua. Geroztik Parisen, Berlinen, Xauenen, Liman eta beste hainbat lekutan egona naiz, baina uste dut egundo ez naizela Markinara iritsi nintzen unean bezain etxetik urrun sentitu, ez sentituko ere honezkero, joaten naizen lekura joaten naizela ere.

San Migelera baino lehen hasi zen euria. Etxera iristea beste ametsik gabe eragin nien pedalei, masailetan behera euri tantoak eta negar malkoak nahasten zitzaizkidala. Irrist egiteko beldurrez jaitsi nintzen San Migeldik Elgoibarra, eta Elgoibartik Azkarateraraino igoera izugarri neketsua egin zitzaidan, amaiezina. Nekaneka eginda eta hoztuta iritsi nintzen etxera,

dardara batean. Errieta gogorra egin zidan amak («Zu ez zaude burutik sano!»), baina ez nion esan noraino iritsia nintzen.

Biharamunean ezin eman izan nion nire balentriaren berri Aintzaneri, familiarekin batera Markinara itzulia zelako, Arantxak esan zidanez. Aldameneko auzoko mutilak ere ez ziren gehiago agertu gure etxepeko atari aldean. Arantxak ez zuen Aintzanerenaren moduko ile luzerik; eta, batez ere, Arantxa ez zen kanpokoa.

Aste bereko egun batean, eguraldi askoz hobez, berriro egin nuen Markinarainoko bidea, han akaso Aintzane ikusiko nuelako esperantza inozoak adoretuta.

Bidean, Elgoibartik San Migelera igotzen ari nintzela, eskolan aurreko ikasturtean irakurri genuen ipuin bat etorri zitzaidan gogora. Ipuinean, dagoen tokitik lasterka abiatzen bada, ibiltzen dituen lur guztiak berarentzako izango direla agintzen dio deabruak nekazari bati. Laster egin eta laster egin, lur sail handiak igaro ondoren, lehengo tokira itzultzen da nekazaria, akituta, leher eginda, hilzorian. Hil baino lehen, lurrean

egindako zulo txiki bat erakutsi eta «Hauxe da behar duzun lur guztia» esaten dio deabruak.

Ipuineko nekazariak bezala, nik ere, neure bizikletan pasatu ahala inguru haiek guztiak, errepide zatiak, bidegurutzeak, mugarri eta seinaleak, bide ertzeko nahiz harantzaxeagoko baserriak, baratzeak, pinudiak, sagastiak, gerezindoak, zelaiak, errekazulo eta muinoak, denak neure egiten nituela sentitzen nuen, barruraino neure. Baina, ipuineko nekazaria ez bezala, neure gorputza kontrolatzeko gai nintzen, etxera onik eta osorik iristeko gauza, nire bizikleta fidelaren laguntzarekin.

Ez nuen Markinan Aintzane ikusi. Baina hurrengo egunetan ere bizikletan inguruko eta ez hain inguruko herrietara eta auzoetara joaten jarraitu nuen, bizikletaren eskulekuari estu atxikia. Neure egin nituen Eibar, Deba, Zarautz, Andoain, Tolosa, Beasain, Arrasate eta horien inguruetako auzo eta herri txiki eta handi, mendate eta errekazulo, baso eta zelai, errepide eta bazter guztiak, gaur egun ere, Markina bezalaxe, halaxe sentitzen ditudanak, barruraino neure.

Ez nuen Aintzane gehiago ikusi, ez uda hartan eta ez geroago ere.

Behin lagunartean neska kontuetan ari ginela, ea nik andregairik banuen galdetu zidan lagunetako batek. Lotsaturik, ez nekien zer esan, baina ez nuen ezer esan beharrik izan.

– Honen andregaia bizikleta duk –esan zuen beste lagun batek.

2003ko irailak 28

Pertsona zoriontsua lau aldeetatik maitasunez inguratutako animalia da. Atzean (iparrean) lehengoen maitasuna du, ezkerrean (mendebaldean) adiskideena, eskuinean (ekialdean) sexulagun(ar)ena, aurrean (hegoaldean) oinordekoena. Oso ondo ez dakidana da nondik datorkidan niri zoriontasunari diodan higuina, maitasunari diodan mesfidantza.

2003ko azaroak 6

HORTXE BERTAN, URRUN

Negar egiteko tenorea
eta negargurarik ez.
Urrun dago dena,
unerik dardartienean ere
urrun
laztandutako larrua,
besarkatutako soina,
barru-bide abegikorrak.
Negarrik ez.
Eta gizon oso bat berriro,
sendo, trinko, prest, jantzia.
Negarrik gabe.
Hortxe bertan, urrun.

2003ko azaroak 7

Ohar-koaderno honek idazle barik irakurle banindu, etenik gabe ariko nintzatekeen nire bizitza sexualaren inguruko hipotesiak egiten. Etsi ezazu, irakurle, alferrik ari zara. Ezer gutxitan asmatuko nukeen.

2003ko azaroak 15

– Zer nahi duk ba jartzea? –galdetu zidan kamareroak, musika aldatzeko eskatu nionean.

– Zerbait tristea jar ezak, alaitasuna bestela ere nahikoa eta gehiegi zagok eta bazterretan.

2003ko azaroak 26

EZER HAUTSI GABE

Zaila da ezer hautsi gabe
entzuna izatea.
Zaila da ezer hautsi gabe
nork bere burua ondo adieraztea.
Zaila da ezer hautsi gabe
ezer izatea.

Hala ere, batzuetan,
usterik gutxienean,
ingurukoari leun heldu
eta mundua, bizitza
arrotz zaizkigun
jostun-esku trebez
irun, irun eta irun,
iraun, iraun eta iraun
egiten dugu, egiten dugu
egiten dugu, ezer hautsi gabe.

2003ko abenduak 16

Miopia ikustea galarazten didate betaurrekoek.

2003ko abenduak 18

MAITASUNA MENDIAN GORA

Bi urte generaman Lola eta biok elkarrekin, eta oso gustukoa genuen oporretan bidaiatu eta bazterrak ezagutzea. Oporraldi haietako azken eguna genuen, eta bertakoek Maitasuna deitzen zioten mendia igotzeko baliatu nahi izan nuen nik egun hura. Lolak ez zuen oso gogoko izan nire asmoa, ez baitzen oso mendizalea, baina aise etsi zuen esan nionean mendiak bost kilometroko igoera leuna baino ez zuela eskatzen.

Maitasuna mendiaren magalera iritsitakoan jakin genuen gailurrera eramaten zuen kamio estu baina egokia zegoela goraino; aukera genuen, beraz, Maitasuna mendira autoan igotzeko. Zerua goibel zegoela eta hobe genuela autoz igo esan zidan Lolak, baina oinez abiatu ginen hala ere. Autoan igotzea mendiari eta bere izenari irain egitea izango zelako ideia ergela erne zitzaidan barruan, eta tematu egin nintzen.

Kilometro eta erdi inguru ibilia genuelarik, euria hasi zuen, aurretik espero zitekeena baino

indar handiagoz hasi ere. Ez oso aspaldi pneumonia baten ondorioz gorriak ikusi zituela ekarri zuen gogora Lolak, abiapuntura jaitsi eta mendira igotzeko autoa hartzeko proposamenari indarra emateko. Nik, ordea, aurrera egin nahi nuen, eta esan nion ez genuela arriskurik, asko jota ere bi orduren buruan hotelean egongo ginela.

Gero eta zakarragoa egin zen eztabaida. Bidearen erdi aldean edo geundela, abiapuntutik nahiz gailurretik bi kilometro eta erdira, Lolak, haserre, behera egitea erabaki zuen. Nik gora jarraitu nuen, lasterka tarte batzuetan, eta ez nuen gero gailurrean ere egonaldi luzerik egin. Ez nengoen lasai, ez nengoen gustura.

Beherakoan, Lolak buelta hartzea erabaki zuen lekura iristear nintzela, neurearen oso antzeko auto bat ikusi nuen behetik gora igotzen. Harri eta zur, neurea zela jabetu nintzen, eta eskuineko aulkian Lola zetorrela. Kolperik handiena txoferra nor zen ikustean hartu nuen hala ere: neu, edo neure guztiz antzeko norbait bestela. Mugitzeko gauza ez nintzela geratu nintzen autoari zein autokoei begira. Lasai eta pozik ziruditen, zoriontsu, eta niregan erreparatu gabe egin

zuten aurrera, une labur batez Lolak niri begiratu zidala iruditu zitzaidan arren.

Autoa begien bistatik galdu eta gero ere kostatu zitzaidan erreakzionatzea. Behera egin nuen, baina mantso, ordura arteko presak alde batera utzita. Atzetik, goitik beherako bidean, auto bat zetorrela entzuten nuen bakoitzean, atzera begiratzen nuen, ea nirea zen.

Ibilaldiaren abiapuntura iritsi nintzenean, lehen utzitako leku berean aurkitu nuen autoa, eta barruan Lola zegoen, arropak aldatuta. Irri egin, besarkatu eta musu eman zidan, eta baita barkamena eskatu ere, horren egoskorra izateagatik. Nik esan nion neu nintzela barkamena eskatu beharrean zegoena, nire egoskorkeria askoz ere baldarragoa, gaiztoagoa eta egoistagoa zelako berea baino.

Beste bi urtez ibili ginen elkarrekin Lola eta biok. Haserre nahiz min handirik gabe banandu ginen gero. Berak bezala, nik ere ezagutuak ditut, bai lehendik eta bai harrezkero, maitaide hobeak. Berak bezala, nik ere biziak ditut gu bion artekoa baino amodio sutsuagoak, sendoagoak eta iraunkorragoak. Hala ere, samurtasun

handi batek estutzen dit barrua autoan Maitasuna mendian gora zihoan bikote haren irudia gogoratzen dudan aldiro.

2004

2004ko urtarrilak 10

Munduaren ondoan bizi naiz.

2004ko urtarrilak 12

Lizardiren *Mendi-gaiña* poemaren hasiera, hegaztiaren begian: «Maite ditut gaillurrak / argiak ez beste... / Ai, pertsona banintz / pausoz pauso nenbilke!».

2004ko urtarrilak 30

Bete-betean huts egin.

2004ko otsailak 3

GORRIRIK ETA ORTISIER

Ezer jantzi gabe irten ziren, aspaldi, nor bere etxetik, Gorririk eta Ortisier. Ez dira harrezkero jantzi eta ez dira harrezkero nor bere etxera itzuli. Elkarrekin dabiltza, biluzik beti, hortik zehar.

2004ko otsailak 14

Orain ezetz uste arren, ahaztu egingo duzu inoiz lerro hauek irakurri dituzula. Liburu osoa ahaztuko duzu. Ahaztu idazlea ere. Baina idatzi egin behar nuen. Eta irakurri egin behar zenuen.

2004ko otsailak 16

Bizitza baldin bada ondasunik handiena, bizitza osoki hurkoaren aldeko ongintzari eskaini nahi dionak pentsa dezake, bizitzaren aldeko jarrera muturreraino eramanez, mundura ahalik eta pertsona gehien ekartzea lehenetsi behar duela, aurretik etorriak garenon onurari, plazerari eta zorionari eskainitako lanak eta nekeak baztertuta horretarako; bere onurari, plazerari eta zorionari eskainitakoak barne, jakina.

Munduan izan diren iraultzaile eta misiolari handi eta sakrifikatuenen gainetik kokatuko litzateke, ikuspuntu horretatik begiratuta, jokabide horri zintzotasunez eta bere gorputzaren azken aukeretarainoko ahaleginez lotutakoa. Ez litzateke funts logikorik gabea sinestunak xede horretara mugarik gabeko suhartasunez bultzatuko lituzkeen erlijioa; ondoriozko ezintasun eta oinaze guztiak egonarriz, etsipenez eta irmotasun estoikoz eramaten lagunduko lukeen fedea.

Ez dut, hala ere, sekula horrelako konturik entzun edo irakurri, ezta film edo nobela bateko planteamendu gisa ere. Harrigarria da.

Jose Saramagok, esaterako, nobela ederra idatziko zukeen, berari bururatu balitzaio.

* * *

TELE-ZABORRA ASKATASUNA DA

Azken hilabeteetan utzi egin diot ezkertiar eta progre izateari. Orain ez naiz koherentea, ez dut koherente izan beharrik sentitzen. A zer arindua!

Lana egiten dut, diruagatik, ez naizelako aberatsa eta beste erremediorik ez dudalako. Baina orain lanetik kanpoko orduak moralik eta betebeharrik gabekoak ditut guztiz. Libreak!

Horregatik orain, duela bospasei hilabete ez bezala, telebista daukat etxean, eta kezkarik, beldurrik eta erruduntasun sentimendurik txikiena ere gabe ematen ditut orduak haren aurrean,

zoriontsu. Gaueko ordu txikietan batez ere, lerdokeriaren neurriak gora egiten duenean. Orgasmoetan bezala izaten da: uneak harrapatzen zaituenean, inoizko gorenera iritsi zarelako irudipena duzu, laino guztien gainetik, muga guztietatik haratago, gaindiezinezko puntu ezin goitarragoraino.

Nahi dutena esango dute, baina tele-zaborra deitzen duten hori oso eskergarria da, oso aberasgarria, eta batez ere laguntza handia ikuslearen barne-oreka psikologikorako. Ni behintzat asko lasaitzen nau mundu honi –hain injustua, hain desorekatua, hain gordina, hain ankerra, nahi duzuen guztia...– telebistaren leihotik begiratzeak.

Ez baitago tele-zaborra deitzen duten horretan agertzen diren lerdo horiek guztiak batera beren miseriarik lohienak haizatzen ikustea bezalakorik norberaren burua betebehar moralaren alferrikako zama astun eta absurdutik askatzeko. Horienak ikusi ondoren, zer dira ba norberaren miseria guztiz xume, arrunt, inozoak? Txikikeriak, umekeriak, deus ez. Eta areago: lerdoago izateko gogoa pizten zaizu. Ez da erraza, baina

horiek guztiak bezain lerdoa eta higuingarria banintz, zer? Hobe! Baliatu! Atera zukua eta segi aurrera! Zergatik ez ba? Nor demontrek eta zer arraioren izenean jarri behar dizkit ba mugak?

Gustura oheratu ohi naiz, lasai, irri zabalez. Lehen, ezkertiarra eta progrea nintzenean, ia-ia intelektuala, *Krimena eta zigorra* eta horrelakoak irakurtzen nituen. Orain tele-zaborra ikusten dut. Ez dago kolorerik! Tele-zaborra Dostoievski baino askoz ere eraginkorragoa da. Tele-zaborrak askoz libreago egiten nau. Tele-zaborra askatasuna da.

* * *

Kirolariaren benetako poza irabaztea da, ez behiala irabazi izana, hain gutxi garaikurra. Gisa berean, idazlearen benetako poza idaztea da, ez behiala idatzi izana, hain gutxi testua. Funtsean, idatzitakoak ez baitu ezertarako balio, garaikurrak ere ezertarako balio ez duen bezala. Orobat, ezertarako balio gabeak dira behiala idatzi edo irabazi izana ere. Behiala maite izana edo maitatua izana bezalaxe.

2004ko otsailak 18

Hunkitu egiten naute prentsaurrekoek. Kulturaren arlokoek behintzat. Hor du aurrean kazetariak sortzailea, behiala barruan indar menderaezinez erne zitzaion aspaldiko ilusio oro-irensle hura lanaren bide malkartsuetan taxutu ondoren, obra plazan erakustera irtena, maiteen duena pozik eta eskuzabal eskaintzen.

Baina kazetariarentzat bat gehiago da artista, medikuarentzat eria izan ohi den bezala, adibidez.

Eta are hunkigarriagoa bihurtzen du prentsaurrekoa kazetarion hoztasun baldar disimulatuak.

2004ko otsailak 29

Elkarrekin lotuta, errepide guztiak errepidea dira. Antzeko gisan, errepidea bezala, une batzuetan guztiz irekia sentitzen naiz, aukera eta maitasun guztietara zabalik. Ona sentitzen naiz, edonoren lagunik adiskideena, barrukoena, mamiena, minena, muinekoena. Poesia sentitzen naiz, bizitza egoerarik garbienean, xehetasun prosaiko trabagarri ororen gainetik. Beste hitz batzuekin esateko, modu autoironikoagoan: James Deanen begirada galduaren jabe. Guapoa eta guzti sentitzen naiz, barruko indarraren poderioz. Gezurrezko egoera izanik ere, ilusio hutsala, zirrara hori aberastasun handitzat daukat. Zer nintzateke, izan ere, hori gabe, horrekin ere ezer gutxi naizen hau?

* * *

Justizia, onenean ere, bi injustizia edo gehiagoren arteko hautua izaten da.

2004ko martxoak 2

Hilotzez betetako zoriona.

2004ko martxoak 17
HILOTZEZ BETETAKO ZORIONA

Ez dakit zer burutaziok eraman ninduen martxoaren 2an nire koadernoan ohar hori idaztera: «Hilotzez betetako zoriona». Uste dut Morauren *Txukalda* disko berriko *Gure zoriontasuna* kantuko hitzen ondorio izan zela, neu konturatu gabe, ohartxo hura. Aho bizarrik gabeko hitzak Morau-renak!

Egun batzuk geroago, martxoaren 6an, Euskal Herriko hainbat arazo politikoren inguruan hizketan, esaldi biribila bota zidan adiskide batek: «Estatua duk biolentzia egoera puru-puruan». Nork uka dezake hori?

Martxoaren 11n, berriz, ondo gogoan izango duzuen moduan, hilotzez bete zen telebista.

Ez dut martxoaren 11n Madrilen izandako atentatuen inguruan zentzuzko hitz askorik entzun harrezkero. Arnaldo Otegiren erreakzioa goraipatu dute askok, zorionak eman dizkiote;

baina Otegik ere ez dio erantzunik eman egin behar litzaiokeen –eta inork egin ote dion ez dakidan– galderari: non dago muga? Zilegi bekit demagogia pixka bat (han eta hemen ikasia), galdera hau egiteko: pepita-saltzaile bat bere denda koxkorreko mostradore atzean tiroz josita zerraldo uztea, adibidez, asko jota, konpondu beharreko gatazka baten testuinguruan kokatu beharreko gertaera deitoragarria al da, pepita-saltzailea PPko zinegotzia baldin bada Zumarragan?

Batzuen ikuspegitik begiratuta –eta ez guztiz logikarik gabe–, ez al da gutariko edozein –dela El Pozo del Tío Raimundokoa, dela Txakurzulokoa– ETAkide batentzat PPko zinegotzia izan daitekeena bezain *garbigarria*, mundu mailako esklabotasun globalizatuak aberastutako Mendebaldeko gizarte zapaltzaileko kide garenez, gizarte hori gure lanaren eta kontsumoaren bidez indartzen dugunez?

Non dago muga? Zoritxarrez, Estatua da benetan mugak jartzeko ahalmena duen bakarra, ez alferrik baita «biolentzia egoera puru-puruan». Gertuko adibide bat jartzearren: nola

egongo ote da Julen Atxurra artikulu honek argia ikusten duenean?

Nik ere pena eta amorrua sentitu dut telebistako irudiei begira. Eta, aitor dezadan, beldurra ere bai: 2001eko irailaren 12an, leihotik aeroplano txiki bat ikusi eta etxearen kontra jotzera etorriko zela pentsatu ez nuen ba, pilotu suizida batek gidatuta!

Baina gure zoriona lehenagotik zegoen hilotzez kartoletaraino beteta.

2004ko martxoak 21

Batzuetan ez, batzuetan ez naiz James Deanen begiradaren jabe sentitzen.

2004ko apirilak 24

Nahiko gustura ari naiz lanean, ondo moldatzen naiz lankideekin. Baina batzuetan inbidia diet futbol jokalariei, ez diru asko irabazten dutelako, taldearen aldeko beren ahalegina gorputzez, fisikoki, adierazteko duten aukeragatik baizik. Gorputza azken muturreraino behartuz eta bihurrituz errematatzen saiatu ondoren –gola sartu edo ez berdin dio, hori da gutxienekoa–, inertzia zoragarri batek darabil futbol jokalaria, airean noraezean lehenik, belar gainean kontrolik gabe bueltaka gero. Barruan zuen guztia eman du eta ez da jada bere buruaren jabe. Une horretan, fisikoki ere, ez da bere baitakoa.

2004ko apirilak 27

ZEDARRITU GABEKO ETXE ATARIAK

Zedarritu gabeko etxe atariak,
xederik gabeko haurtzaro puskak,
emaitzarik gabeko jolasak.

Jolastegietatik kanpo,
ikastegi ororen aurka,
mundua araurik gabe.

Oraindik ere bai, batzuetan.

2004ko maiatzak 4

Betiko kezka, betiko galdera: egoki kudeatzen ari ote naiz barruan daukadan maitasun apurra?

2004ko maiatzak 9

Hilerriaren sarrerarako errotulua: «Hemen ez da inor bizi».

2004ko maiatzak 30

Dudak eta damuak, nire betiko mamuak. Urtaroak nire minetan: Dudaberria, Duda, Dudazkena eta Damua.

2004ko ekainak 1

Plazerak plazer, pozak poz eta bizitzaren ibilbidean zehar izaten ditugun garaipen txikiak gorabehera, azkenean, azken beltzean, azken beltz ezinbestekoan, beti heriotza dela garaile esan nion adiskide bati.

Adiskideak, ordea, ziurtasun harrigarriz erantzun zidan ezetz, behin eta berriz ezinbesteko garaile irteten dena bizitza dela.

Lehenik harritu eta ondoren hausnartu ostean, arrazoia zuela esan nion. Baina ez dut lortu arrazoia balu bezala bizitzea.

Ez gara geure baitakoak, eta ederra da hala pentsatzea. Baina ez nau kontsolatzen neurea ez den bizitzak.

2004ko ekainak 8
AUKERAK

Heriotza gurtzea
ez da beldurgarria,
heriotza gurtzea
zilegi da.
Bizitzari lotzeko
modua ere izan daiteke,
bizizalearen aukera
errespetatzen bada.
Bestela ez.

Ezkorrak eta uzkurrak,
itunak eta ilunak,
hitsak eta hutsak
izan arren, itxiak
ezin gara izan.
Gutxiegi dakigu horretarako.
Gutxiegi dakigu beste ezertarako.

2004ko ekainak 12

Azkeneko zortzi-hamar urteetan ia-ia egunero gosaltzeko erabili dudan katilua apurtu zait gaur goizean, sukaldeko mahaitik harraskara neramala. Une honetan, laster oheratzeko naizela, ez dakit bihar zer katilutan hartuko dudan gosaria. Bai abentura gogor eta zirraragarria dela bizitza!

2004ko ekainak 13

Ados gaude. Oker, beraz.

2004ko ekainak 16

Maitemina eta eromena. Maitamena eta eromina. Maiteromina. Maiteromena. Maiteromin-mena.

2004ko ekainak 18

Inoiz ez du inork nik idatzitako ezer neuk bezala ulertu. Irudipen hori daukat behintzat. Eta inoiz halakorik gertatuko den itxaropen handirik ere ez honezkero. Baina hala ere nik idatzi egin behar dut, eta zuek irakurri egin behar dituzue nik idatzitakoak.

2004ko abuztuak 5

Garbigailua, sukaldea edo hozkailua mugitzean, etxe-tresnaren atzealde ilunera aspaldi erori eta bertan lizundutako zikinkeriak geratzen dira agerian. Jakineko kontua izanagatik ere, kezka domestikoen esparrutik haratagoko izu arrazoirik gabekoa eragiten dit beti une horrek, barru-barruan.

2004ko abuztuak 6

Ez da, horrela esanda, oso poetika ortodoxoa izango, baina niretzat poesia, funtsean, eder sentitzeko modu bat da; eta batzuetan kasik soil-soilik guapo.

2004ko abuztuak 14

Filmetako pertsonaiek ez dakite film bateko pertsonaiak direna. Ezjakintasun inozo hori ez da sinesgarria. Benetako pertsonek oso ondo dakigu film bateko pertsonaiak garena.

2004ko abuztuak 17

Kezka batetik bestera bizi naiz, ezinbestean. Normala den moduan, ez ditut kezka larriegiak maite; eta ezinean eta munduarekin haserre sentitzen naiz kezkak pilatzen zaizkidanean. Baina inoiz kezkarik gabe geratuz gero berehala bilatzen dut bat, kezkarik gabe ez baitakit bizitzen, kezkarik gabe nekez baitu benetako funtsik nire bizipozak.

Kezka batzuk oso atseginak zaizkit; bakarra eta menpekoa dudanean sentitu ohi naiz lasai, gustura, munduarekin bakean. Baina batzuetan, zergatik ez dakidala, horrela sentitzeak berak ere kezkatu egiten nau.

Kezkei neurria hartzea da –geure esku dagoen neurrian behintzat–, ondo sentitzeko dugun biderik egokiena. Baina bihurria da, atzematen zinez gaitza, bizi gaituzten kezken atarramentua.

2004ko abuztuak 18

Idaztea, besteak beste, berak maite duenak bera ez duela maite jakin berri duenaren erreakziorik berezkoenetako bat da.

2004ko irailak 10

Gauean, kaleak isilik direla, aparkatutako autoei eman diet arreta. Zein bere txokoan geldirik daude, handik gertu atseden hartzen egongo bide den jabearen zain, eta ez dute ezer eskatzen. Halaxe geratuko lirateke jabea inoiz etorriko ez balitz. Harrigarria gertatu zait gauez kale isiletan aparkatutako autoen otzantasun erabateko hori. Ez zuten inondik inora ere autoak ematen.

2004ko urriak 9

IDAZLEA IDAZLE

Egoa ebaki banio, ez zen gehiago idazle izango.

2004ko urriak 19

Goizaldeko hirurak dira eta esna nago, ohean bueltaka aritu ondoren jaiki eta ordenagailuaren aurrera etorrita. Beste batzuetan gertatu izan zaidan bezala, ohean loak ezin hartuta nengoela, mendi buelta batzuetan ezagututako lekuak etorri zaizkit burura, aspaldi ikusi ez ditudan leku zehatz batzuk; ez, itxuraz behintzat, bereziki ikusgarri edo enblematikoak: Santa Marinatik gertu dagoen baserri abandonatua, Aldaolasko bailaran; izena oroitzen ez dudan baseliza zaharra Listorretatik gertu, Aldura Txiki mendiaren magalean; behin baino ikusi ez dudan eta nolakoa den oroitzen ez dudan Kizkitza eta Izazpi arteko bideko gune zabal bat...

Adiskide minen moduan oroitu ditut leku horiek eta beste asko: aspaldian ikusi gabeko adiskide abandonatuak. Estutu egin nau leku horietan oraintxe bertan egon ezinak, berriro leku horietan noiz eta nola izango naizen ez jakiteak. Ezin ordainduzko zor baten zama sentitu dut, ezintasun baten mina, galera baten zantzuak...

2004ko urriak 20

Adiskideak gogoan berriro gauaren bakardadean: iturri txikia Santa Barbaratik Irimora igotzen den bidexkan; aldare baten antzeko zuloa Andutz mendiaren magalean, Bilbo eta Donostia arteko autobidetik oso gertu; hegazkin istripuan hildako faxisten omenezko hilarria Madariagatik gora, Urnobitza mendiko tontorrera heltzear... Ezin ordainduzko zor baten zama, ezintasun baten mina, galera baten zantzuak...

2004ko azaroak 5

Injustiziaren aurrean justua izateko, ez dago injustiziaren jatorrizko iturburuaren bila jotzea bezalakorik. Baina, horretan saiatuz gero, aurreneko ur-batzean egiten digu eraso zalantzak: zein da ibai-enborra?; zein da ibai-adarra? Injustizia ugari ezagutzeko aukera ematen du injustizia baten iturbururainoko bideak, amaierarik gabeko ikerketa labirintikoan; ibai baten iturbururainoko bideak ibai ugari ezagutzeko aukera ematen duen modu berean.

Eta azkenean, nahi ezta ere, igeri egiten irakatsi zigun ibairakoa dugu isuria.

2004ko azaroak 21

Euria ere aterpe bila.

* * *

Hemen, euria ari du. Ispiluan, ud ira airue.

2004ko azaroak 26

Urte askoan irakurri ditudan iritzi artikulu eta saiakera ezkertiar guztien eragina agerian du nire aurrean paratzen denak, buruko ile batzuen kizkurtze nahasi eta itxura argiro errebeldekoan. Ondo pentsatuta, gutxi ere ez da, bizi garen garaian. Ezkertiar asko dira, ile gabeturik, horretarako ere aukerarik ez dutenak.

2004ko abenduak 1

Anemonak, barbarinak, itsasbelar forma hartzen duen sabelpea... *Biluzik*, Kirmen Uriberen ur azpiko poema sentsuala, Mikel Urdangarinen ahotsean... Bejondeiela, benetan! Baina, gaitz baten gisa, arrazoi jakinik gabeko ezintasun ikaragarri batek banantzen eta urruntzen nau edertasun ezin argi eta gardenago horretatik, arrotz sentiarazi arte.

Ez dakit zer den. Baina nahita ere, ezin, ezin, ezin.

2004ko abenduak 4

Anemonak, barbarinak...
Platelmintoak, nematelmintoak...

2004ko abenduak 5

Baraurik, janarekiko nazka hutsagatik.
Biluzik, arroparekiko nazka hutsagatik.
Bakarrik, jendearekiko nazka hutsagatik.

2004ko abenduak 15

Bikotekide den unetik, bikotekide denez, bikotekidearekin nahiago izan behar. Baita nahi ez bada ere. Nahitaez. Nahi izan behar dena nahita ere ezin nahi izanaren nahigabea datorren arte. Eta orduan, zer nahi duzue?

2004ko abenduak 27

Etxe normal batean bizi naiz. Dutxa hartu dut, bizarra kendu, gosaldu... Eta orain, kalera irten baino lehen, galtzerdi normalak jantziko ditut, galtzontzilo normalak, galtza normalak, oinetako normalak, elastiko normala, jertse normala... Horrela irtengo naiz, normaltasun osoz. Eta berriro iluntzean etxera itzuli arte, normal agertzea izango da nire kezka eta ahalegin guztien oinarria eta ardatza.

2005

2005eko urtarrilak 12

Autoa ondo aparkatu dut, horretarako ezarritako marren barruan, lasai lo egiteko. Gauaren erdian motozale batek ustekabean auto geldiaren ertz bat jo, airean ziztu bizian jaurtikia irten eta kaskezurra mila puskatan hautsiko balu ere, nik errurik ez dudala izan esateko moduan.

2005eko urtarrilak 17

Lantzean behin saltoki gune handi batean sartzen naiz, ezer erosteko asmorik gabe, oraindik ere horrelakoetan, jende artean galdu eta ezereztua, aurrean harrapatzen dudan guztia txikitu eta jende guztia banan-banan tiroka hiltzeko gogoa sentitzen dudala baieztatzeko. Lasaitu egiten nau horrek. Oraindik ere zerbait-zerbait gelditzen da.

2005eko otsailak 5

Arkumetxo txuri goxoa belaze garbian jauzika ikusirik bihotza samurtzen zaidala sentitu orduko, kezka ilun batek hartzen nau, errudun sentimendu lauso batek erasotzen. Ez noiz edo noiz arkume okela jana naizelako; mundura umerik ekartzen lagundu ez dudalako baizik.

2005eko otsailak 24
PERTSONAREN ERDIAN

Gure gauek elkar besarkatu zuten.
Bi gau elkarren ilunak indarrez belzten,
bi gau elkarren hutsarteak bortizki zulatzen,
bi gau elkarren amildegiak mugarik ezeraino sakontzen,
pertsonaren erdian.

Gero, pertsona egunaren argira joan zen.

2005eko martxoak 5

Egia ez dago Erdian. Baina muturretako gezurrak askoz aiseago nabarmentzen dira; Erdikoa diskretuagoa da, disimulatuagoa. Horregatik, Erdia erosoagoa da. Eta beharbada gezurragoa.

2005eko martxoak 20

Poza sentiarazten dit lehen urrundik ikusi dudan leku batera iristeak; baita orain urrundik ikusten dudan leku batean izana naizela pentsatzeak ere. Frustrazio sexualaren sublimazio ergel eta txoroa izateko itxura guztia du, baina ez daukat saltzeko poz txoropito hori, ez horixe!

2005eko martxoak 21

Markos Zapiain adiskidearen blog abandonatuko txoko batean utzitako mezua: «Beste gauza askori bezala (trenbideak, fabrikak, baserriak, autoak, itsasertzean hondoratutako ontziak, amoranteak...), blogei ere edertasun poetiko esanezina eransten die abandonuak. Hori izan al duk buruan, Markos, blog hau horrenbeste denboraz ez ukitzeko erabakia hartzerakoan? Hala izan bada, bete-betean asmatu duk; eta hala izan ez bada, are betetasun handiagoan».

2005eko martxoak 24

Ez nago. Edo nahiago nuke behintzat ez banengo.

2005eko martxoak 28

Begirada haratago eramateko gogoa, begi bistakoari ustekabeko pitzadurak eta zirrikituak bilatzeko sena, inork inoiz inola ere ezin pentsatuko zukeena egiteko malezia gordea. Horixe dut altxor bakarra.

2005eko martxoak 31

Literaturaren historiako poetarik tristeena izan nahi nuen. Eta akaso izan naiz, edo banaiz, edo izango geroago. Baina inoiz ez da ziur eta zehatz jakiterik izango. Horregatik orain, zentzudunago eta helduagoa izaki, neure adinarekin bezala garaiarekin ere bat eginez, Tristuraren Museoko edo Etsipenaren Interpretazio Zentroko zuzendari izatea dut amets eta xede.

2005eko apirilak 1

Hara zertan harrapatu dudan neure burua: Lucía Etxebarria idazlea (*Amor, curiosidad, prozac y dudas* nobelaren egilea) sexualki erakargarria zaidala adierazteko modu distiratsu baten bila, distira horri esker aitorpena ohar-koaderno honetan sartzeko baimen literarioa irabazteko. Oraindik horrelakorik! Jakina, berehala moztu diot bidea bilaketa absurdu horri.

2005eko apirilak 2

Kontzientzia, kontzientzia eta kontzientzia, besterik ez naizela dirudi. Eguna joan eta eguna etorri, egun osoa neure kontzientziarekin ondo portatzen, egun osoa egin beharrekoa egiten, ahalik eta ondoen, ahalik eta aberatsen, ahalik eta baliagarrien.

Kontzientziari kanpotik begiratzera ausartzen den ironia ere zuhur zaindua daukat, mugatua, etxekotua, onbideratua. Kontzientziatua.

Onaren onez gaizki bizi ote naiz ba? Ez zait iruditzen. Ez nau itotzen kontzientziak, ezta hurrik eman ere. Bizi nauten zoroetako bat da kontzientzia, nire kontzientzia gaizki definitu eta trakets hau, nire kontzientzia inkoherente eta aldrebes hau, nire kontzientzia alde guztietatik barruraino arrakalatu hau, zabortegi lohitsuan kausitutako zapata zahar kiderik gabeko baten antzeko nire kontzientzia desfuntsatu hau, inoren aurrerako esplikaezin eta lotsagarri izateraino pertsonal eta aldakorra, itxuragabea; eta zinez eta pozez bizi nau.

2005eko apirilak 12

– ¿Señores de Zabala?

– Mmm... Sí... bueno... sí, yo... soy Zabala...

– Soy Ana, le llamo de la compañía de seguros Ocaso...

Ilunabarrera bidean da nire bizitza. Ez dut zuen zerbitzuen beharrik, baina eskerrik asko, Ana, abisuagatik.

2005eko apirilak 13

Eta... zer moduz kontu txikiak?

2005eko apirilak 14

Autobide ertzeko paraje ezkutu horiek, ez herri eta ez mendi diren mortu pneumatiko lohituz zipriztindutako horiek, aspaldi abandonatutako industrialdeetako pabiloi izugarrikeriaraino huts horiek... Horiek ez badira, zer? Horietan eskaintzen dit bizitzak, giza-arpilaketa eta erru banaketa guztietatik babesean, haurride sentitzeko leku bat, gune amniotikoa.

2005eko apirilak 21

Ederra da inoiz izan gabeko leku batera iristea. Baina baita leku ezagun batera inoiz ibili gabeko bide ezezagunetik iristea ere. Eta zenbait lekutan izatea beti zaigu eder eta hunkigarri, haraino edonondik edo edonola iritsita ere, horren maiteak ditugu.

Lekuei buruz bezala, pertsonentzat ere balio du esan dudanak. Mutil koxkorretan zailtasun handiak izan nituen pertsonekin ondo moldatzeko, eta bizikletarekin egindako ibilaldi bakartietan ezagututako lekuei eman nien pertsonei ezin eman nien atxikimendua eta maitasuna. Harrezkero, lekuak ia-ia pertsonak dira niretzat.

2005eko apirilak 27

BIZI NAHI

Ezinak, ezinak eta ezinak.
Ezinegona eta egonezina:
ezin egon eta egon nahi;
egon eta ez egon nahi.
Ezinizana eta izanezina:
ezin izan eta izan nahi;
izan eta ez izan nahi.
Ezinbizia eta biziezina:
ezin bizi eta bizi nahi;
bizi eta, nahi gabe ere,
bizi egin nahi, beti bizi nahi.
Ezinak, ezinak eta ezinak.

2005eko maiatzak 6

Ibiltzeak beti du norbera benetan dagoen lekura iristeko esperantzatik zerbait. Ibiltzeak beti du norbera benetan dagoen lekura iristeko beldurretik zerbait.

2005eko maiatzak 22

Txukundu egin behar dut nire bizitza; zoruei lanbasa pasatu, altzariei hautsa kendu, leihoetako kristalak gardendu, komuna lixibaz igurtzi. Garbigailuan sartu behar ditut nire bizitzaren galtzontzilo, galtzerdi eta barruko elastiko zikinak. Tipula, azenario eta piper berde xehatuak jarri behar ditut nire bizitzarekin batera egosten eltzean. Txukundu eta hornitu egin behar dut nire bizitza, abegikor bihurtu, ahaideei, adiskideei, maitaleei, besteei harrera egiteko. Eskaini egin behar dut nire bizitza, partekatu, bestela ez baita bizitza izatera ere iritsiko.

Kemena falta zait, ordea, benetako ilusioa, hori guztia fedez eta ganoraz egiteko. Alfergura existentzialak deuseztatzen nau, etsipen gozoan laketua.

Ondo sentitzeko, funtsezkoak ditut harreman afektiboak: familia eta ahaideak, lagunak eta adiskideak, amodioa eta sexua... Baina hori guztia ez dut nire bizitzaren mami eta ardatz egiten. Ikara ere eragiten dit aitortzeak, baina neure bu-

ruarekin ondo sentitzeko tresna edo bitarteko dira harreman horiek guztiak, ez benetako helburu. Benetan gustura, benetan neu, bakarrik nagoenean sentitzen naiz. Neure artean.

2005eko ekainak 26

Musu bat. Zeuk erabaki non pausatu.

2005eko ekainak 30

La vie. Y no la conocí.

2005eko uztailak 10

Gizarte polizial baterantz. Zuhaitz izan eta basoa indartu behar zutenak, txarrantxa teinkatzen duen hesola ilara zuzen bihurtuak.

2005eko uztailak 27

Hemen, orain, inork inoiz irakurriko ez duen ohar ezkutu honetan, literatura unibertsalaren oihan oparo eta gizaki bakarrarentzat osorik ezin atzemanaren barruan galdutako txoko ezezagun honetan, biok bakar-bakarrik gaudela baliatuz, maite zaitudala adierazten dizut, zintzotasun osoz.

2005eko uztailak 29
AUTOSUNTSIKETARAKO LIBURUA

Autolaguntzarako liburu gero eta ugariagoen arrakasta iraingarriaz nazka-nazka eginda, erraietatik sortutako aurkako erreakzio moduan, *Autosuntsiketarako liburua* idaztea erabaki zuen. Gauzen alderdi onenei begiratzen ahalegindu ordez, izaeraren absurduari zuzenean erreparatzea proposatuko zuen; gauza txikien edertasun xumean babesa bilatu ordez, gorrotoaren pozoia izatearen alderdirik ñimiño eta ezdeusetaraino zabaltzea, horretarako dauden arrazoi guztiz logiko eta ukaezin ugariak banan-banan eta gupidarik gabe aletuz.

Etsi egin zuen, ordea, berak buruan zeukan hura, ibili-ibili eginda, autolaguntzarako beste liburu bat gehiago baino ez zela izango jabeturik, azalez bakarrik bestelakoa.

«Azken batean», pentsatu zuen bere artean, «Cioran, Pizarnik edo Bernharden liburuek, esate

baterako, autosuntsiketarako liburu sendoak izanagatik ere, sekula ez dute aurretik suntsituta inguratzen ez zitzaien inor suntsitu. Eta, aitzitik, lagungarri gertatu dira jende askorentzat; lagungarri gertatu zaizkigu irakurle askori».

2005eko abuztuak 22

Uste ez bagenuen ere, halakorik geure buruari ezin barkatuko geniolakoan bageunden ere, une batean, azkenean, amore ematen dugu. Gogoak uzten dio lehenengo aurrerako bide itsuari, eta gorputzak ondoren, berehala, oihartzun baten zehaztasun saihestezinarekin. Hiltzea da, eta bizitzea da. Heriotzatik bezala, bizitzatik ere asko baitu une horretako zirrarak, neketik beste atsedenetik. Aurrekoaren erritmoa ezin jarraitu duen txirrindulariaz ari naiz, bikote baten hausturaz, oztopoen eta zailtasunen ondorioz bertan behera utzitako egitasmoaz. Baina ausaz heriotzaz ere ari naiz.

2005eko abuztuak 23

TXIKITAKO LAGUNIK ONENA

Lontxo izan nuen lagunik onena txikitan. Lorenzo Abel Martin zuen izena; Larrañaga Zialtzeta lehen bi deiturak; familiaren izena Larrume, aita zenaren baserritik hartua. Etxepe berean bizi ginen, Azkoitian, Urrategirako bideko Etxe Iru-Arte etxean. Laugarren solairuan ezkerrean bera, Lontxo; bigarren solairuan eskuinean ni. Baina noiznahi ginen bata bestearenean. Elkarrekin joaten ginen egunero eskolara. Behin, ilunabar batean, etxe atarian, puxtarriekin jolasten haserretu eta gero, elkar joka hasi ginen, borrokan. Baina biharamunean ere elkarrekin joan ginen eskolara. Lotsa eman zigun elkartzeak, baina lotsa handiagoa emango zigukeen elkarrekin ez joateak.

Lontxo eta biok lotsarik gabe egon gintezkeen biluzik elkarren aurrean, baina inoiz ere elkarri ipurdia ikusi gabe. Kontu hori, ipurdia ez ikustearena, idatzi gabeko legea zen, tabua, ez dakit nik nondik sortua. Behin, Lontxo kakaegi-

nean ari zen bere etxeko komunean, atea zabalik utzita; eta ni, ate paretik, harekin lasaitasun osoz berriketan ari nintzen. Lontxo, ez dakit nola eta zergatik, estropezu egin eta aurrerantz erori zen. Orduan ni ate paretik kendu nintzen, Lontxoren ipurdia ez ikustearren. Hori da behintzat nik oroitzen dudana.

Oso mutil bizia zen Lontxo. Futbolari ona; txikia, bizkorra, bihurria, iheskorra, atzemanezina. Telebistan edo egunkarietan Nihat ikusten dudanean, Lontxo dakarkit beti gogora. Beste kirol batzuei ere ez zien muzin egiten, eta biok batera bizikletan hara eta hona ibiltzeko ohitura hartu genuen bolada batean, Bergararaino, Mutrikuraino, Zarautzaino, Ordiziaraino...

Neskatarako ere abilidade handia izan zuen oso gaztetatik. Bera izan zen gure koadrilan neska batekin *ibiltzen* hasi zen lehena. Oraindik ere ikusten ditut Maite eta Lontxo, elkarren ondoan Azkoitiko kale nagusian gora eta behera, eskutik helduta, igande arratsalde batean, bikote batek egoera horretan ibili behar duen baino askoz azkarrago ibiltzen, urduritasunaren eraginez. Baina kalean gora eta behera ibiltze hutsaz

haratagoko bikote zereginak ere oso gazterik eta oso bizkor deskubritu zituen, beste batzuek baino askoz lehenago; nik baino askoz lehenago, esate baterako.

Ez dakit zehatz-mehatz noiz, zenbat urterekin, baina poliki-poliki etengabe elkarren berri duten lagun min izateari utzi genion Lontxok eta biok, etxepe berean bizitzeari eta adiskide handiak izateari utzi gabe. Gure koadrilako beste kide bat izan zen ondorengo urte horietan Lontxoren lagunik minena: Kope.

Futbola utzita, dantzari eman zizkion onenak Lontxok urte horietan. Azpeitiko Sahatsa taldean oso maitea izan zuten. Lontxok garai hartan izan zuen beste zaletasun handi bat rock musika izan zen. 70 eta 80ko hamarkadako rock musikako disko bilduma bikaina osatu zuen, eta David Bowie zuen gogokoena, kutunena. Gai horretan Kope zen koadrilako jakintsuena eta aurreratuena, eta zaletasun horretan bat egin zuten biek.

Orain arte esan ditudan guztiak kontu jakinak dira Lontxo ezagutu zuen edonorentzat. Ez dut uste, ordea, horren kontu jakina denik Lontxok Benito Lertxundirenganako bolada batean izan

zuen zaletasuna. Sahatsakoekin dantza egiten eta Koperekin rock musika entzuten hasi aurretik izan zen hori.

Gure etxean, ez dakit nik nork ekarriak, Benito Lertxundiren hiru disko zeuden: *Oro laño mee batek...*; *...eta maita herria, üken dezadan plazera*; eta *Zuberoa / Askatasunaren semeei*. 14 eta 15 bat urterekin disko haietako kantu guztiak buruz ikasteraino entzun genituen, gozamen eta mirespen handiz, Lontxok eta biok. Baita zubererazko hitzak zituztenak ere: *Jaun baruak*, *Xori erresiñula*, *Ürzo lüma gris gaixoa*, *Maria Solt eta Kastero*... Grazia handia egiten zigun *Lehen floria* kantuko azken ahapaldiko «*gitian txosta kanberan*» misteriotsu eta kitzikagarriak.

Zuberoa / Askatasunaren semeei disko bikoitza entzuten ari ginen biok, sala txikian, Jenaro Lekuona, Azkoitiko parrokiako erretorea, gure etxera etorri zenean. Gure aita zena, minbiziaren ondorioz, hilurren zen, eta hari azken olioak, edo erlijioaren bidezko nolabaiteko kontsolabidea behintzat, ematera etorria zen Jenaro. Sotanarik gabe ibili ohi zen. Apez gazte, moderno eta dotorea zen; oso gazte, oso moderno eta oso do-

torea, Don Quintin, Don Joaquin, Don Anastasio eta herriko beste apez batzuekin konparatuz gero behintzat. 1978ko udazkena zen; 15 urte genituen, beraz, Lontxok eta biok, hark artean ere bete gabeak akaso, sanmartin egunekoa baitzen, azaroaren 11koa. Ez dakit kontziente izan nintzen orduko hartan erretorearen bisitaren motiboaz. Baietz uste dut, amak esana baitzidan ez zegoela aitarentzat esperantzarik, hil egingo zela.

Gure aitarekin egon eta gero, musikak erakarrita, salara etorri zen erretorea, Lontxo eta biongana. Hark ere oso gustuko zituen Benito Lertxundiren diskoak, eta Orbaizetako olari buruzko bi kantuak jarrarazi zizkigun disko-jogailuan. Elkarrekin entzun genituen hirurok. Hunkidura biziz eta irmotasun arranditsuz lagundu zion erretoreak Benito Lertxundiri Jose Angel Irigarairen hitzak esaten: «*Aezkoako mendietan / Auñamendiren magalean / Iratiko oihanaren itzalean / bihotzaren erdian / euri, elur eta laiño / laiño guztien artean / zegoen eta dago, / bakardadean / ixilean, lo / Orbaizetako ola...*». Harrigarria eta zirraragarria izan zen hura Lontxo eta biontzat.

Ez genuen asko espero Azkoitiko parrokiako erretoreak gure zaletasun musikal harekin bat egitea. Eta nola gainera!

Koperekin batera, moto istripuan hil zen Lontxo, 1987ko urriaren 17an, 24 urte bete gabe artean. Nire txikitako lagunik minena izan zen. Orain hilda dago, eta pena ematen dit hartaz oroitzen dudan guztia, funtsean, testu labur honetan sartzen dela pentsatzeak.

2005eko abuztuak 24

Bizi zelarik gertutik ezagutu nuen hildako pertsona bati buruz mintzatzen naizen bakoitzean, bi kezkaren itzalek iluntzen didate gogoa: batetik, orain hilik den horri buruz esan dudana zuzena ote den zalantzak izaten ditut; bestetik, hila neu izan nintekeela bururatzen zait, eta orain hilik den hori mintza zitekeela nitaz, nik berari buruz mintzatzean izan dudanaren gisako patxadaz.

2005eko abuztuak 28

ZEHARKA

Zeharka bizi naiz,
gogo guztiak zintzo hezita,
grina guztiak txarrantxaz hesituta.
Erruduntasuna harri eta zalantza porlan
duen horma garaia gainditzera
derrigortuta erabaki bakoitzeko,
ezkerretara jo aurretik
eskuinari muin egitera,
eskuinetara jo aurretik
itzuliko naizela promesa egitera.

Ezin naiz zuzenean bizi,
gauzekin eta pertsonekin
bat-batean bat eginez,
izan naizenaren eta
nigandik espero denaren
zama txepeltzailetik libre.

Eta honezkero zaila aldatzea.
Eta honezkero ahaleginduta ere alferrik.
Eta honezkero, zuzen-zuzenean, ezta nahi ere.

2005eko irailak 4

Semen retentum meliore fortuna sequatur. Pro mis quo.

2005eko irailak 5
DENA LIBRE

Telebistan futbol partida ikusten ari nintzela, emaztea etorri zait salara.

– Telefonoa, Jose Martin, zuretzat: Arantzetako gaztetxeko kide bat.

«Beste *bolo* bat», pentsatu dut neure artean, sofatik altxatu beharrak gogaituta. «Justu orain, Reala ondoen jokatzen ari denean, gol bat sartzeko zorian».

Sorkunde du izena telefonoz deitu didan neskak, eta ume baten ahotsa ia-ia. Zinburretako gaztetxean gertatu zitzaidana ekarri dit gogora horrek: *bolo* baten ondoren Eiderrekin ligatu nuenekoa, 80ko hamarkadako gaztetxeetako giroa zoroki miresten zuen neska gazte batekin. Oroitzapen horrekin ilusionatuta itzuli naiz telefonotik telebista aurrera. Ohitura duen moduan, Realak zapuztu dit unea: ni telefonoz ari nintzen bitartean beste gol bat egin diote, atzelarien arteko gaizki-ulertu baten ondorioz.

Sekulako pagotxa izan da niretzat *Dena libre* idaztea. Liburuaren milaka ale saltzeaz gain, hara eta hona ibiltzeko aukera eman dit, leku askotatik deitu baitidate, *boloak* egiteko, hots, liburuari buruz hitz egin, gaztetxearen garaiko kontuak berritu eta garai hartako diapositiba zaharrak erakusteko.

Emazteak behin eta berriz esaten dit ezezkoa eman beharko niekeela behin eta betiko horrelako saioei; lotsatu egin beharko nindukeela daukadan adinarekin gaztetxeei, okupazioari eta autoerakuntzari buruz azalpenak ematen jarraitzeak. Ea non ikusi den horrelakorik. Baina nik ez dut utzi nahi.

Gaztetxeetatik deitzen didatenean, kasurik gehienetan behintzat, ez da sosik izaten niretzat; asko jota, bidaia ordaintzeko lain. Baina kultur etxeetatik deitzen didatenean, nahiko ziurra izaten da dirua jasotzea. Eta, ondo pentsatuz gero, doako emanaldiak ere onuragarriak zaizkit, liburuaren salmentak sustatzeko balio dutenez gero. Gainera, kitzikatu egiten nau Zinburretakoaren antzeko beste abenturaren bat izateko arriskuak.

Ez dut zertan lotsaturik. Inork ezin dit ezer leporatu. Gezurrik ez dut esaten jende aurreko nire agerpenetan. Zer asmo genituen azaltzen dut lehenik: gizartea herritik bertatik hasita aldatzearen kontu hori, behetik gora, hierarkiarik gabeko autoerakuntzaren bitartez, erabaki ahalmen osoa Asanbladari emanez, inoiz inorengan delegatu gabe... Udalak jarri zizkigun oztopoak aipatzen ditut gero, horri erantzuteko okupazioa nola antolatu eta egin genuen, desalojoak, okupazio gehiago, borroka giroa herrian...

Ni han egon nintzen. Ez beti akaso, baina batzuetan bai behintzat. Diapositiba batzuetan agertzen naiz. Gaiztoen aldean, jakina. Edo oraingo ikuspegitik begiratuta –nire emanaldi horietan hala da, dudarik gabe–, zintzoen aldean; edo –hitz hori arraro samar geratzen denez testuinguru horretan– alde egokian behintzat, orduan egon behar zen lekuan.

Badakit beste batzuek nik baino askoz gehiago eman zutela garai hartan gaztetxearen alde, autoerakuntzaren alde, gizarte justuago baten alde... Eta badakit ni beste batzuk baino gehiago aldendu naizela orduko ametsetatik eta borroke-

tatik. Baina aizu: beste horiek ez dute *Dena libre* idatzi, eta nik bai; eta niri deitzen didate hura zer izan zen azaltzeko.

Nahigabea besterik ez dakarkigu Realak azkenaldian. Jaitsierako postuetan dago berriro, gaur etxean galdu eta gero. Ez dakit ez ote litzatekeen hobe izango behingoz bigarren mailara jaistea, urtea joan eta urtea etorri beti kinka larri horretan penatzen ibili beharra baino.

Eta gaur, gaueko txandan, Ortuosterekin egin behar dut lan. Ni ikusteko amorratzen egongo da kabroia! Egongo ez da ba Athleticek etxetik kanpo irabazi eta gero! Arraioa!

Dena den, aitortu beharra dago ez dela mutil txarra Ortuoste. Bihotz handia dauka, beroa. Une larrietan lagunarengatik dena emateko prest izaten diren horietakoa da. Erakutsia dit behin baino gehiagotan, batez ere gure lanbidearen alderdirik zail eta gordinenean: kalean. Eta lanerako bezala, parrandarako ere lagun bikaina da: edozertarako kontaktu onak eta erabateko diskrezioa. Hari esker izan dut nik ezkutuko plazer askotarako sarbide eroso eta ziurra. Ez

dut damurik. Behin baino ez gara bizi! Ez nion alferrik *Dena libre* izenburua jarri nire liburu ezagunenari, ezta?

Ni bezala, gaztetxeen mobidetan ibili zen gaztetan Ortuoste; bere herrian, Arrikrutzetan. Ozen egin zuen barre kontatu nionean oraindik ere, *Dena libre*-ren aitzakian, gaztetxeari buruzko azalpenak ematen ibiltzen naizela herririk herri.

– Horietako saio batean laneko uniformearekin agertu beharko huke –bota zidan, barreari ezin eutsita.

Barre egin nuen nik ere, jakina, egoera irudikatuta. Baina harrezkero buelta asko eman dizkiot Ortuosteren burutazio horri.

Horrek, ondo pentsatuta, beste dimentsio bat emango lieke nire *boloei*. Irabazi egingo lukete.

2005eko irailak 29

Nire bizitzako egunik txikiena bizitzeko ilusio-arekin jaikitzen naiz goizero ohetik.

2005eko urriak 2

«Dauzkadan munduko errekor guztiak emango nituzke zure irribarre baten truke».

2005eko urriak 6

Besaulkiaren erosokerian galdutakoa irakurgaien aberastasun konplizean irabaziz gero, ez da horren aukera txarra ezkertiar izatea. Ezkertiar burgesa, jakina.

2005eko urriak 7

Azalaren barrunbeetan, lore.

2005eko urriak 10

Presarik gabeko isiltasuna, denborarik gabeko egonaldia zuhaitz zaharraren jakinduriaren azpian, etorkizunik gabeko laztan trukeak errekaren murmurioaren ertzean... Ederrak dira kontu horiek, maite ditut, jakina. Baina berehala naiz, arinegi akaso, isilaz ase, zarata bila, presa gose, arrangura gordinen premian, egon gozoaren zoriontasunean inola ere errenditu ezinda.

* * *

Erraz hiltzen dira Errezilen amuarrainak amuari amore emanda. Bai Granada jatetxearen atzealdeko putzuetan behintzat.

Ba ote da munduan amuarraina baino izaki madarikatu eta gupidagarriagorik? Izenean darama, gorputzean hezurrak bezain erauziezin txertatua, hilko duen armaren marka.

2005eko urriak 16

Maitematikak eta liluratura. Amormáticas y maravillatura. Amourmatiques et merveuillature. Lovematics and wonderlature.

2005eko urriak 21

Urte askotako ahaleginaren poderioz eta horrenbeste neke, oinaze eta ilusioz irabazitako gure tasun laudagarri guztiak lokatzetan bueltaka ikusten ditugu askotan, mingarri, ahalkegarri, etsigarri. Hutsa behar izaten da horretarako, keinu baldar bat asko da.

Eta hala ere altxatuko garela sinetsi behar, geure tasun laudagarri eta guzti altxatuko garela; edo hala sinetsiko bagenu bezala aurrera egin bederen. Eta, harrigarria!, hori ere ez da batere zaila.

2005eko urriak 22

Liburu guztiekin gozatzen du idazleak: onarekin, ona delako; txarrarekin, egoa indartzen diolako.

2005eko urriak 24

Poesia ez dela gaur egun jendearengana iristen? Ez akaso liburu barruetan elkarren ondoan pilatuta ezkutatzen diren poemak. Baina poesia beti iritsiko da jendearengana, ezinbestean. Beti izango baitugu poesiaren premia, aldez edo moldez, forma batean ez bada bestean, denok eta gutariko bakoitzak. Eta gainezka egin eta liburuaren esturatik irtendako poesia baldin bada, askoz hobe, gainera.

Poema liburuak poesia gordetzeko biltegiak baino ez dira; nahiz eta poesia alferrik galdu gabe gordetzea, berez, ezinezkoa izan. Poema liburuak liburuetatik kanpoko poesiarekin ezin ase direnen atseginerako erreserbak dira; nahiz eta poesiaz erabat asetzea, berez, ezinezkoa izan. Kontraesan horiekin bizi da betidanik poesia, genero literario gisa.

Baina, azken batean, horrela begiratuta, ezintasun eta kontraesan horien guztien zama gainean dutela, ez al dira poetikoagoak ikusten poema liburuak?

2005eko urriak 25

Hor zaude? Ez zaude, ezta?

2005eko azaroak 4

Gauza guztietarako lekua dute egungo etxe atsegin, argi, alai eta egokiek. Tristurarentzat izan ezik. Eta tristura etxean sartzen denean, etxe osoa bereganatu arte barreiatzen da, erremediorik gabe.

* * *

Saritu maitatu baino askoz ere errazago egiten den jende ugari bizi da Ospearen Etorbidean.

2005eko azaroak 10

Labur esanda: ezer ez.

2005eko azaroak 11

Goi mailako literatura, maisutasunez idatzitako liburua, idazle handia... Telebista ikusteko gogoa pizten duten topikoak.

* * *

Zabaleko Joxe hil da.

Zabaleko Joxe izan zen nik ezagutu nuen lehen baserritarra, eta harrezkero Zabaleko Joxe izan dut beti buruan, ohartuki edo oharkabean, baserritar bat ikusi edo aintzat hartu dudan bakoitzean. Zabaleko Joxeren ereduaren arabera moldatutako kopiak iruditzen zaizkit, eta irudituko beti, baserritar guztiak; baserri guztiak Zabaleren kopiak iruditzen zaizkidan bezala, herri guztiak Azkoitiaren kopiak, familia guztiak neurearen kopiak, etxe guztiak gure orduko etxearen kopiak, haur guztiak neu izan nintzen haurraren kopiak.

Munduaren erdigunean erreferente garrantzitsua zen, beraz, Zabaleko Joxe, eta handia da utzi duen hutsunea.

Gero eta ohituagoa nago horrelako hutsuneekin bizitzen, egia da. Ez naute, haurtzaroan edo nerabezaroan bezala, ikararaino harritzen eta durduzatzen. Lehen baino askoz errazagoa zait etsipenezko keinu leun labur baten ostean ohiko zereginetara itzultzea, alegia deus ez. Ez, ordea, galeraz ohartu gabe.

2005eko abenduak 18

Euskal kanturik onena zein ote den erabaki nahian dabiltza Euskal Telebistan. Ez didate niri galdetuko, baina nire ustez euskal kanturik onena Leonard Cohenek Job gogaitaraziaren ahotsez hasten zuen hura da: *«Let's sing another song boys, this one has grown old and better».*

* * *

Gustuko duzunarekin oheratzeko aukerak ilusioa pizten du; baita beldurra eragin ere. Aukerak murriztean, beldurra erabat galtzen da; ez ordea ilusioa. Okerrenean ere, gustuko duzunarekin oheratzeko ilusioak beti aurkitzen du zeure baitan txoko bat, bizirik irauteko. Goxoa irudikatzen dut txoko hori, habia epel abegikorra, amesleku mugarik gabekoa.

2005eko abenduak 24

HAU AMORRAZIOA!

Egiten dudana egiten dudala,
egiten dudana egiten dut.
Eta ezin egin egiten ez dudana.
Eta ezin egiten dudana ez egin.
Hau amorrazioa!

2005eko abenduak 29

Liburu dendan, neska-mutil bikotea.

Neskak dendariari:

– Baduzue *Todos nacemos vascos* liburua?

– Ez dakit –dendariak–. Galdetuko dut. Itxoin pixka bat.

Mutilak neskari:

– ¿Qué te ha dicho?

2005eko abenduak 30

Aspaldiko joera dut aurrenik derrigor egin beharrekoa egin eta hautazko zereginen plazera ondorenerako uztea. Ez naiz alferrik kristautasun bete-betean hezia.

Baina derrigor egin beharrekoarekin hautazko zereginekin baino gehiago gozatzen dut; horren lasai uzten nau kontzientziak derrigorrezko zereginetan ari naizenean, horren gogor eta zakar astintzen nau kontzientziak hautazko zereginetako plazeren bila ari naizenean.

2006

2006ko urtarrilak 2

Bata bestetik zeharo urrun diruditen ikuspegi edo jarrera aurkakoenak ere bidera daitezke, zein bere aldetik, bata bestearekin harremanetan jarri gabe, «bai, baina ez» bateraino bata, «ez, baina bai» bateraino bestea. Eta behin horretaraino iritsita, bi jarrera edo ikuspegi horiek ez dira horren urrun eta horren aurkako ageriko.

2006ko urtarrilak 12

Hiriko zurrunbilotik irtetean, urbanizatu gabeko eremu baten desordenak lasaitu egin nau, babestuta sentiarazi, etxean bezala.

2006ko urtarrilak 16

Ez naiz gurasoek irakatsi zidaten bezala bizi. Eta pozgarria zait hori.

Baina ez zait iruditzen nire bizitzeko modua gurasoek irakatsitakoa baino hobea denik funtsean. Eta hori ere pozgarria zait.

* * *

Arrazoi osoa zuen Bernardo Atxagak hitzaldi batean esan zuen hartan: *Fairy* markako baxera-garbigarri pixka batek lan asko egiteko aukera ematen du. Beste marka bateko baxera-garbigarria erabiltzen dudan bakoitzean –*Alin* markakoarekin proba egitea egokitu zait gaur–, Atxagaz oroitzen naiz, eta aspaldi eman zuen hitzaldi hartan arrazoi osoa zuela egiaztatzen dut.

2006ko otsailak 3

Onartu nahi ez badugu ere –zein irrigarriak gure ahalegin zoro askotarikoak–, aise adieraz daiteke, oso hitz edo keinu gutxirekin, gure izana eta gure emana, gutariko bakoitza zein denok batera garen guztia, zehaztasun osoz, bete-betean. Laburbilduz: laburgarriak gara.

2006ko otsailak 5

Kantu batzuk etxeak dira, etxe ederrak. Beste batzuk harpeak dira, ederretik haratago.

2006ko otsailak 21

Estatistikek argi erakusten dute: onena izatea bezain zaila da txarrena izatea.

2006ko martxoak 1
DESEGOKITUA

Goiz batean, amets nahasi baten ondotik itzartzean, neure borondatearen baimenik gabe, ilunpean erdi-lotan goxo-goxo geratzeko nuen gogoari kontra eginda, ohe ondoko argi-giltza sakatzen ari nintzela jabetu nintzen. Ohean gelditu nahi nuen arren, ohetik altxatzen hasi nintzen. Zutik jarritakoan, gelako zorua pittin bat urrunago zegoela iruditu zitzaidan, garaiago banintz bezala. Ezagutzen ez nuen liburua ikusi nuen, gainera, gau-mahaian: Joseba Sarrionandiaren *Ez gara geure baitakoak* zegoen, bezperan Franz Kafkaren *Metamorfosia* utzitako lekuan.

«Zer gertatu zait?», pentsatu nuen neure artean.

Baina ez nengoen pentsamendu horretan sakontzeko egokierarik onenean. Esna nengoen baina, amets batzuetan gertatzen den bezala, gogoa guztiz arrotza zitzaion gorputzari. Gogoak gorputza geldiarazi nahian jarraitzen bazuen

ere, ohetik altxatu berriaren ohiko mugimenduetan jarraitu nuen. Nahiz eta harrituta eta urduri egon, are izutzen ere hasia, ez nintzen sentimendu horiei zegokien jarrera hartzeko gauza, ez hitzetan eta ez aurpegiaren imintzioetan edo gorputzaren mugimenduetan, eta horrela oso zaila zitzaidan pentsamenduak ganoraz eta koherentziaz harilkatzea.

Gurasoekin eta arrebarekin gosaldu nuen, lasaitasun eta normaltasun osoz itxuraz, egunero egiten nuen modu bertsuan. Baina gorputza guztiz bere kasa zebilen, automatikoki funtzionatzen ari zen, nire gogoarengandik guztiz independente. Horrelaxe egin nuen bizarra, horrelaxe dutxatu eta jantzi nintzen, horrelaxe joan lizeora. Neure gorputzak inolako azalpenik eman gabe bahiturik baninduka bezala.

Ispiluek, egutegiek, egunkariek, irratiak eta telebistak, jendearen adierazpen eta jokabideek erakutsi zidaten, pausoz pauso, nire gorputza ni baino hiru urte aurrerago zegoela, eta nire gorputzarekin batera zegoela inguratzen gintuen mundua, nik oroitzen nuen aurreko gauetik egun hartara hiru urte pasatu balira bezala. Neu nin-

tzen, beraz, ez jakin zeren ondorioz, ez jakin nola, atzean geratua. Lekuz eta denboraz kanpo nengoen, desegokitua, makinako engranajetik irtendako pieza baten antzera. Makinak, ordea, martxan jarraitzen zuen, egoki zebilen, alegia deus ez, bizirik, osorik, nire gorputz arroztua barne.

Lehen egunetako izua gainditu eta gero, uste baino aiseago egokitu nintzen egoera berrira. Ezer egin ezin izateak erraztu eta azkartu egin zuen ohitzeko prozesua. Nire arazoaz pentsatzea eta irtenbideak bilatzea, neure buruari agindu niezaiokeen edozein ahalegin bezala, zeregin guztiz antzua zenez gero, neure gorputzarekin nuen menpekotasunezko loturari alderdirik onenetik begiratuta, hark ematen zizkidan une atseginenekin gozatzea bihurtu nuen nire ilusio handiena. Ezin nuen besterik egin.

Nik neure gorputzaren mugimenduetan eta ekintzetan inolako eraginik ez izan arren, gorputzari gertatzen zitzaiona lehen bezain bizi eta neure sentitzen nuen, zuzen-zuzenean. Gozatu egiten nuen lo egitean (orduan ez nuen, gainera, igarri ere egiten desegokitua nengoela); gozatu

egiten nuen jatean, edatean, masturbatzean; min ematen zidaten kolpeek eta zauriek, nekatu egiten ninduten korrikaldiek, estutu pixagale larriak.

Neure gorputzetik kanpo gertatutako kontu guztiak, aldiz, urrunak zitzaizkidan. Etxekoen eta lizeoko adiskideen pozak eta minak ez zitzaizkidan axola. Ez behintzat haiekin batera benetako poza edo mina sentitzeko lain, nahiz eta gorputzak, egoki beti, poza edo mina adierazi. Nik, azken batean, telefilm bateko pertsonaien antzera ikusten nuen jendea, baita gertukoena ere, nire talaia arraro hartatik.

Plazerik handiena masturbazioak ematen zidan. Berantetsita egoten nintzen, nire gorputza noiz bakartuko, eskuineko eskuak zakilari gupidarik gabe eragin ziezaion, azken eztanda zoragarrira arte.

Zorionez, nahiko sarri masturbatzen nintzen. Horretarako adin egokian nengoen. Lehen baino pixka bat garaiagoa eta pixka bat gizonduagoa neukan gorputza. Hemezortzi urteko mutiko batena zen, izan ere; ez hamabost urteko mutil

koxkor batena, aurreko bizialdian nire gogoari kasu egiten zion hura bezala.

Baina berehala jabetu nintzen gainerakoan nire bizitza, edo nire gorputzarena zehatzago esateko, ez zela asko aldatu azken hiru urteetan. Betiko martxan jarraitzen genuen etxean, eta betiko lagunak nituen lizeoan, nahiz eta beste irakasle batzuk izan eta beste gai batzuk ikasi. Desegokitua esnatu nintzen lehen egunean, etxean nahiz kanpoan ikusitako ezerk ez nin-duen ezustean harrapatu (nire gogoaren antzu-tasunetik eta nire gorputzaren erabateko inde-pendentziatik landa, jakina). Ezta hurrengo egu-netan, asteetan eta hilabeteetan ere. Asko ziren aldaketak, baina txikiak denak. Funtsean, ezer ez zitzaidan erabat harrigarri, ezezagun edo arrotz. Dena iruditzen zitzaidan normala, logi-koa, interesik gabea.

Ainhoaren begirada izan ezik.

Bakoitza bere aldetik, bai nire gorputza eta bai ni, biok ginduzkan txoratuta Ainhoak. Hark zerbait esaten zidan bakoitzean, ezkutuan gor-detako mezu baten zantzuak igartzen nituen, oso zantzu arinak beti, nabarmenkeriarik batere

gabekoak, zalantza piztaileak. Ahotsean ez bazen, begiradan; begiradan ez bazen, imintzioren batean; edo airean zintzilik bezala sentitzen zen ezusteko eta arrazoirik gabeko isilune arin batean bestela.

Nire desegokitasunaren ondorioz, ezin nuen ezer egin Ainhoarengana gerturatzeko. Baina argi samar zegoen ez nuela ezer egin beharrik ere. Argi zegoen nire gorputza, bere kasa beti, nire borondatearen beharrik gabe baina nire borondatearekin guztiz bat eginda kasu hartan, Ainhoarengana gerturatzeko bidea egiten ari zela, poliki-poliki, guztiz arrotz eta ezezagun zitzaidan trebetasunez. Ez nekien non ikasia zen neskei gortea egiteko antzean erakusten ari nintzen tenplea eta eskarmentua, baina pozgarria zitzaidan.

Ainhoa biluzik ikusi nahi nuen, Ainhoa laztandu nahi nuen, Ainhoari musu luzeak eta indartsuak eman nahi nizkion, Ainhoarekin larrutan egin nahi nuen, eta gero eta ziurrago nekien nire gorputzak une horiek emango zizkidala. Ondorioz, Ainhoa beste inor baino askoz gertukoagoa sentitzen nuen. Ainhoa ez zen niretzat, gainera-

ko jendea bezala, interesik gabeko telefilm bateko pertsonaia.

Desegokitasunaren mina gainditua nuela uste izatera iritsi nintzen: Ainhoarekin egoteko pozak bizi ninduen, eta gainera ez nuen dudaren edo damuaren beldur izateko motiborik. Horretan abantaila nuen elkarrekin ondo egokitutako gogo-gorputzen jabeen aldean.

Mendi aldeko paraje bakartu batean jo genuen larrua lehen aldiz, bere autoaren barruan, Ainhoak eta biok. Zoragarria izan zen. Beste erremediorik ere ez eta, gorputzari nahi zuena egin zezan utzi nion, eta neuk nahiko nukeen huraxe egin zuen une oro, nahiz eta nire nahi ororekiko guztiz independente jarraitu beti. Ez dakit non ikasia zen, baina ederki asmatu zuen. Ainhoaren poza eta Ainhoaren plazera nire poza eta nire plazera izan ziren.

Larru kontuak amaitu zirenean, ordea, bizialdi berrian egundo ezagutu dudan nahigabezko putzurik beltzenean murgilarazi ninduen nire gogoaren antzutasunak, nire gorputzaren arroztasunak, nire desegokitasunak.

Uneari zegokion samurtasunarekin bat zetozen hitz egokiak irten ziren nire ahotik, Ainhoaren irri leunaren lagun. Baina hura ez zegoen ondo. Hura ezin zuen gorputzak gogoarengandik aparte bideratu. Eta bideratzen ari zen, egoki ere oso egoki gainera, egokitasun madarikazioraino iraingarriz. Gehiegi zen. Nire txanda behar zukeen, baina ez zen nire txanda. Eta orduantxe ulertu nuen, inoiz baino garbiago eta inoiz baino ziurrago, ez zela inoiz gehiago nire txanda izango. Inoiz ere ez.

Etsi dut berriz ere. Laketu naiz beste behin. Minaren oilo-lurretik une jakin eta labur batzuetan baino irteten ez banaiz ere, atera dut burua behintzat nahigabearen leizerik sakonenetatik. Gorputzak ematen dizkidan plazeren aiduru eta irrikaz bizi naiz, eta onena opa diot nire gorputzari. Esker oneko natzaio.

Askotan etortzen zait burura zein kontsolabide ederra eta zein aringarria litzatekeen hau guztia norbaiti kontatzea. Ezinezkoa da, baina esku artean boligrafoa eta papera hartzen ditudan bakoitzean, edo ordenagailu baten aurrean esertzen naizen orotan, istorio hau idatziko du-

dalako itxaropen oinarririk gabea pizten zait gogoaren barrurik barrukoenean.

2006ko otsailak 24

Ikararaino izutuko gintuzke esnatzerakoan dinosauroa falta dela jabetzeak.

2006ko martxoak 3

Langarra naizenean zuregana jotzen dut, langarretan. Eta inoiz ezer izatekotan langarra naizenean naiz, langarretan langar zuregana.

2006ko martxoak 10

Koaderno honek izan zitzakeen beste izenburu batzuk: Autoerretratua; Autobihotzgrafia; Basoilarrak kantatzen dizu; Arimairua; Joan eta joan; Ahanzturaren artxipelagoa (II); Airibezak; Muinik muinena; Lits urratua; Guztiarekin ere; Izuaren gailurrik sakonenean; Udazkena barruan; Ez dok Armairu; Sei litro odol; Barru-bideetan; Barru giroa; Neure artean; Giza txuleta gordinak; Ilunari zizelez erauzitako argia; Munduaren ondoan; Hilotzez betetako zoriona; Halakorik inoiz berriro gerta ez dadin; Hedabideak iristen ez diren zokoan; Dudak eta damuak; Euria ere aterpe bila; Ezin; Ezin, ezin, ezin; Propaganda; Maiterominmena; Baraurik, biluzik, bakarrik; Nire bizitzako egunik txikiena; Gogoaren barrurik barrukoenean; Maitematikak eta lilura-tura; Labur esanda: ezer ez; Ederretik haratago; Desegokitua; Langarra; Langarrak; Langarra zuregana.

2006ko martxoak 12

Traba nintzen baina kabitu naiz.

Liburuko testu batzuen aurreko argitalpenak (*)

«Trial of explanation» testua (1987-09-15), *Garziarena* aldizkarian (Emak Bakia Baita), *Pipi Garziarena* sinadurarekin.

«Ezta nahita ere» ipuina (1990-09-01), *Hegats* aldizkariaren 3. zenbakian (1990).

Hainbat poema (1994tik 2001 bitartekoak («Berdin dio», «Zalantza», «Hire bila nabilen», «Bustita», «Bilanak», «Inon izatekotan», «Ez zarete», «Ni gehiago naiz», «Poltsa beroa», «Adiskidetasuna» eta «Poema hermetikoa»), Susa argitaletxeak 2001ean Euskal Liburu eta Diskoen Durangoko Azokan kaleratutako *Sei litro odol* liburuxkan.

«Bonba eta Kiriko» artikulua (1994-11-30), *Euskaldunon Egunkaria*n, 1994ko abenduaren 1ean.

«Nora ote doa?» artikulua (1995-04-28), *Euskaldunon Egunkaria*n, 1995eko apirilaren 29an.

«Bertso degeneration» artikulua (1997-08-31), *Euskaldunon Egunkaria*n, 1997ko irailaren 1ean.

«Nire koldarkeria» artikulua (1999-05-03), *Euskaldunon Egunkaria*n, 1999ko maiatzaren 4an.

«Elkartasuna S.A.» ipuina (1999-05-20), *Buztanikara* aldizkariaren lehen zenbakian (1999ko ekaina).

«Hire bila» poema (1999-05-22) kantuz eman zuen Sen musika taldeak *Gaizki esanak...* diskoan (Metak, 2002), eta baita Hendrik Roeverrekin batera grabatutako *Pil-Pil Sessions* disko txikian ere (Metak, 2003).

«Poesiari buruzko ipuina» ipuina (2000-05-08), Faustino Aranzabal margolariaren *Sasi bidetan* erakusketako katalogoan (Durangoko Arte eta Historia Museoan, 2000ko ekainean) eta *Hegats* aldizkariaren 27. zenbakian (Euskal Idazleen Elkartea, 2000).

«Adiskidetasuna» poema (2000-06-29) kantuz eman zuen Sen musika taldeak *Gaizki esanak...* diskoan (Metak, 2002).

«Pornoa» poema (2001-05-15), *Zubizabal* aldizkariaren 5. zenbakian (Olerti Etxea, Zarautz, 2001).

«Euria ari du» ipuin sorta osorik (2001-12-01), Susa argitaletxeak 2001ean Euskal Liburu eta Diskoen Durangoko Azokan izenburu horrexekin kaleratutako liburuxkan. Aurretik, ipuin sorta horre-

tako zenbait ipuinek banakako argitalpena izan zuten: «Rainy Manchester» ipuina, *Euskaldunon Egunkaria*k 1994ko abuztuan kaleratu zuen ipuin sortaren barruan, eta baita egunkari honek urte bereko abenduan plazaratutako *9408 Narrazioak* liburu kolektiboan ere; «O morna Lisboa dos teus braços» ipuina, *Euskaldunon Egunkaria*ren «Igandeko KZ» gehigarrian, 1996ko abuztuaren 11n; «Il pleut septembre sur Paris» ipuina, *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian (HAEE-IVAP, 1997ko apirila); «Llueve desde Carabanchel» ipuina, *Ipuin berdeak* liburu kolektiboan (Eguzki-zaleak, Bilbo, 1997); «O paraugas de Pontevedra» ipuina, *Ostiela!* aldizkariaren 8. zenbakian (Paperzaleak Elkartea, 1997); «La nostra pluja de Perpinyà» ipuina, *Putz* aldizkariaren 1. zenbakian (Apokaliftin Kultur Elkartea, 1999).

«Bizikleta andregai» ipuina (2003-09-27), *Berria* egunkariaren *Hitzalean* gehigarrian, 2003ko irailaren 28an.

«Hilotzez betetako zoriona» artikulua (2004-03-17), Azkoitiko *Maxixatzen* aldizkariaren 123. zenbakian, 2004ko martxoaren 18an.

«Txikitako lagunik onena» ipuina (2005-08-23), *Berria* egunkarian, 2005eko abuztuaren 24an.

«Dena libre» ipuina (2005-09-05), *Ametsen baratza* liburu kolektiboan (Elea, Bilbo, 2005).

- «Hau amorrazioa!» poema (2005-12-24), *Hatsaren Poesia Olerki Bilduma 2006* liburu kolektiboan (Hatsa Elkartea, 2006).

(*) Liburuko beste testu batzuek *on-line* argitalpenak izan dituzte hainbat webgunetan.